



MALERREKA ALDEKO MINTZOAK

ERABILTZEKO GIDA

Egilea: Maite Lakar Iraizoz

Argitaratzailea: Malerrekako Mankomunitatea. Euskara Zerbitzua

Lehen argitaraldia: 2022ko urria

Bigarren argitaraldia: 2024ko apirila

Diseinua eta maketazioa: Ttipi-ttapa / Kulturkari



Malerrekako Mankomunitatea osatzen duten udalerrietan euskara hizkuntza bizia da, bertako biztanle gehienek baitakite solastatzen eta pertsona anitzek erabiltzen baitute bere egunerokoan.

Mankomunitatea osatzen duten herrietako mintzoek ezaugarri bereziak dituzte, izan ere, ez dira berdin mintzatzen Zubietan, Sunbillan eta Ezkurran, doinua, solasak, aditzak... aldatzen direlako toki batetik bertzera. Gainera, gure eskualdean gertatzen dira hainbat ezaugarriren mugak edo isoglosak, eta horrek gure herrietako mintzoak are bereziagoak egiten ditu.

Eskuartean duzun gida honetan eskualdeko mintzoen ezaugarri nagusienak bildu eta adibide ugariz osatu dira, gaian interesa duen edonork aisago ulertzeko eta ikasteko aukera izan dezan. Erran daiteke, azken batean, bertako mintzoen nondik norako nagusiak deskribatzen direla, baina argi utzi nahi dugu ez dela lan espezializatu bat, argitalpena eskualdeko biztanleei eta bertan lan egiten dutenei zuzenduta dagoelako. Hori dela eta, arrunt modu xume eta didaktikoan idatzi dugu. Era berean, argi utzi nahi dugu norberak ikusiko duela gidako zer zatiri erreparatu, batzuek zalantza eta akats ohikoei begiratuko baitiete, bertze batzuek hiztegiari eta, sakonago ikasi nahi dutenek, hizkeraren deskribapenari eta adibideei.

Malerrekako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak argitaratu duen gida honen bitartez eskualdeko mintzoak ezagutarazteko eta bulkatzeko asmoa du. Bidenabar, egunerokoan sortzen diren zalantzarik ohikoenak argitzeko modua ere eskaini nahi izan dugu.

Gida hau hiru modutan eskuratzeko aukera izanen da, paperean, PDFn eta Word formatuan eskaintzeko asmoa baitu Malerrekako Mankomunitateak, edozein tokitatik deskargatu eta norberak bere beharren eta interesen arabera moldatzeko aukera izan dezan. Erraterako, Iturengo, Sunbillako edota Legasako eskolak bere hiztegia egin nahi badu, aski du deskargatu, interesatzen ez zaiona ezabatu eta osatzen jarraitzea. Hortaz, hau hasiera izatea nahi dugu, bide luze, aberasgarri eta bizi baten hasiera.

Legasan bizi den Maite Lakar Iraizozek idatzi du eskuartean duzun liburuxka. Eskualdeko euskalkiari buruzko ezagutza zabala du eta Euskal Hizkuntza eta Literaturako irakaslea da Doneztebeko Mendaur DBHIn. Era berean, euskaltzain urgazlea eta Euskokultur Fundazioko patronatukidea ere bada. Eskerrak eman nahi dizkiogu egin duen lanarengatik.

Lan hau interesa duten pertsonendako erabilgarria izatea espero dugu.

Jon Telletxea Juanenea
Malerrekako Mankomunitateko lehendakaria

AURKIBIDEA

1. Aitzinsolasa	3. or.
2. Batua eta euskalkiak.....	4. or.
2.1 Euskara batua eta tokiko estandarra.....	4. or.
2.2 Euskaltzaindiak zer dio euskalkien inguruan?.....	5. or.
2.3 Nola indartu bertako euskara?.....	8. or.
2.3.1 Eskola.....	10. or.
2.3.2 Administrazioa.....	12. or.
2.3.3 Komunikabideak.....	12. or.
3. Zalantza ohikoenak.....	13. or.
3.1 Zalantza eta huts errepikatuenak.....	13. or.
3.2 Zer egin zalantzaren bat dugularik?.....	21. or.
4. Malerreka aldeko mintzoen ezaugarriak.....	23. or.
4.1 Fonetika-fonologia.....	28. or.
4.2 Morfologia.....	40. or.
4.3 Sintaxia.....	51. or.
4.4 Lexikoa.....	54. or.
5. Malerreka aldeko mintzoen hiztegia.....	55. or.
6. Lekukotasunak	71. or.
7. Bertzelako baliabideak.....	85. or.
8. Bibliografia	87. or.

Anitz izaten dira egunerokoan, batez ere idaztean, euskaldunok izaten ditugun zalantzak: *anitz* idazten ahal da? Zein da forma egokia: *solastu* edo *solastatu*? *Solas* errateko Basaburu Ttikian erabiltzen den *jolas* batuan onartua dago? *Bertz*e onartua dago? Eta *erran*? Gida xume honek zalantza horiek guziak (edo gehienak behinik behin) argitzea du helburu.

Horrez gain, euskalkia noiz eta nola erabili, tokiko estandarra zer den, akats eta zalantza ohikoenak zein diren eta bertzelako azalpenak ere eman gogo ditugu, interesa duen orok ikasteko eta erabiltzeko aukera izan dezan.

Argi utzi nahi dugu ez dugula deus ere asmatu, denon eskura dauden hainbat baliabide, webgune eta argitalpen baliatu baititugu, bertako ideia nagusiak bildu eta edozeinek ulertzeko moduan.

Lan hau Malerrekako Mankomunitatea osatzen duten herrietan oinarritua dagoenez, labur bada ere, horren inguruko bi solas egin nahiko genituzke.

Historikoki, [Malerreka solasean](#) liburuan azaltzen den moduan, egun *Malerreka* dena bi ibar handitan banatua zegoen: Basaburu Ttikia (Beintza-Labaien, Eratsun, Ezkurra eta Saldias herriek osatua) eta *Santesteban de Lerín* zeritzona (Bertizarana, Doneztebe, Elgorriaga, Ibargoiara, Ituren, Oiz, Urroz, Sunbilla eta Zubietak eratua). Erran beharra dago Artze, Askarraga, Donamaria, Gaztelu eta Igurin herriek Ibargoiara osatzen zutela.

Gaur egun, ordea, denak Malerrekako Mankomunitatean daude eta, hortaz, guk gida honetan Malerreka aipatzean, mankomunitate osoa osatzen duten herriei erreferentzia egingen diegu, nahiz hizkerari dagokionez bereizketak egin behar direnean, adibidez, Basaburu Ttikia edota Bertizarana bereizi.

Malerreka izena nondik heldu da?

Malerrekaz ari garenez, hagitx interesgarria iruditu zaigu izen horri buruzko jatorria aipatzea, izan ere, Andres Iñigo euskaltzain iturendarrak jakinarazi digunaren arabera, *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* dio [mala](#) Zuberoan *errekaren jalkina* dela, alegia *ibaietako urek ibai hondoan edo ertzetan uzten duten lohi modukoa, materia organikoetan aberatsa dena*. Resurrección Maria Azkuek ere *Diccionario vasco-español-francés hiztegian* bildu zuen *mala zela uholde batek arrastaka eramandako lurra*. Andres Iñigok berak aipatzen du hori bera zioela Erratzuko Blas Fagoaga euskaltzain urgazle zenak, argitara eman ez bazuen ere, bere ikasleen artean urtero banatzen zuen hiztegitxoan. Iritzi horien arabera, *Malerreka* izenaren lehenbiziko osagaia *mala* izanen litzateke eta *erreka* bigarrena, elkarketan *Malerreka* egiten duena, hau da, *arrastaka eramandako lurra duen erreka*.

Horrekin batera, Andres Iñigok ohartarazten du alde batera uztekoa dela zenbaitek, herri etimologian oinarrituta, aipatu edota erabiltzen duten ustezko *Maldaerreka* aldaera, *malda* eta *errekaren* elkartzea delakoan, ezin baita arrazoitu ustezko *malda* > *mala* aldaera.

Akitzeko, bihotzez eskertu nahi dugu lan honetan modu batean edo bertzean parte hartu duzuen guzian laguntza: Jon Abril, Monika Agirre, Sagrario Aleman, Eneko Anduaga, Patri Arburua, Tere Arretxea, Miren Basurto, Nerea Bazterrika, Mikel Belasko, Izaskun Bertiz, Joxe Bertiz, Iñaki Camino, Antxon Erregerena, Anttonio Hernandorena, Miguel Hernandorena, Andres Iñigo, Patxi Iñigo, Marta Legazkue, Bittorio Lizarraga¹, Gloria Loperena, Pakita Mikelarena, Ainhoa Mitxeo, Martin Mitxeo, Antxone Otxandorena, Paskual Rekalde, Martin Subizar, Pakita Telletxea...

1 Bere tesiko hainbat adibide emateaz gain, gida hau gainbegiratu eta osatu du.

2. BATUA ETA EUSKALKIAK

2.1 Euskara batua eta tokiko estandarra²

Zer dakigu euskara batuaren inguruan? Noiz sortu zen? Zertarako balio (izan) du? Ekarpenik egin dio gure hizkuntzari? Euskara batua eta euskalkiak elkarren etsai dira? Horiek eta bertze aferak batzuk jorratuko ditugu atal honetan.

Tradizioz euskalkiak egun arte heldu zaizkigun hizkerak izan badira ere, XX. mendearen erdialdean, 1968an³ hain zuzen, euskara batua sortzeko prozesu gatazkatsua abiatu zen. Hasiera hartan borroka⁴ bizia izan zen, elkarren kontrakotzat jotzen baitziren, biek funtzio bera bete beharko balute bezala, eta, hortaz, batak bertzeari esparrua kenduko balio bezala. Nolabait errateko, “etsai” izatetik, elkarren osagarri izatera pasatu dira eta, erran daiteke egun bertze ikuspegi bat dugula, aski jende gutxik paratzen baitu zalantzan euskara batuaren beharra eta balioa. Era berean, euskalkiei eutsi behar zaiela diote gehienek, baina, nola egiten da hori?

Era sinple eta laburrean, gako nagusietako bat honakoa dela erran daiteke: komunikazio egoera kontuan izatea euskalkiak erabiltzean; izan ere, norekin solastatzen ari garen, non, zeri buruz, eta abar izan behar dugu kontuan modu aiposean aritzeko edota erregistro egokia erabiltzeko.

Euskara batuaren (edo euskararen) kontra egin nahi izan denean, artifiziala edota asmatua dela leporatu izan zaio, baina errealitatea da hizkuntza moderno guzietan dutela hizkuntza estandarra. Azken finean, elkarri ulertu ahal izateko, gizarte modernoek hizkuntza aldaera komun eta orokor bat behar dute. Bertze modu batez, erraten ahal dugu ingelesez, frantsesez, gaztelaniaz, italieraz... ere idazteko arau jakin batzuk daudela, aditzen forma osoa eta zuzena zein den markatzeko, nola ahoskatu behar den zehazteko, eta abarretarako. Eta horiekin batera bizi dira dialektoak eta bertzelako mintzoak ere.

Adibide bat ematearren, gaztelaniaz ez dira berdin solastatzen Madrilgo pertsona bat, Andaluziako bat edo Aragoiko bat, baina zeregin formaletarako, idazteko edota komunikabideetan albisteak emateko, adibidez, denek hizkera zaintzen dute, ez dituzte hitzak jaten, forma estandarrak baliatzen dituzte... Horixe bera gertatzen zaio euskarari ere. Lagunartean modu batez aritzen gara eta zeregin formaletan bertze modu batez. Gainera, ez da gauza bera ahoz aritzea edota idatziz. Lehenago aipatu dugun moduan, hor dago gure zalantza anitzen kokka, hori bereizi eta horretaz jabetu behar baitugu.

Zuazo euskaltzain urgazleak 1998an adierazi zuen euskara batuak hiru helburu bete dituela: euskara idatzizko zereginetan eta kultura gaietan erabili ahal izatea, alde guzietako euskaldunek elkarri ulertzea, eta itxura modernoa eta prestigioa ekartzea hizkuntzari. Halaber, euskaldun berrien fenomeno ere azpimarratzen du, zalantzarik gabe, euskaldun berriei esker euskara nabarmen indartu baita, azken batean euskara batua ezinbertzekoa izan da milaka helduk euskara ikasteko. Artikulu horretan, gainera, azpimarratzen du euskalkirik eta erregistrorik gabeko euskara hotza eta motza gertatzen zaigula anitzetan, eta erdaretarako bidea hartu ohi dugula gure hizkera biziagoa eta adierazgarriagoa izan dadin.

2 Euskaltzaindiak eta Ezkerraberri fundazioak 2018an antolatutako jardunaldietan oinarriturik, 2020an [Euskara batua eta tokian tokiko erabilera: korapiloak eta erronkak](#) argitaratu zuten. Gaian interesik izanez gero, irakurtzea gomendatzen dugu.

3 Iñaki Caminok adierazi digu Baionako Euskal Idazkaritzaren bilkurak 1964an izan zirela.

4 Borroka hori belaunaldien artekoa eta politikoa ere izan zen.

2. BATUA ETA EUSKALKIAK

Zuazok 1998an azaldu zuen moduan, euskararen munduan heldu den erronka euskalkia eta erregistroak bulkatzea da:

Euskara batuak egoki betetzen ditu esparru jasoetarako eginkizunak; gainerakoetan dago hutsunea (...). Iraultzaren lehen urratsa, berriz, euskalkiak eta erregistroak lantzea eta bultzatzea da. Euskalkien auzia ez da Gipuzkoan nabari, bertako hizkera eta batua oso antzekoak direlako. Gainerako herrialdeetan egin beharko da, ba, aurreneko urratsa, batez ere euskaldun kopuru haziko eta euskaldun izate horrek lotsarik eta konplexurik sortzen ez duen herrietan.

Orduan, Malerrekako pertsona batek bertako euskara erabiltzen ahal du idazteko? Jakina. *Tokiko estandarra* edo bertze modu batez errateko *Malerrekako estandarra* litzateke gure eskualdeko “euskara batua”. Anitzetan gertatzen zaigu solasean modu batez aritzen garela modu informalean, baina egoera formalagoetan, ahoz, eta bereziki idatziz, erdialdeko formetara (Gipuzkoa aldekoetara bereziki) jotzen dugula, uste dugulako gure formak okerragoak direla edo ez daudela onartuak.

Lan honen bidez argi pixka bat eman nahi dugu, jendeak jakin dezan, bertzeak bertze, bertako solasak eta egiturak osorik nola idatzi behar diren. Adibide gisara, *zu joatekin* erraten dugun bezalaxe, *zu joatearekin* idazten ahalko genuke edota *tortzen delik iñen dugu* erraten dugun moduan *etortzen delarik eginen dugu* ere idatz daitekeela argi utzi nahi dugu. Modu horretan, ahoz egiten duguna eta idatziz ekoizten duguna eskutik joanen lirake, hagitz ohikoa baita gure eskualdeko jendeak modu batean solastatzea eta bertze batean idaztea, haien euskarak idatzirako balioko ez balu bezala.

Azkenik, [*Baztango mintzoa erabiltzeko gida*](#) ageri dira Euskarabideak 2011n egindako ikerketa baten ondorioak eta horietako batzuk ekarri nahi izan ditugu lerrootara, zer pentsatua ematen baitute. Lan horrek agerian uzten du euskalkiak gazteengan balio eta prestigio handia duela, identitarioa delakoz, hizkeraren arabera bereizten baita bakoitza nongoa den. Hala ere, gehitzen du adinekoek baino gutxiago erabiltzen dutela euskalkia. Horrez gain, gero eta gehiago nahasten dituzte batua eta euskalkia, ez dituztelakoz irizpide garbiak. Aitzitik, adinekoek uste dute haien euskara bigarren mailakoa dela, baina, egia erran, haiek dira euskalkia gehien eta hobekien erabiltzen dutenak. Hori guzia ikusita, argi dago zerbait egin behar dela, eta hori da, hain zuzen, gure helburu nagusietako bat.

2.2 Euskaltzaindiak zer dio euskalkien inguruan?

1979an Euskaltzaindiak egindako adierazpena aurkeztuz hasi nahiko genuke atal hau, aski garbi azaltzen baita erakundearen iritzia: “Euskalkiak baino lehen, hor da euskara”. Izan ere, “Euskaltzaindiak uste du, eta hori ez da uste hutsa, zehazki froga daitekeen iritzia baizik, badela oraindik, lehen ere izan den bezalaxe, euskara bakar bat euskalkien ñabardurak estaltzen eta itxuraldatzen ez duena. Euskalkien eta tokian tokiko hizkeren arteko bereizkuntzak, egungo egunean ere, axaleko itxuraldatzeak dira batik bat, hizkuntzaren muin sakona bere iraunkor hartan uzten dutenak. Hizkuntzaren oinarri batu hori, eta oinarri horren egitura (euskalki guzien egitura komuna) dira beti gogoan eduki behar ditugunak, gure ahaleginak euskararen batera-biderako, eta ez berezirik daudenen sakabanatzeko, izan daitezen”.

2. BATUA ETA EUSKALKIAK

Horretarako, “euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak aztertu eta landu behar direla uste du Euskaltzaindiak, ortografia eta hizkuntzaren azpiegitura zainduz”.

Harrigarria da, adierazpen hori egin zenetik lau hamarkada baino gehiago pasatu eta gero, oraindik egunerokoan zenbat zalantza eta uste oker izaten dugun, anitzetan uste baita, erraterako, arauak behin eta berriz aldatzen direla, edota Euskaltzaindiak euskalkiak alde batera uzten dituela, baina, egia erran, hori ez da horrela.

Garai hartan, Euskaltzaindiak euskalkiak erabiltzeko nahitaez bete beharreko honako bi baldintzak ezarri zituen:

- Idatzian, ortografia bakarra onartuko da batuan nahiz euskalkietan; izan ere, **euskara hizkuntza bakarra baita**, ez hizkuntza anitz. Horregatik, Euskaltzaindiak ortografiaren batasunerako eskaini dituen erabaki eta proposamen guzi-guziak bete behar dira euskalkietan idaztean ere.
- Idatziz nahiz ahoz, hizkuntzaren azpiegituraren arabera (euskararen oinarri bakarraren arabera) jardun behar da beti. Euskararen muin horri dagozkio deklinabide mugagabea, *-a* organikoz akitutako hitzak, euskalki guzietan adostua dagoen aditz-jokoa, euskal hitz hurrenkera, eta abar.

1979an egindako “Euskara batua eta euskalkiak irakaskuntzan” izeneko adierazpenean, gainera, irakaskuntzan euskara batuarekin eta euskalkiekin nola jokatu azaltzen du:

Tokian tokiko hizkera dakiten haur eta nagusiei euskara batua irakastea, sarritan, ez dira oso kontuan hartu izan ohi batetik besterako bidea egiteko nahitaez eman behar diren urratsak, eta ondorioz, elkar osagarri eta bizigarri izan beharko luketenok benetako zubirik gabe geratu ohi dira, bion kaltetan gainera. Pedagogiazko orientabideak ematea, Euskaltzaindiari zuzenki ez badagokio ere, auzi honek euskararen sendotzean eta hedatzean duen eraginarengatik, biziki gomendatzen du tokian tokiko euskara zenbat eta urrunago gertatzen den euskara batutik, hainbat eta arreta handiagoz elkar osatze bidea zain eta lant dadin.

Azken helburu nagusi eta bakarra euskara biziartzea, sendotzea eta hedatzea delarik, inola ere **ezin pentsa daiteke tokian tokiko euskara eta euskara batua elkarren aurkako gerta litezkeenik, baizik eta bata bestearen nahitaezko osagarri eta aberasgarri direla zinez.**

Hau honela delarik ere, tokian tokiko euskarak dituen desberdintasun eta ñabardurak ugari direla gogoan edukirik, lehen aipaturiko adierazpenean zioena bera berresaten du Euskaltzaindiak, alegia, **tokian tokiko euskara eta euskalkia aintzakotzat hartzean eta lantzean, hizkuntzaren oinarri batuari leialtasuna gorde behar zaiola, euskalkiak indartzearen aitzakiaz joera zatikatzaile batetan gal ez gaitzen.**

Agerikoa da, beraz, Euskaltzaindia duela lau hamarkada euskalkiak bultzatzearen alde agertu zela. Horretarako, bertzeak bertze, proposatu zuen eskolak zubi lana egin behar zuela etxeko eta eskolako hizkeren artean, elkar osatzeko.

25 urte geroago, 1994an, euskararen ofizialtasuna Autonomia Erkidegoan nahiz Nafarroa Garaiko eremu batean lortzearekin batera, eta, euskalkien erabilera eguneratu eta sistematizatu beharrez, 137. arauan bilduta dagoen adierazpen hau egin zuen: “[Euskalkien erabileraz Irakaskuntzan, Komunikabideetan eta Administrazioan](#)”. Bertan, honako **irizpide orokor hauek** finkatu eta proposatu zituen **euskalkian idazten denerako**:

2. BATUA ETA EUSKALKIAK

1. Ahozkoan eta lagunarteko hizketan ohikoak diren laburtzapenak gaitzetsi zituen.
2. Tokian tokiko fonetismo bereziak gaitzetsi zituen.
3. Euskalkian bi forma edo gehiago erabiltzen direnean, batuarekin bat datorrena hobetsi zuen.
4. Batasunerako erabaki den deklinabidea derrigorrezkotzat jo zuen, baina bizkaierazko zenbait forma berezi ere ontzat eman.
5. Batasunerako erabaki den aditz jokia derrigorrezkotzat jo zuen, baina euskalkiko forma batutzat har daitezkeenak ere ontzat eman.
6. Euskara batuko eta euskalkietako sintaxi zuzentasuna bat bera dela aitortu zuen.
7. Morfologian, hitzen forma dialektal tradiziodunak ere (*bakotxa, barri, burruka, edur, elexa, parkatu...*) ontzat eman zituen.

Hortaz, anitzek uste izan dutenaren kontra, **Euskaltzaindiak aspaldi adierazi zuen herriko hizkerak eta euskalkiek bere tokia behar dutela eta ez direla baztertu behar**. Horrez gain, herriko hizkera eta eskolakoaren artean alde handia badago, zubi lana egiteko beharra aipatzen da, azken batean, biek elkar osatu behar dute, euskalkiak ere euskara batua bera aberastuko baitu. Era berean, ezin dugu atzendu euskalkiaren aldeko jarrerak ez duela batua gaitzetsi behar.

Urte horretan berean, 1994an, Pello Salaburuk Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarrean irakurri zuen [“Euskara batuaren egungo premiak”](#) izeneko txostenean, lerrootara ekarri nahi izan dugun hausnarketa interesgarri hau egin zuen:

Euskara batua formala eta euskara batua soziologikoa

Anitzetan gertatzen da jendeak euskara batua deitzen diola berez euskara batua ez denari. Batek baino gehiagok, testu bat euskara batuan jar dezan eskatzen badiogu, segur naiz *guti goiti-beheiti, gibelean, ialgi, abian jarri, etortzen balitz, jin, berba, barride* eta *xakur* bezalakoak aurkituko balitu eta den-denak ulertuko balitu ere, hau ez baita hain gauza ziurra, aldamenen jarriko lituzkeela *gutxi gorabehera, atzean, atera edo irten, martxan jarri, etorriko balitz, joan* (konturatu gabe *jin* hitzak kontrakoa esan nahi duela), *hitz, auzoko* eta *txakur*. Proba egitea baino ez da. [...]

Bada, *jin* eta *gibelean* hitz gizajoek *etorri* eta *atzean* hitz ponpoxoek adinako eskubidea dute batutzat hartzeko. Baina batasunaren alde gauden gehienok *etorri* eta *atzean* bakarrik idazten badugu, orduan batasun formala baino anitzez ere mugatuagoa den batasun soziologikoa egiten ari gara. Azken batean, hori hizkuntza guzietan gertatzen da, hiztunek aukerak egiten dituzte hautatzeko bidea dutenean, eta denborarekin aukera horietako baten bat nagusiturik geratzen da. Honekin esan nahi dudana da Euskaltzaindiak askotan uste dugun baino bide zabalagoak uzten dituela. Gero, erabiliaren erabiliaz, bidea estutu egiten da eta orduan jendeak pentsatzen du Euskaltzaindiak eman duela zinez inoiz ere eman ez duen gomendioren bat. [...]

Eta, zer esanzen dugu, *bihar sarturen naiz* edo *bihar sarturenko naiz* bezalakoek ez lukete sobera iraungo lapitz gorriaren azpian. Baina horretaz ez baitu ordea deusik esan Euskaltzaindiak: biek badute lekua euskara batu formalean, Euskaltzaindiak emandakoan, biak erabiltzen direnez euskaran. Euskara batu soziologikoak (hiztunek egiten dutena, ez Euskaltzaindiak) ordea, urratuak ditu aspaldi forma horiek. Filosofia berarekin, *aurten fite joan dira bestak* bezalako baten ordeaz aski agudo jarriko dugu *aurten laster joan dira jaiak*, ustez bada hau hura baino batuagoa dela.

2. BATUA ETA EUSKALKIAK

Ez ditzagun, hortaz, gauzak nahas: Euskaltzaindiak oso eredu zabala proposatu du, eta hori ezin du idazleak atzendu, nahiz gero hiztunek nahiago duten, eta hartarako ere eskubide osoa dute, eskainitako bidea murriztu. Jakina, euskaraz ikasten duenak ere ezinbestean bide murrizt honen informazioa baizik ez du jasotzen eta horrek ematen duen inpresioa da batasuna pobreziaeren gainean eraikitzen dugula. Alde horretarik datoz orduan erasoak batzuetan. Euskaltzaindiaren lan bakarra da, jakina, euskararen batasun formala bultzatzea eta eredu hori hiztunei eskaintzea.

Irakaskuntzari dagokionez, urteekin ikusi da toki guzietan ezin daitekeela berdin jokatu, hortaz, gure eskualdeari begiratzen badiogu, argi dago **Malerrekan herriko nahiz etxeko euskarak eta eskolakoak eskutik joan behar dutela. Eskolan ezin da jokatu bertan euskalkirik ez balego bezala.** Hortaz, **norberak, bere hizkuntzatik abiatuta, ahalik eta erregistro gehien lortzean datza, alor eta testuinguru guzietan modu egokian aritzeko.**

2.3 Nola indartu bertako euskara?⁵

Ez da hizkuntzalaria edo gaian aditua izan behar gure eskualdeko hizkera zaindu eta bulkatzeko, denon esku baitago hori. Arazoa izaten da ez dakigula nora jo kontsulta zehatzak egiteko edota zalantzak argitzeko. Horretarako, jarraian, zenbait aholku emanen ditugu, norberak jakin dezan zer egin daitekeen eta ikus dezan zer egin nahi duen eta zer ez.

Berez, aski litzateke norberaren herriko edo eskualdeko ezaugarri orokorrenak, normalean ahoz egiten dituztenak, idatziz ematen saiatzearekin edota, ahoz ere, egoera formaletan behinik behin, erabil daitezkeela jakin eta erabiltzearekin:

- Baztan-Bidasoan nagusi diren *bertze, ortzegun, ortzirale, erran...* ere euskara batuan onartuak daudela argi izan behar dugu eta, beraz, *beste, ostegun, ostiral* eta *esan* bezain onak direla eta bulkatu behar direla.
- Horrez gain, bertako⁶ hitzak edo lexikoa erabili: *amaitu* edo *bukatu* beharrean *akitu*, *atze* beharrean *gibel*, *apurtu* edo *puskatu* beharrean *hautsi*, *irten* beharrean *atera...* (borzgarren atalean eskualdeko solasak biltzen dituen hiztegi osatuagoa eman dugu).
- *Ongi, hobeki, ederki* eta *gaizki* erabili *ondo, hobeto, ederto* eta *txarto* beharrean.
- **Etorkizuneko formetan, -n kontsonantez akitzen diren aditzetan -go** beharrean **-en** erabili: *joanen, erranen, eginen, emanen, janen, eramanen...*
- **Ahalera egiteko -t(z)en ahal** egitura ere erabili, baiezko nahiz ezezko perpausetan: *egiten ahal dut / ez dut egiten ahal, ikusten ahal duzu / ez duzu ikusten ahal...*

5 Jarraian ageri diren ezaugarriak hurrengo ataletan garatu ditugu, hortaz, hau laburpen bat bertzerik ez da, oinarri-oinarritzko forma batzuk aukeratzekotan, zeinetara jo daitekeen jakiteko.

6 Herriaren arabera forma batzuk edo bertze batzuk erabiltzen dira eta horri erreparatu behar zaio, ez baita berdin mintzatzen, erraterako, Ezkurran edo Donamarian.

2. BATUA ETA EUSKALKIAK

- **Denbora eta modu perpausetan** (NOIZ?/NOLA?) **-(e)nean** formarekin batera, **-(e)larik** edota **-t(z)earekin** ere erabili: *joatekin iñen dugu*⁷ (joatearekin eginen dugu = joaten garelarik eginen dugu = joaten garenean eginen dugu), *zu kustekin poztuko da* (zu ikustearekin poztuko da = zu ikusten zaituelarik poztuko da = zu ikusten zaituenean poztuko da), *ni aurra nintzelik zen lurrin sua* (ni haurra nintzelarik zen lurrean sua = ni haurra nintzenean zen lurrean sua)...
- **Kausazko perpausetan** (ZERGATIK?) bi forma erabiltzen dira nagusiki:
 - **bait-**: *negua baitzen gu martxa, lekutu andiken... dena ezpela ta baitzagon* (negua baitzen, gu martxa, lekutu handik dena ezpela baitzegoen); *bein galdu gintun... guardik arraptu baitziuten* (behin galdu genituen... goardiek harrapatu baikintuzten); *bertzela aundiya baitzen... nola eam bar giñun bakarrik ura?* (bertzela handia baitzen... nola eraman behar genuen bakarrik hura?)...
 - **(e)lako**⁸: *bi ollasko ederrak bigali zatan bestetako zorra zutelakoz* (bi oilasko ederrak bidali zizkidan bestetarako zorra zutelakoz), *eztakit etzakilakoz edo... ez zul... ez zulokoz egin nai* (ez dakit ez zekielakoz edo... ez zuel... ez zuelakoz egin nahi), *lamiek engaintuta eramaten z(i)uztelakoz berekin* (laminek engainatuta eramaten zituztelakoz beraiekin)...
- Deklinabidean, **destinatiboan** (NORENTZAT) **-rentzat** erabili ordez, **-(r)endako**⁹ erabili, baliokideak baitira: *hiretako, niretako, harendako, haurrendako*...
- **Prolatiboan** (ZERTZAT?) **-tzat** erabili beharrean, **-tako** erabili: *bedetzi egunez izarrak kontatu eta zein neskakin itten baizun ere ametsa ga... bedetzigarren gabin, arekin, ura andregaitako* (bederatzi egunez izarrak kontatu eta zein neskarekin egiten baitzuen amets, bederatzigarren gauean, harekin, hura andregaitako), *zaukaten arrun gaixtotako (zeukaten arrunt gaiztotako)...*

Gero eta sentsibilizazio handiagoa dago euskalkiak bulkatzeko eta ez nahasteko ideiarekin eta, bide horretan laguntzeko, hainbat dira egun eskura ditugun eredu onak, bertzeak bertze, [Ttipi-ttapa aldizkaria](#) eta [Xorroxin irratia](#). Horietan guzietan bertako euskara estandarren aldeko apustua egin da eta azpimarratu beharra dago aski lan txukuna egiten dutela. Hortaz, eredu ezin hobekak dira, adibidez, eskoletan bertako euskalkia lantzeko, edota interesa duenak ikasteko.

7 Perpaus motak osatzeko baliatu ditugun esaldi batzuk letra etzanez eman ditugu, bertan bildutako transkripzioak direlako; parentesi artean, ordea, letra arruntez esaldi horiek euskara batuan idatzi ditugu.

8 Euskaltzaindiak [EGLU I](#) 188. orrialdean azaltzen du desberdin jokatzen dutela Iparraldeko euskalkiek eta Hegoaldekoek. Izan ere, Hegoaldean, **-(e)lako** kausazko perpausa ez ezik, izenlagun ere izan daiteke, izen baten osagarri, alegia:

a. Gezurra esan dizutelako haserretu zara (kausazkoa).

b. Gezurra esan dizutelako kontu horrekin asper-asper eginda naukazu (perpaus osagarria, *kontu* izenari atxikia).

Ekialdean, berriz, bi erabilera horiek formaz ere bereizten dira batzuetan, **-(e)lako(t)z** erabiltzen baita perpaus kausalak osatzeko eta **-(e)lako**, aldiz, izenaren osagarriak edo izenlagunak moldatzeko.

9 [Euskaltzaindiaren webgunean](#) azaltzen den moduan, NORENTZAT eta NORENTZAT kasuak baliokideak dira, eta bi formak zuzenak dira: *zeinentzat* = *zeinendako*, *honentzat* = *honendako*, *zuretzat* = *zuretako*, *Kattalinentzat* = *Kattalinendako*...

2. BATUA ETA EUSKALKIAK

Komunikabideez gain, eskolak berak eta administrazioak ere gure eskualdeko mintzoak aintzat hartzea hagitz aberasgarria litzateke. Ikus ditzagun, bada, aholku eta ideia zenbait esparruz esparru:

2.3.1 Eskola

Eskolak ekarpen handia egiten ahal du euskalkia indartzeari dagokionez; izan ere, nahikoa litzateke ikasleei haien etxeko edota herriko hizkera baloratzeko eta indartzeko zer eta nola egin behar duten irakastearekin. Hemen aholku eta baliabide batzuk bertzerik ez ditugu agertuko, baina interesik edukiz gero, horietako batzuk eskura paratu ditugu, gaian gehiago sakondu nahi duenak klik batera eduki ditzan.

Horietako lan bat Julian Maia Larretxeak eta Kepa Larrea Muxikak argitaratutako [Euskara batua eta euskalkiak Haur eta Lehen Hezkuntzan](#) liburua da. Haiek diote ikastetxe baten hizkuntza politika diseinatzeko eta ezartzeko orduan, gutxienez bi faktore hauek kontuan hartu behar direla: batetik, euskararen ezagutza eta erabilera maila ingurune hurbilean, eta, bertzetik, euskararen aldaera (zein euskalki edo azpieuskalki erabiltzen den, zer ezaugarri dituen inguruko euskarak...).

Horretarako, garrantzitsua da ikustea inguruan zenbat jendek egiten duen euskaraz, horren arabera, hizkuntza ikasteko eta lantzeko bide desberdinak planteatuko baitira. Helburuak ere bertzelakoak izanen dira euskarak indarra duen tokietan edota euskara eskolan bertzerik egiten ez dutenetan.

Horrez gain, proposatzen dute kontuan hartu behar dela zer hizkuntza eredu erabiltzen den, eguneroko bizitzan euskara erabiltzen den edo ez, eta hala izatekotan, nolako euskara erabiltzen den eskolaz kanpo. Hor sartuko lirateke euskalkiaren ezaugarriak; izan ere, **inguruan mintzo edo azpieuskalki jakin bat erabiltzen bada**, faktore hori **aintzat hartu behar da, eskolak inguruko errealitatearekin lotua egon behar baitu**. Eta **hori lortzeko jakin beharko dugu bertako euskarak zer ezaugarri dituen**. Hortaz, Julian Maia Larretxeak eta Kepa Larrea Muxikak argi uzten dute eskolarako **euskara batuak lotura handiagoa behar duela inguruko ezaugarriekin**, eta **lasai aski erabiltzen ahal direla** lekuan lekuko hainbat ezaugarri, **Euskal Herri guziari begiratuta hedadura ttikikoak izan arren, eskualde jakin batean zuzenak, ezagunak eta adierazgarriak direlako**.

Era berean, Pello Salaburuk errandakoaren ildo beretik, azpimarratzen dute irakaskuntzan euskara batu murriz bat bertzerik ez bada onartzen, euskalkia duen eskualdeko zenbait ezaugarri ikasgelako eredutik kanpo geldituko liratekeela, eta horrek sorraraz dezakeela etxean edo herrian ikasitako mintzoaz lotsarazteko arrisku handia. Horregatik, **egokiagoa da eskolan eredu batua modu zabalean ulertzea eta tokian tokiko hizkuntza ezaugarriak erabiltzea eta bulkatzea**.

Toki bateko nahiz bertzeko mintzoak konparatzean, normalean ezberdintasun handienak lexikoan izaten dira; hori dela eta, hizkera estandarra aberasteko euskalkiko hitzak aukeratu behar ditugunean, aitzinago azalduko dugun moduan, solas jakin hori onartua dagoen edota euskaraz nola idatzi behar den jakiteko, [Euskaltzaindiaren Hiztegi](#)ra jo behar dugu.

2. BATUA ETA EUSKALKIAK

2.3.2 Administrazioa

Atal honen hasieran aipatutako ezaugarriak kontuan hartzea nahikoa litzateke Administrazioak ere bere ekarpena egiteko gure eskualdeko mintzoei. Izan ere, toki bakoitzeko ezaugarri orokorrenak hartu eta horiek erabiltzea ez da zaila.

Dena dela, kontuan hartu beharko genuke nor izanen den hartzailea, ez baita berdin idatziko Zubietako udalak zubietarrei idaztean edota Malerrekako Mankomunitatetik eskualde guziari zuzentzean. Zubietaren kasuan, erraterako, bertako formak baliatu beharko lirateke (*esan, asko...*). Bigarren kasuan, ordea, erabakiak hartu behar dira eta irizpideak ezarri. Erraterako, hiztun kopuruari begiratuz gero, gehiengoak egiten dituen formak erabiltzea erabaki daiteke, nahiz jakin Malerrekako Mankomunitatea osatzen duten herri guzietako forma ez dela hori.

2.3.3 Komunikabideak

Orain arte azaldu dugunaren ildo beretik, Baztan-Bidasoko komunikabide garrantzitsuenak bertako hizkera estandarraren eredu ezin hobea dira eta haiengandik anitz ikas daiteke.

3. ZALANTZA OHIKOENAK

Euskaraz idaztean, bereziki euskalkian idatzi nahi dugularik, zalantza ugari izaten ditugu, ez baitakigu solas edo forma jakin batzuk egokiak diren, batuan onartuak dauden, nola idatzi behar diren... Gainera, ez dugu jakiten zalantzen aitzinean nora jo edo nola argitu.

Atal honetan bi alderdi horiek jorratu nahi izan ditugu, hortaz, lehenik, izaten ditugun zalantza eta huts errepikatuenak ikusiko ditugu, eta, horren ondotik, zalantzak ditugularik nora jo daitekeen azalduko dugu.

3.1 Zalantza eta huts errepikatuenak

Arestian erran dugun moduan, jarraian, anitzetan izaten ditugun hainbat zalantza zerrendatu ditugu eta saiatu gara arrunt modu errazean azaltzen zer den egokia eta zer ez, zer erabiltzen den toki jakin bakoitzean, eta abar.

Hasi baino lehen, garbi izan behar dugu *Euskaltzaindiaren Hiztegia*n ageri diren hitzak araututa daudela eta, beraz, euskara baturako onartuak. Hori dela eta, zalantzak izanez gero, nahikoa dugu hara jotzearekin, solas jakin bat bertan letra beltzez agertuz gero, euskara baturako onartua dagoela jakinen baitugu.

Ikus ditzagun gure eskualdean anitzetan izaten ditugun zalantza eta huts errepikatuenak:

***¹²Abudo edo agudo?**

*Euskaltzaindiaren Hiztegia*n ikusten ahal den moduan, *[abudo](#) erraten dugu, baina ezin da horrela idatzi, forma egokia [agudo](#) delakoz.

Anitz edo aunitz?

Euskaltzaindiak garai batean [anitz](#) forma hobesten zuen, baina [aunitz](#) ez zuen baztertu. Hala ere, jakin behar dugu zeregin formaletan *anitz* erabiltzea egokiagoa dela.

Arestian edo *aixtin?

*[Aixtin](#) erraten dugun arren, forma osoa eta zuzena [arestian](#) dela jakin behar dugu. Hortaz, ahoz **aixtin* erabiliko dugu egoera informalean, baina egoera zainduetan, aldiz, *arestian*.

Solas horri dagokionez, anitzetan gaizki erabiltzen da, ez baita *lehen* hitzaren sinonimoa, *duela gutxi* erran nahi duelako.

12 * ikurra duten solasak ez dira zuzenak.

3. ZALANTZA OHIKOENAK

Arras, *arront, arrunt, hagitz, oso...?

Adberbio horiekin ere zalantza anitz izaten ditugu. [Arras](#) normalean Baztanen erabiltzen da. Gure eskualdean, berriz, *[arront](#)¹³ erraten dugu, baina jakin behar dugu hori ez dela forma zuzena eta, horrela erraten dugun arren, [arrunt](#) idatzi behar dela. Horrez gain, Zubietatik mendebaldera¹⁴ [arrunt](#) adberbioa nagusi den arren, *oso* ere erabiltzen da.

[Arrunt](#) formaren ondoan, Bortzirietan nagusiki erabiltzen den [hagitz](#) ere aditzen ahal da Malerrekan, nahiz ahoz *[haitz](#)¹⁵, *[haiz](#)... erraten den. Hortaz, egoera formaletan, ahoz zein idatziz, [arrunt](#) eta [hagitz](#) ere erabiltzen ahal dira.

Hala ere, zehaztapen ttiki bat egin nahi dugu, izan ere, denak ez dira sinonimo osoak, [hagitz](#) solasak erabilera zabalagoa baitu. Hau da, [hagitz aunitz](#) aditzean, [aunitz-aunitz](#) edo *pila-pila bat* erran nahi du, baina *[arrunt aunitz](#) ezin dugu sinonimo moduan erabili, egitura hori ez delakoz inoiz existitu.

Asko edo anitz?

Gure eskualdean dago bi solas horien muga, Zubieta eta Saldiaстик mendebaldera [asko](#) erabiltzen baita nagusiki eta gainerako herrietan, ordea, [anitz](#). Hori dela eta, non, nola eta norekin ari garen begiratu beharko genuke bata edo bertzea aukeratzeko orduan. Hau da, Ezkurran, Eratsunen, Saldiasen edo Zubietako idatzi batean [anitz](#) edo [aunitz](#) arraroa den bezala, Beintza-Labaiendik eta Aurtiztik ekialdera dauden herrietan gauza bera gertatu beharko litzateke [asko](#) hitzaren kasuan ere.

[Euskal Herri Hizkeren Atlas](#)ean (EHHA) begiratzen badugu, [asko](#) eta [anitz](#) solasen muga aski garbi ikusten ahal da.

Atze, gibel edo *bigel?

Beintza-Labaien eta Iturendik ekialdera [gibel](#) da [atze](#) errateko forma nagusia. Zenbait tokitan *[bigel](#) ere erraten da, baina ezin da horrela idatzi. Kasu honetan ere, muga Zubietan eta Beintza-Labaienen dago, hortik mendebaldera [atze](#) bertzerik ez baita erabiltzen.

Horrekin lotuta, anitzek izaten duten zalantza izaten da *[bielkaldin](#) nola idatzi behar den, horrela erraten baitute, baina ez dakite nola idatzi behar den. [3. arauak](#) dio bi modutan idazten ahal dela: [gibelalde](#) dena elkarrekin edo [gibeleko alde](#) bi hitzetan.

-
- 13 [Euskaltzaindiaren Hiztegi](#)an garbi adierazten den moduan, ahoz horrela erran arren, idatziz forma hori ez da egokia eta [arrunt](#) erabili behar da.
 - 14 Bittorio Lizarragak aipatzen du Goizuetaraino [arrunt](#) dela nagusi eta Leitzan ere ezaguna dela, nahiz bertan [oso](#) erabiltzen den gehien.
 - 15 Atal honetako adibideetan *h* paratu dugun arren, garbi utzi nahi dugu gure eskualdean ahozkoan ez dela *h* hori ahoskatzen. Transkribapenen kasuan, berriz, ahoskatu bezala eman ditugu solasak; hori dela eta, transkribapenetatik jasotako esaldi nahiz pasarteetan ez da *h* ageri.

3. ZALANTZA OHIKOENAK

Aurtiz edo Aurtitz¹⁶?

Andres Iñigok jakinarazi digunaren arabera, 1986an Euskararen Legea¹⁷ onartu ondotik, 16/1989 Foru Dekretuan onartu ziren eremu euskalduneko toponimia nagusiaren izendapenak. Bertan, Euskaltzaindiak 1988an egindako txostenean agertu bezala, Malerreka *Aurtitz*, **Oitz*, **Urrotz*... formak onartu ziren hasieran.

Dena den, horren ondotik, Euskaltzaindiak Euskal Herriko Udalen Izendegia berriz aztertu eta herrialdeka arau gisa argitara eman zituenean, udalen izendapen batzuk¹⁸ zuzendu zituen, bertzeak bertze *Oiz* eta *Urroz*. Hortaz, *Oiz* eta *Urroz* dira forma zuzenak, eta ez **Oitz* eta **Urrotz*.

Ongi erreparatu gero, ikusiko dugu Baztan-Bidasoko biztanleek *-tz* eta *-z* ongi bereizten dituztela eta bertako herriei erreferentzia egitean, ez dutela *-tz* letraz ahoskatzen, *-z* letraz baizik: *Almandoz*, *Aniz*, *Arraioz*, *Lekaroz*, *Oiz*, *Oronoz*, *Urroz*... Gure eskualdetik kanpoko herriei, berriz, *-tz* gehitzen diete: *Alkotz*, *Arraitz*, *Imotz*, *Iraizotz*...

Hala ere, aipatu beharra dago udalak ez diren bertzelako kontzeju, auzo, eta abarretarako ez zela deus ere erabaki, etorkizunean aztertzeko gelditu baitziren. Hortaz, momentuz onartua ez badago ere, Andres Iñigo euskaltzainak berak dioten moduan, *Urrozek* eta *Oizek* bezala, *Aurtizek* ere *-z* beharko luke eraman, eta ez *-tz*. Izan ere, berriki aipatu dugunaren ildo beretik, tesia egin zuenean, bildu zituen lekukotasun idatzi guziak *Aurtiz* ziren, *-tz* gabe. Ahozko lekukotasunetan ere *Aurtiz* nahiz *Aurtiza* bildu zituen, hondarrean *-z* duten aldaerak, ez **Aurtitz* edo **Aurtitza*. Hori dela eta, toponimo horrek zuzendu gabe jarraitzen du eta forma zuzena *Aurtitz* dela ageri da, baina Andres Iñigo euskaltzain iturendarrak *Aurtiz* formaren aldeko apustua egiten du argi eta garbi.

****Benpin* edo *behinik behin*?**

Anitzetan ahoz **benpin* erraten dugun hori ez dugu jakiten batuan nola eman eta *behintzat* erabiltzen dugu, jakin gabe **benpin* horren forma osoa *behinik behin* dela.

***Beste* edo *bertze*?**

Bi aldaera horien muga, bertze batzuetan ikusi dugun moduan, Zubieta eta Saldia mendebaldera gertatzen da. Beintza-Labaien¹⁹ eta Aurtiz bitarteko herrietan *bertze* erabiltzen da eta hortik mendebaldera, aldiz, *beste*. Beraz, bi formak onartuak daude eta biak erabiltzen ahal dira.

****Bidasoara* edo *Bidasora*?**

[166. araua](#) laburbilduz, *Bidaso* da solasa, ez delakoz *-a* itsatsirik. Hortaz, *Bidasoa*, *Bidasoan* eta *Bidasoarekin* formetan *-a* du, baina gainerakoetan *Bidasora*, *Bidasotik*, *Bidasoko*... idatzi beharko dugu, *-a* gabe.

16 Ez diogu **paratu* oraindik ez delakoz hori erabaki, baina gure proposamena da *Aurtiz* erabiltzea, ez *Aurtitz*.

17 18/1986 Foru Legean onartu zen.

18 Aldaketa horiek guziak Euskaltzaindiaren [155. arauan](#) ikus daitezke.

19 *Bertze* nagusi izan arren, *beste* ere aditzen ahal da.

3. ZALANTZA OHIKOENAK

***Donamari edo Donamaria?**

Bidaso solasak ez bezala, Donamariak *-a* itsatsia du, hortaz, forma zuzena [Donamaria](#), *Donamariara*, *Donamariako*, *Donamariatik...* da, ez **Donamari*, **Donamarira*, **Donamariko*, **Donamaritik...*

***Dutelakoz edo dudalakoz?**

Ahoz nonahi adituko dugu *nik dudalakoz* errateko **nik dutelakoz*. Kanean, modu informalean horiek erabiltzen dira, baina azken hori ez da forma estandarra eta ezin da egoera formaletan erabili, *dutelako(z)* erratean hirugarren pertsona pluralaz ari garelakoz (*haiek egin dutelakoz*, adibidez), ez lehen pertsona singularraz (*nik egin dudalakoz*, ez **nik egin dutelakoz*).

Edo edota ala?

[Euskara Batuaren Eskuliburuan](#) ikus daitekeen moduan, [edo eta ala](#) juntagailu hautakariak dira. *Ala* markatuagoa da, eta galderetan erabiltzen da, bata ala bertzea aukeratu behar denean. *Edo* juntagailuak, berriz, erabilera zabalagoa du eta beti da zilegi (baita *alaren* esparruan ere). Gure eskualdean ez da *ala* erabiltzen, beraz, *edo* da juntagailu hautakari bakarra.

Esan edo erran?

Bi solas horien isoglosa edo muga ere gure eskualdean gertatzen da, *asko* eta *anitz* hitzen eremu berean hain zuzen. Hortaz, Zubieta²⁰ eta Saldiaстик mendebaldera *esan* adituko dugu eta ekialderako herrietan, ordea, *erran*. Aipatu beharra dago Beintza-Labaien bi formak erabiltzen direla, nahiz *erran* izan hedatuena. Bi formak ageri dira [Euskaltzaindiaren Hiztegian](#) eta, beraz, biak zuzenak dira.

Eseri edo jarri?

Gure eskualdean *jarri* erabiltzen da *eseri* errateko, ez *paratu* errateko. [Euskaltzaindiaren Hiztegian](#) ikus daiteke hori onartua dagoela solas horren [borzgarren adieran](#). Hortaz, euskara batuan *jarri* eta *paratu* sinonimoak izan arren, gure eskualdean ez dute gauza bera erran nahi, lehenbizikoak *eseri* erran nahi baitu eta, bigarrenak, berriz, *jarri*, *jantzi...*

Eskribitu, entenditu eta leitu erabiltzen ahal dira?

Baztan-Bidasoko adinekoei adituz gero, ohartuko gara *eskribitu*, *entenditu* eta *leitu* direla haiek erabiltzen dituzten aditzak, baina idaztean edo egoera formaletan uste dugu horiek ez direla zuzenak, ez daudela onartuak.

20 Zubietan *san* erraten dute, baina idatziz forma osoa eman behar denez, *esan* idatzi behar da.

3. ZALANTZA OHIKOENAK

*Euskaltzaindiaren Hiztegia*n begiratzan badugu, aldiz, ikusiko dugu forma horiek ere onartuak daudela. Hortaz, *idatzi* solasarekin batera, [eskribitu](#) ere paratzen ahal da. Era berean, gauza bera gertatzen zaie *ulertu* eta [entenditu](#) sinonimoei edota *irakurri* eta [leitu](#) aditzei ere.

Etorkizunean *erranen, emanen, janen...* edo **errango, emango, jango...*?

Baztan-Bidasoan *-n* kontsonantez akitzen diren aditzetan (*jan, joan, edan, eraman...*) etorkizuneko formak *-en* gehituta egiten dira, ez *-go* erantsita: *erranen, janen, joanen, emanen...*

Gure eskualdean gero eta zabalduago daude **errango, jango, joango...* modukoak, baina garbi izan behar dugu *erran* dioen pertsona batek etorkizuna egiteko ez duela *-go* erabiltzen, baizik eta *-en*²¹. Hortaz, **errango* beti gaizki egonen da. Horrekin lotuta, *joango, emango...* ere ez dira Baztan-Bidasoko formak, horiek erdialdetik mendebaldera erabiltzen baitira.

Hala ere, adinekoren bati *errango* edota *joango* adituz gero, erraterako, *erran gogo (erran nahi)* edota *joan gogo (joan nahi)* adierazi nahi du, ez *erranen* edota *joanen*.

Malerreka inguruan, gainera, *erranen, janen, joanen* edo *emanen*, adibidez, bi modutan erraten dira: batetik, eskualde gehienean *errain* edo *sanen* (erranen), *yain* edo *yanen* (janen), *yoain* edo *yoanen* (joanen), *(e)main* edo *manen* (emanen)... adituko ditugu, eta, bertzetik, Basaburu Ttiki aldean *yaan* (janen), *zaan* (izanen), *emaan* (emanen), *oon* (egonen)... Halere, argi utzi nahi dugu ezin direla horrela idatzi, aipatutako horiek ahozko formak direlako.

Hil aditzaren kasuan ere, galtzen ari den forma izan arren, etorkizuna egiteko *hilen* erraten da, nahiz gazteen artean *hilko* nagusitzen ari den.

Gutti edo gutxi?

Gure eskualdeko herri gehienetan²² *gutti* erraten den arren, *Euskaltzaindiaren Hiztegia*n *gutxi* eta [guti](#) formak ageri dira. Hortaz, idaztean bi horiek dira baliatu behar ditugun formak.

Hobeto edo hobeki?

Bi formak zuzenak dira, baina gure eskualdeko forma [hobeki](#) da, ez [hobeto](#), hori Euskal Herriko erdialdetik mendebaldera erabiltzen baita. Bi aldaera horien muga garbi ikus daiteke [EHHA](#)n.

Horrekin lotuta, gure herrietan [hobekiago](#) eta [hobekixeago](#) aditzen dira eta, anitzek uste dutenaren kontra, biak onartuta daude, *Euskaltzaindiaren Hiztegia*n ikus dezakegun moduan.

21 Bittorio Lizarragak azaldu digu Leitzaraino ere halaxe zela oraintsu arte. Areson eta Aranon, berriz, *-go* nagusitzen da. Larraunen eta Basaburuan ere *-go* indarrez sartu da. Horrez gain, Goizuetan *-en* erabiliena izanagatik, lehenagotik ageri da *-go*. *Erran.eus* webguneko *Nola erran* atalean ere aski argi azaltzen da etorkizuneko adizkiak nola egiten diren gure eskualdean.

22 Beintza-Labaien eta Zubietatik mendebaldera *gutxi* da nagusi.

3. ZALANTZA OHIKOENAK

Hola edo horrela?

Anitzek kontrakoa usteko duten arren, bi adberbioak dira zuzenak eta [hola](#) nahiz [horrela](#) onartuak daude *Euskaltzaindiaren Hiztegian*.

Inork edo *inorek?

Baztan-Bidasoan **inorek* adituko dugun arren, argi izan behar dugu forma egokia *inork* dela, ez **inorek*.

Joan behar dut edo joan behar naiz?

Euskaltzaindiaren [113. arauan](#) ikus daitekeen moduan, *behar izan* aditza aditz laguntzaile iragankor gisa jokutzen da, hau da, beti NORK-NORK edo NOR-NORI-NORK aditz batekin jokatu behar da, nahiz objekturik ez izan (*joan behar dut, etorri behar duzu...*). Hala ere, zenbait euskalkitan, Iparraldekoetan batez ere, *behar izan* aditzak *izan* laguntzailea har dezake aditz iragangaitzekin, hau da, NOR aditzak ere erabiltzen ahal dira. Hortaz, gure eskualdean erabiltzen diren *joan behar naiz, etorri behar zara...* ez dira gaitzesten.

Andres Iñigok azaldu digunaren arabera, garai batean *joan behar dut, etorri behar dute...* bertzerik ez zen erraten eta aditzen.

Niri edo *neri?

Karrikan *neri* adituko dugun arren, egoera formaletan garbi izan behar dugu *ni* dela izenordaina eta ez **ne*, eta, beraz, **neri, *nerekin, *neretako...* beharrean *niri, nirekin, niretako...* idatzi behar dugula.

NONGO nola deklinatu behar da kontsonantez akitzen diren herriekin (Iturengo edo Itureneko, Saldiasko edo Saldiaseko)?

Kontsonantez akitzen diren herrien izenekin anitzetan zalantza izaten dugu, ez baitakigu zein forma den zuzena edo hobea. Arauak ez du ez hobespenik ez lehentasunik adierazten bataren edo bertzearen alde. Erabilerari erreparatuz, hala ere, badirudi *-e-* epentetikorik gabeko aldaeraren aldeko joera zabaltzen ari dela: *Beintza-Labaiengo, Eratsungo, Iturengo, Oizko, Saldiasko, Urrozko...*

Nork edo *norek?

Baztan-Bidasoan **norek* adituko dugun arren, jakin behar dugu forma egokia *nork* dela.

3. ZALANTZA OHIKOENAK

NORI nola deklinatzen da kontsonantez akitzen diren izen bereziak?

Gure eskualdean, normalean kontsonantez akitzen diren izen bereziak gaizki deklinatzen ditugu NORI kasuan, **Ikerreri*, **Dabideri*, **Isabeleri*, **Olatzeri*... erraten baitugu, *Ikerri*, *Dabidi*, *Isabeli*, *Olatzi*... beharrean. Berez, izen berezi guziak mugagabeak dira eta, ondorioz, NORI kasuaren *-i* bertzerik ez dute hartzen, ez direlako ez singularra, ezta plurala ere. Hortaz, *Ekain + i = Ekaini* behar du, ez **Ekaineri*, horren gibelean **Ekaine* izena egonen litzatekeelako.

Oiz edo **Oitz*?

Lehen erran dugun moduan, Euskaltzaindiak ebatzi zuen Malerrekako herrietan ere, Baztango eta Bertizaranako herrietan bezala, *-z* letraz akitzen diren herrien izenek *-z* behar dutela, eta ez *-tz*, Euskal Herriko bertze toki anitzetan bezala. Beraz, ez da **Oitz* idatzi behar, baizik eta [Oiz](#).

Era berean, berdin jokatu behar da Baztan-Bidasoko gainerako herri hauen kasuan ere: *Aniz*, *Almandoz*, *Arraioz*, *Bertiz*, *Lekaroz*, *Ornoz*, *Urroz*... Izen horiek guziak onartutakoak eta ofizialak dira.

Ondo edo *ongi*?

Harrigarria bada ere, anitzetan egoera formaletan edo kanpokoekin solastatzerakoan, bertako hiztunek *ongi* erabili beharrean, *ondo* erabiltzen dute, egokiagoa balitz bezala. Bi formak dira egokiak, baina gure eskualdeko forma [ongi](#) da, ez [ondo](#).

Ostirala, **ortzirala*, *ortziralea*?

Arrunt zabaldua dago *ostirala* errateko **ortzirala* hitza, baina ez da zuzena, *Euskaltzaindiaren Hiztegian* ikus daitekeen moduan, berez hitza [ortzirale](#) delako. Hortaz, egutegi zein agendetan *ortziralea* idatzi beharko genuke, ez **ortzirala*.

Bertze aldaera batzuekin ikusi dugun moduan, *ostiral* eta *ortzirale* solasen muga gure eskualdean dago eta Zubieta nahiz Saldiaistik mendebaldera *ostiral* da nagusi; Beintza-Labaiendik eta Iturendik ekialdera, aldiz, *ortzirale* adituko dugu. Gauza bera gertatzen da *ortzegun* eta *ostegun* aldaerekin ere, [EHHA](#)n argi ikus daitekeen moduan.

Paratu edo **patu*?

Baztan-Bidaso guzian²³ anitz erabiltzen dugun aditza da *paratu*. Ahoz **patu* ahoskatzen badugu ere, forma osoa *paratu* dela jakin behar dugu eta hori erabili egoera formaletan, bereziki idatziz.

23 Bittorio Lizarrak zehaztu digu *paratu* Goizuetaraino nagusi dela.

3. ZALANTZA OHIKOENAK

Solas errateko jolas ere erabiltzen ahal da?

Basaburu Ttikian *solas* beharrean [jolas](#)²⁴ erraten da. Forma hori *Euskaltzaindiaren Hiztegia*n bilduta dago, eta, beraz, onartua, bigarren adieran ikus daitekeen moduan.

Solastatu edo *solastu?

Gero eta zabalduago daude **solastu du* gisako forma okerrak. *Euskaltzaindiaren Hiztegia*n ikus dezakegun gisan, **solastu* ez da egokia, eta horren tokian, idaztean [solastatu](#) paratu beharko genuke, hori baita forma osoa. Gainera, bertan “da ad.” zehazten du, eta horrek erran nahi du NOR motako aditzekin erabili behar dela eta, beraz, ez duela objekturik hartzen. Beraz, *solastatu gara, solastatzen ziren, solastatuko naiz...* dira aditz zuzenak, ez **solastatu dugu, *solastatu zuten, *solastatu nuen...*

-(t)ikan erabiltzen ahal da?

Gure eskualdean anitz erabiltzen dira *-tikan* eta *-(r)ikan*²⁵ atzizkiak (*eskolatikan, gogorikan...*), baina Euskaltzaindiak argi adierazi du [-tikan](#) ez dela forma estandarra. Hortaz, ahoz testuinguru informaletan erabili daiteke, baina ez egoera formaletan, batez ere idazterakoan.

Ttiki edo txiki?

Gutti solasaren kasuan ez bezala, *Euskaltzaindiaren Hiztegi*ko sarreretan *txiki* eta [ttipi](#) ikus ditzakegu, baina adibideetan bilatuz gero, ikusiko dugu *ttiki* ere ageri dela. Hortaz, *ttiki* idatzian ere erabili dezakegu.

Bi aldaera horien mugari dagokionez, Beintza-Labaiendik eta Zubietatik mendebaldera, *txiki* erabiltzen da, gainerako herrietan, berriz, *ttiki*.

Urroz edo *Urrotz?

Aipatu berri dugunaren ildo berari jarraituz, Malerreka herrietan ere, Baztanen eta Bertizaranan bezala, -z kontsonantez akitzen diren herrien izenek -z behar dute, eta ez -tz, Euskal Herriko bertze toki anitzetan bezala. Beraz, ez da **Urrotz* idatzi behar, baizik eta [Urroz](#).

Era berean, berdin jokatu behar da Baztan-Bidasoko gainerako herri hauen kasuan ere: *Aniz, Almandoz, Arraioz, Bertiz, Lekaroz, Oiz, Oronoz...*

24 Bittorio Lizarragak azaldu dugunaren arabera, Goizuetan ez bertzetan, Leitzarainokoan hala da, nahiz Leitzaan gero eta gutxiago erabiltzen den.

25 *-tikan* eta *-(r)ikan* atzizkiekin batera, *-tiken* eta *-(r)iken* ere aditzen ahal da gure eskualdean.

3.2 Zer egin zalantzaren bat dugularik?

Gida osoan zehar behin eta berriz egin diogu erreferentzia Euskaltzaindiaren webguneari. Bertan hagitz erabilgarri diren hainbat atal daude eta zalantzen aitzinean horiek nola kontsultatu azalduko dugu jarraian:

[Euskaltzaindiaren Hiztegia](#) ezinbertzeko tresna dela uste dugu, bertan hitzak nola idatzi kontsulta baitezakegu. Aski da ezkerreko aldean hitza idaztea eta *Bilatu* botoia sakatzea jakiteko solas jakin bat euskara batuan onartua dagoen edo nola idatzi behar den. Izan ere, anitzetan uste izaten dugu forma jakin bat ez dela zuzena, edota bertze bat jatorragoa dela, baina uste horiek ez dira beti zuzenak izaten. Honatx errandakoa erakusten duten pare bat adibide:

***Sukaldatu edo kozinatu?**

Izenburuko izartxoak ikusita, badakigu hitz hori ez dela zuzena, baina zalantzarik izanez gero, aski dugu *Euskaltzaindiaren Hiztegia* [sukaldatu](#) bilatzearekin, ikusteko forma hori ez dagoela onartua.



[Kozinatu](#) bilatzen badugu, aldiz, ikusiko dugu onartua dagoela. Anitzek pentsatuko dute erdal hitza dela, baina adinekoei erreparatzen badiegu, ohartuko gara *kozinatu* erabiltzen dutela eta, horrez gain, *sukaldean ibili, sukaldean aritu, bazkaria prestatu...* ere bai.



3. ZALANTZA OHIKOENAK

Urdin edo azul?

Izartxorik ez egoteak garbi adierazten du biak onartuta daudela, baina posible ote da [azul](#) onartua egotea? Ia denek pentsatuko dute erdal solasa dela, baina adinekoei adituz gero, ohartuko gara haiek *azul* anitz erabiltzen dutela.

Era berean, eta bitxikeria modura, *Euskaltzaindiaren Hiztegian* ikusten ahal dugu [urdin](#) solasak *grisa* ere erran nahi duela, eta horregatik, *ilea urdindua* izateak *ilearen kolorea galtzen ari dela* adierazten du.

Euskaltzaindiaren webgunean jarraituz, [Hizkuntza-baliabideak](#) atalean, bertze eduki interesgarri anitzen artean, bi azpimarratu nahi genituzke: *Jagonet* eta [Arauk](#).

[Jagonet](#)en Euskaltzaindiak eskaintzen duen kontsulta-zerbitzu bat da. Bi helburu nagusi ditu: alde batetik, euskararen erabilera zuzena eta egokia bermatzea, eta, bertzetik, erabilera horren gaineko zalantzak argitzea. *Jagonet*en kontsulta egitean, bertako datu-basean bilatzen ahal dira zalantzak eta, erantzunik ez bada aurkitzen, galdera ere egiten ahal da.

Euskaltzaindiaren afera akitzeko, [arauak](#) biltzen dituen atala ez genuke aipatu gabe utzi nahi. Arauei dagokienez, uste oker anitz dago, aski zabaldua baitago Euskaltzaindiak arauak noiznahi aldatzen dituela, baina hori ez da horrela, arau bakoitzaren beheitiko aldean argi adierazten baita noiztik dagoen ezarria.

Ikus daitekeen moduan, arauak zenbakituak ageri dira. Izenburuan klikatuz gero, arau horretara joko dugu zuzenean. Koadro gorri baten barnean arauaren laburpena irakur daiteke eta, beheitiko aldean, berriz, PDFn araua osorik.

Sarean [aragintza lantzeko](#) material ugari aurki daiteke, baina guk EIBZk (Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroak) prestatutakoa eskura jarri nahi izan dugu, hagitx erabilgarria dela baiteritzogu.

Bertzelako iturrietara ere jotzen ahal dugu, erraterako, ohiko akatsak lantzeko, material anitz baitago Interneten. Zenbait webgune eta materialen lotura gehitu nahi izan dugu, ezagutzen ez dituenak, erabiltzeko aukera izan dezan:

- [HABEren webgunea](#)
- EHUko [EHUTSI](#)
- EIMAre [Euskal ikasmaterialen Estilo-liburua](#)
- IVAPen [Zalantza-dantzan](#)

Horiez gain, euskarazko bi zuzentzaile ortografiko-lexiko dira [Hobelex](#) eta [Xuxen](#). Aski tresna baliagarriak eta erabilerrazak dira akatsak zuzentzeko edozer gauza idatzi eta gero. Izan ere, testua idatzia dugularik, *Hobelex* edota *Xuxen* zuzentzaileen webgunera jo, bertan kopiatu eta agertzen diren gomendioak jatorrizkoan aldatzearekin nahikoa litzateke sortzen ditugun testuak txukun emateko.

Akitzeko, ez genituzke itzultzaileak aipatu gabe utzi nahi, izan ere, egun ditugun itzultzaileen artean bi aipatu nahiko genituzke: [Elia](#) eta [Itzuli](#). Dena dela, aipamen ttiki bat egin nahiko genuke, anitzetan gertatzen baita itzultzailearen laguntzaz euskaratutako zati bat gure idatzi batera ekartzean, gure eskualdekoak ez diren formak agertzea eta, horren ondorioz, idatzitako gainerakoarekin bat ez egitea. Hortaz, beti berrikustea eta moldatzea gomendatzen dugu, testuek batasuna eta koherentzia izan dezaten.

4. MALERREKA ALDEKO MINTZOEN EZAUGARRIAK

Atal honetan Malerrekako Mankomunitatea osatzen duten herrietako mintzoen deskribapena egin nahi izan dugu, hasieratik garbi adierazi dugun moduan, arrunt modu xume eta didaktikoan, gaian aditua ez den edonork ulertzeko eta, interesik izanez gero, erraz erabiltzeko.

Lehenbiziko atalean euskalkiak eta euskara batua izan ditugu mintzagai, baina oraingoan euskalki eta mintzoetan sakonduko dugu. Hasi baino lehen, hausnarketa modura, gaiaren inguruan galdera orokorrak egiten hasiz gero, ohartuko gara aski jende gutxi dakiela ziur zenbat euskalki dauden Euskal Herrian, zer euskalki galdu den, nonbait euskalkia aldatu den edota euskalkiak eta mintzoak gauza bera ote diren.

Bertzalde, gauza jakina da hizkuntzak biziak direla eta aldatuz doazela. Hori dela eta, uler dezakegu euskalkiak ere aldatzen (ari) direla eta, adituek diotenez, batzeko joera dutela, haien arteko aldeak murrizten ari baitira. Hala ere, erran dugunaren ildo beretik, gure identitatearen zati bat ere badira, haiekin identifikatzen garelako eta, hortaz, zaindu eta bulkatu behar ditugu.

Orain arte garbi gelditu da gure eskualdean euskalkien hainbat ezaugarriren mugak edo isoglosak biltzen direla. Hortaz, modu erraz eta didaktikoan bada ere, hori azaldu nahi izan dugu. Hori dela eta, Malerreka aldeko mintzoen deskribapena egiten hasi baino lehen, euskalkiei buruz egin diren bi mapa garrantzitsuenak ekarri nahi izan ditugu lerrootara, hagitz modu bisualean ikus baitaiteke euskalkien sailkapena nolakoa izan den. Bidenabar, Baztan-Bidasoa eta, bereziki, aztergai dugun eremua, euskalkien mapan kokatzen ahal dugu.

Louis-Lucien Bonaparte printzeak, Napoleon Bonaparteren ilobak, 1869an euskalkiei buruzko lehen [mapa](#) egin zuen (ikusi 26. eta 27. orrialdeak). Orduetik gauzak nabarmen aldatu dira eta hondar [mapa](#) Koldo Zuazo²⁶ hizkuntzalariak gaurkotu du (ikusi 28. eta 29. orrialdeak).

Mapan ikus daitekeen moduan, euskalki nafarra urdinez ageri da eta bertze tonalitateekin azpieuskalkiak bereizten ahal dira. Koldo Zuazok, euskalki nafarraren barnean, gure eskualde gehiena Ipar-sartaldean kokatzen du, baina Eratsun eta Ezkurra ez, tarteko hizkera²⁷ baitute.

Ipar-sartaldean ere, dena den, euskalkien zenbait muga edo isoglosa biltzen dira eta horrek biziki interesgarria egiten du gure eskualdea. Zelaietak hagitz ongi laburtzen du "[Baztan-Bidasoako hizkeren ekarpena \(Dialektologiatik ikasgelara\)](#)" artikuluan:

Berriki egin dugun doktorego-tesian (Zelaieta 2005) erakutsi denez, bi ur korrante ezberdin daramatza Baztan-Bidasoa ibaiak. Alde batetik, Baztan aldean aditzen den solasa, eta bertze aldetik, berriz, Bidasoa alderdikoa (Bertizarana, Malerreka, Sunbilla eta Bortzerriak). Hizkeren sailkapenari dagokionez, bi multzo bereizten ditugu, hortaz; nahiz eta bi hizkera hauek euskalki beraren barrenean dauden, egungo euskara nafarraren barrenean, hain zuzen. Honenbertzez, gure datuen arabera betiere, Nafarroa Garaiko euskararen bi hizkera mota ditugu Baztangoa eta Bidasoaldekoa.

26 Koldo Zuazok baimena eman digu 2014an *Euskalkiak* liburuan argitaratutako mapa erabiltzeko. Lerrootatik eskerrak eman nahi dizkiogu.

27 Tarteko hizkera dutelako ageri dira bi kolorez.



CARTE DES
SEPT PROVINCES BASQUES.

montrant

LA DÉLIMITATION ACTUELLE DE L'EUSCARA

et en dialectes

en dialectes, sous dialectes et variétés.

Par le prince Louis-Lucien Bonaparte.


Dessiné, gravé et publié
 au Bureau géographique de l'Institut.

LONDRES.

1863.

Echelle des milles géographiques 1:100,000





LÉGENDE

Chef-Lieu de Commune. Capital. Ville. Poble. Aldehuela. Lugar.
Aldea. Barrio. Partidos de población de más de 10000. Aldea. Barrio. Caserío.
Límite d'Etat ou des trois Provinces. Espagne.
Límite de Province ou de Département.
Límite d'Arrondissement ou de Partido judicial en Aragón.
Límite de Valle.
Tercio. Regimiento.
Límite d'empire. Ligne ou autre ligne limite de l'Etat.
Les localités où la langue basque ne peut plus être parlée ont par une couleur particulière distinguée des localités espagnoles, et sont indiquées par la couleur blanche sans être de districts except elles appartenent.
XR. Le rouge indique le terrain.
Le bleu, le paysage.
Le jaune, le haut territoire aragonais.
Le vert, le haut territoire catalan.
Le orange, le basarain.
Le violet, le bas territoire aragonais.
Le brun, le bas territoire catalan.
Le pourpre, le basarain.
Le nombre de vallées indique le nombre de districts.
Le nombre de parties après le même couleur indique le nombre de vallées d'un même district.
Des six chiffres écrits en bas par une ligne de même couleur constituent un même district et si ce district ne contient qu'une seule vallée, le premier chiffre indique un autre temps le nom du district et la vallée.



Euskalkiak azpiak eta hiriak



Euskararen eremuaren mugak (1850-1870-eko mapa (L.-L. Bonaparte))



ZUBEROTARRA

MEDEBALEKOA

- Soraldeko euskalkia
- Soraldeko euskalkia
- Soralde eta soraldeko euskalkien tarteko hizkerak
- Mendebaleko eta erdialeko euskalkien tarteko hizkerak
- Hileren tartekoak
- Hileren arteko mugak

ERDIALEKOA

- Soraldeko euskalkia
- Erdialeko euskalkia
- Soralde eta erdialeko euskalkien tarteko hizkerak
- Soraldeko euskalkia (indibidualak) eta nafarren tarteko hizkerak
- Hileren eta iparraldeko hizkeren tartekoak
- Hileren eta iparraldeko hizkeren tarteko mugak



NAFARRA

- Iparraldeko euskalkia
- Hego-erdialeko euskalkia
- Erdialeko euskalkia
- Soraldeko euskalkia
- Burunda (mendebalekoen, erdialekoen eta nafarren) tarteko hizkerak
- Baitoa (nafarren eta iparraldekoen tarteko hizkerak)
- Auzoko (nafarren eta iparraldekoen tarteko hizkerak)

NAFAR-LAPURTARRA

- Soraldeko euskalkia
- Soraldeko euskalkia
- Soralde eta erdialeko euskalkien tarteko hizkerak
- Koroakoa (indibidualak) eta nafar lapurtarren tarteko hizkerak
- Auzoko (iparraldekoen eta nafarren) tarteko hizkerak



Euskararen gar egungo bost euskalkiak erakusten dira mapa horietan: mendebalekoa (Bizkain, Arabako Iparraldean eta Gipuzkoako mendebalean mintzatua), erdialekoa (Gipuzkoan eta Nafarroako mendebalean mintzatua), nafarra (Nafarroa gehienez mintzatua), nafar-lapurterra (Lapordin, Nafarroa Beherean, Zuberoako ipar-mendebalean eta Nafarroako Luzaiden mintzatua) eta zuberotarra (Zuberoan eta Beasoko alderdi batean mintzatua). Azken hamarkadotan galdu da ekialdeko nafarra, Zaraitzu eta Erroñkari ibarretan mintzatua zena. Kolore tonaltate desberdinekin, berriz, euskalki horietan diren hamasei azpieuskalkiak agertzen dira: bi dira

mendebalekoen, hiru erdialekoen, bi nafar-lapurterren eta lau nafarren. Oso homogeneoa da zuberotarra. Lerroen bidez, azkenik, tarteko hizkerak erakusten dira, hau da, euskalki biren edo gehiagoren ezagueriak aldi berean dituztenak. Nafarroako Burunda ibarretakoa da denetan bereziena: hiru euskalkiren arteko lotura egiten du. Euskara nortasun handiko hizkuntza da, ez baita ez latindarra ez indoeuroparra, inguruko gutxiak bezala. Harritzekoa da bizirik iraun izana, hizkuntza txiki debako, eta oso handiak, berriz, haren ondoko frantsesa eta gaztelania. XVIII. mendean zera, gainera, bi horietatik ezarri dira Frantzia eta Espainiako estatu-hizkuntza, eta gutxi baztertu dira gainerakoak:

katalana, bretoa, alemana, okzitaniarra... Euskarari dagokionez, bereziki gogorra izan zen 1936-39 bitarteko Espainiako Gerra Zibila eta, haren ondoren, 1975 arte iraun zuen Francoren diktadura militarra: erabat desagertzeko zorian egon zen. Hobera egin du azken hamarkadotan, nahiz eta Nafarroan eta Frantziako estatu hiru herrialdeetan (Lapurd, Nafarroa Beherea eta Zuberoa) oraindik ere oso egoera larrian dagoen. Euskarak izan duen atzerakadaren lekuko, Louis-Lucien Bonaparteren mapan (1850-1870) euskarak zeuzkan mugak ere erakusten dira, eta agerian gelditzen da Araban eta Nafarroan izan den atzerakada. Puntu bidez adierazten da eremu hori,

4. MALERREKA ALDEKO MINTZOEN EZAUGARRIAK

Zelaietaren tesiaz gain, bertze hainbat lan ere argitaratu dira gure eskualdeko mintzoaren inguruko ezaugarri jakin batzuei buruz. Horiez gain, argitaratu gabeko lan bana ere egin zuten Bittorio Lizarragak eta Maite Lakarrek. Horietan guzietan oinarrituta, labur-labur eta ahalik eta modu didaktikoenean, gure eskualdeko ezaugarri orokorrenak azalduko ditugu.

Deskribapena egiten hasi baino lehen, Malerreka aldeko herrietako hainbat lekukotasun biltzen dituen [Malerrekako ahozko ondarearen bilketa](#) bideoa ikustea gomendatzen dugu, bertako lekukoaren ahotik, eskualdeko hainbat kontu ikasteaz gain, mintzoen artean dauden aldeak eta berdintasunak ikusiko ditugulako.

Lan hori Euskokultur Fundazioak egin zuen Malerrekako Mankomunitatearekin eta udalekin batera. Guzira 50 lagun elkarrizketatu zituen Malerrekako Mankomunitatea osatzen duten herrietan eta bideo horretan parte hartu zuten guzien pasarte bana ageri da, lagin modura, hori baita aurkezpen egunerako prestatu zen bideoa.

Ondotik, atalez atal (fonetika-fonologia, morfologia, sintaxia...) gure eskualdeko ezaugarri nagusiak eta haien arteko mugak azalduko ditugu eta hainbat adibide gehituko ditugu, errandakoa hobeki ulertzeko. Hiztegia borzgarren atalean gehitu dugu, forma estandarretik abiatuta, gure eskualdean zer solas erabiltzen den jakiteko. Azkenik, seigarren atalean hainbat lekukotasun eta transkribapen gehitu ditugu, hirugarren eta laugarren ataletan azalduko modu praktikoan ikusteko aukera izateko. Horretarako, [Malerreka solasean. Ahozko tradizioaren bilduma](#) laneko DVDtik herri bakoitzeko audio pasarte bana ere aukeratu dugu eta audio horien guzien transkribapena ere gehitu dugu, euskalkian nahiz batuan, ikasi nahi duenarendako lagungarri izanen delakoan.

4.1 Fonetika-fonologia

Atal honetan biltzen diren ezaugarriak ahozko hizkerari dagozkio, hau da, solastatzean gertatzen diren ezaugarriak dira, baina horrek ez du erran nahi idatziz ere horrela erabil daitezkeenik. Hori dela eta, ez ditugu * ikurraz markatu, atal honen helburua Malerreka aldeko mintzoak deskribatzea delako, zer eta nola egiten den jakiteko, mugak non dauden ikusteko, eta abar.

Aipatu beharra dago adibideak ahoskatu bezala idatzi ditugula, jakiteko nola erraten diren (bokal eta kontsonante galerekin...). Parentesi artean, ordea, transkribatutako adibideak batuan eman ditugu, letra etzanik gabe, forma osoak azaltzeko edota erranahia argitzeko asmoz.

Horrez gain, adibideetan zenbait hizki [] nahiz () artean agertzen dira. Claudatorrak, hau da, [] ikurrak, erabili ditugu solasen bat osatzeko eta errazago ulertzeko. Parentesiak, berriz, ahul samar ahoskatzen diren letrak adierazteko baliatu ditugu.

Adibide gehienak Amaia Apaluzak eta Maite Lakarrek bildutako lekukotasunetatik²⁸ hartu ditugu eta horietako batzuk [Malerreka solasean](#) liburuan ageri dira.

Akitzeko, argi utzi nahi genuke ezaugarri hauetako anitz ez direla Malerrekako Mankomunitatea osatzen duten herri guzietan erabiltzen, orain arte garbi gelditu baita gure eskualdean gertatzen direla ezaugarri anitzen mugak edo isoglosak.

28 2001ean Malerrekako Euskara Zerbitzuak esleitutako Malerrekako Ahozko tradizioa biltzeko beka eskuratu zuten eta horko lekukotasunetan oinarrituta, *Malerreka solasean. Ahozko tradizioaren bilduma* argitaratu zen.

(1) Azentua

Aztergai dugun eskualdean azentua da ezaugarri bereizgarrienetako bat eta horri lotuak daude bertze hainbat gertakari fonetiko ere. Azken batean, azentuari eta doinuari esker bereizten ahal dugu pertsona bat herri batekoa edo bertzekoa den.

Azentuaren inguruan gauza anitz erran badaitezke ere, ideia orokor eta nagusi bat bertzerik ez dugu aipatuko, agerian uzten baitu gure eskualdean izaten direla euskalkien arteko hainbat muga edo isoglosa. Malerreka aldeko herrietan, ezkerretik hasita bigarren silaban dago azentua, eta, beraz, *a-ttá* (aita), *se-mí-a* (semea), *i-txí-a* (etxea), *o-gí-a* (ogia)... erraten da. Baztanen, aldiz, *ái-te*, *sé-mia*, *é-txia*, *ó-gie*... erraten da, eskuinetik hasita bigarren silaban paratuz azentua. Oronozen dago muga hori, baina erran beharra dago gauzak aldatzen ari direla, bertako adinekoek Bidasoaldeko hizkera dutelako gehienbat, baina egungo gazteek, aldiz, Baztangora jotzen dute, harremanak, eskola, eta abar bertan dituztelako nagusiki.

(2) Aferesia eta sinkopa

Azentuarekin lotura zuzena duen gertakaria dugu bokal atonoak edo azenturik ez dutenak galtzea, desagertzen den bokala atonoa izaten baita.

Bi galera mota ditugu: aferesia eta sinkopa. Euskara nafarrean arrunt ohikoak eta bertakoak dira galtze horiek eta gure eskualdean indar handia dute.

Aferesia deitzen diogu lehen bokala galtzeari eta gure eskualdean hagitz ohikoa da hitz hasierako bokal atonoak galtzea: *torri* (etorri), *karri* (ekarri), *kusi* (ikusi), *man* (eman), *purdin* (ipurdian), *makumi arek* (emakume hark)...

Sinkopa hitz barneko bokal atonoa²⁹ galtzean datza, bi silabatan ahoskatzen dena, silaba bakarrean emanez, eta hortaz, kontsonante talde berriak sortuz: *idektzen* (irekitzen), *itxektzeko* (itsasteko), *Ameiktara* (Ameriketara), *eduktzko* (edukitzeko), *bedeiktzen tzu* (bedeinkatzen duzu), *iduktzen tzun* (edukitzen zuen), *maten bazttun* (ematen bazituen), *ebaiktzera* (ebakitzera), *arrastan* (arratsetan), *txokolte* (txokolatea)...

Halere, erran beharra dago ezaugarri hori ez dela sistematikoa, eta hortaz, ez dela beti gertatzen.

Inguruko eskualdeekin alderatuta, erran daiteke Malerrekan sinkopa Baztanen baino azkarragoa dela, baina Bortzirietan baino motelagoa. Sunbillari dagokionez, aldiz, bertako azentua eta hainbat ezaugarri fonetiko-fonologiko hurbilago daude Bortzirietatik Malerrekatik baino.

Ezin dugu atzendu aferesia nahiz sinkopa ahozkoan egiten ditugula, testuinguru informalean, baina egoera formaletan hitzak osorik eman behar dira.

(3) Beste/bertze, bost/bortz...

Euskara nafarreko mintzo batzuetan **-rtz-** atxiki da, hau da, **-rtz-** duten aldaerak erabiltzen dira, ez **-st-** dutenak: *bertze* (beste), *bertzela* (bestela), *bertzenaz* (bestenaz) *honenbertze* (honenbeste), *bortz* (bost), *ortzegun* (ostegun), *ortzirale* (ostiral), *hertze* (heste)...

29 Kontsonantea galtzea ere sinkopa da.

4. MALERREKA ALDEKO MINTZOEN EZAUGARRIAK

Beintza-Labaienen eta Iturenen dago muga, hortik mendebaldera dauden herrietan (Beintza-Labaien³⁰, Eratsun, Ezkurra, Saldias eta Zubieta) *-st-* duten formak erabiltzen baitituzte: *beste, bestela, bost, ostegun, ostiral...*

Berriz ere, ezaugarri honen muga gure eskualdean dago, izan ere, Euskal Herriko mapari begiratzuz gero, aipatutako herrietatik mendebaldera *-st-* duten formak erabiltzen dira eta ekialdera, ordea, *-rtz-* dutenak. Hala ere, erran beharra dago Euskal Herriko ekialdean *-st-* dutenak nagusitzen direla, hortaz, Euskal Herriko bi aldeetan *beste, bost...* adituko dugu eta gure eskualde inguruan, aldiz, *bertze, bortz...*Hori guzia argi ikus daiteke EHHAn [bortz](#) solasarekin, adibidez.

Azken ohar bat egin nahi genuke, izan ere, ez dugu atzendu behar *bertze, bortz...* erabilera formalerako eta idatzirako erabat onartuak daudela.

(4) Hasperenik ez

Ipar Euskal Herrian ez bezala, gure eskualdean ez da *h* ahoskatzen, baina batzuetan *h* horren lekuan herskari ahostunak (*b, d, g*) ageri zaizkigu: *ta legoiti[k] peitti alletu zeneko beittiño* (eta leihotik beheiti ailegatu zenerako beheitiraino), *ate men tzen legora* (atera omen zen leihora), *begorrak eta astuak* (behorrak eta astoak), *bigorkumia zagon lo* (behorkumea lo zegoen), *egun³¹ ta berroita amar kilo* (ehun eta berrogeita hamar kilo), *bigar torko gera* (bihar etorriko gara), *ago zabalka* (aho zabalka)...

(5) *j ahoskatzeko modua

Baztan-Bidasoan **j*-ren ebakera [j] da, hau da, *y* balitz bezala ahoskatzen da, Euskaltzaindiak aholkatzen duen moduan: *yan* (jan), *yakin* (jakin), *yo* (jo), *yuan* (joan), *yendia* (jendea), *yosi* (josi)...

Hala ere, [x] hotsa, *j* moduan erraten duguna, ez da arrotza eta normalean gaztelaniazko maileguetan, erlijiotik hartutako solasetan eta interjekzioetan ikusiko dugu: *jo!*, *joño!*, *jeneralin* (jeneralean), *jangoikun* (jaungoikoaren), *erdian ejia* (erdian ardatza), *eoten tzen ingeniero* (egoten zen ingeniari), *biño ortan geldittu zen jaleua* (baina horretan gelditu zen istilua), *rojuk erraten tzuten ordun* (gorriak erraten zuten orduan), *sarjento batek erran tziten* (sarjentu batek erran zidan), *aik gizajoak, aik eskapa zailtzenak* (haiek gizajoak, haiek eskapo zebiltzanak)...

(6) Maileguetan gaztelaniazko *-on*

Gure eskualdean maileguetan (bertze hizkuntzetatik hartutako hitzetan) gaztelaniazko *-on* atzikiari eusten zaio: *frontona den lekun* (frontoia den lekuan), *kamionin* (kamioian), *kordionakin* (akordeoiarekin), *balonan ainku ya* (baloiaren adinekoa ia), *tablonak prestatu* (tabloiak prestatu), *denak montonara bilddu* (denak pilara bildu)...

30 Beintza-Labaienen bi formak aurki ditzakegu, nahiz *bertze* nagusi izan.

31 Ehun errateko *yaun* ere aditzen ahal dugu: *bertzin yaun, bertzin berraun* (bertzean ehun, bertzean berrehun).

4. MALERREKA ALDEKO MINTZOEN EZAUGARRIAK

Hala ere, gertakari hori kokatzeari dagokionez, Zelaietak hau diosku:

Mailegu zaharretan *-oi* bukaera dugu Nafarroako Bidasoalde osoan: *arratoi*, *arrazoi*, *sasoi*. Mailegu berriagoetan, aldiz, halako eremukako banaketa dugu: (i) Nafarroako berrikuntza espezifiko den *-on* Baztanen, Bertizaranan, Malerrekan eta Sunbillan; (ii) Bortzerrietako lehia konplexua islatzen duten *-oi* (bereziki adin batetik goiti) & *-on* (bereziki gazteagoen artean); (iii) Goizuetan (Zubiri & Perurena 1998:39) eta Leitzan (Olano 1998:81-82) *-on* emaitza bakarrak omen diren *abiona*, *kamiona* eta *kordiona*; (iv) Hondarribian eta Irunen, adinekoen artean nagusiki, *balonka* (baina *baloya*), *kamiona* eta *porrona* bildu ditu Sagarzazuk (2005:73); eta, azkenik, (v) Gipuzkoako herrietan erabiltzen den *-oi* forma bakarra genuke. Bidasoaldeko euskarari dagokionez, Sunbillatik hasten dira gauzak aldatzen.

Atal honetan azaltzen ari garen bertze ezaugarri anitzekin bezala, maileguetan gaztelaniazko *-on* ahozkoan erabiliko dugu testuinguru informalean, baina erabilera formalerako eta idatzirako, *-oi* duten formak dira onartuak daudenak eta, hortaz, erabili beharrekoak (*frontoi*, *baloi*, *kamioi*...).

(7) Maileguetan *-zione*

Seigarren puntuan ikusi berri dugun *-on* atzikiarekin gertatzen den bezala, latinetik eta latin-hizkuntzetatik harturiko *-tione(m)* atzikia duten maileguetan, *-zione* egiten da gure eskualdean: *gero deklarazioniak ta nuna den ta galdetu bar baitire* (gero deklarazioak eta norena den eta galdetu behar baitira), *alkatik in tzun atentzioni deittu* (alkateak egin zuen atentzioa deitu), *ek eiñeko sosa urrengo jenerazionik yan in tzun* (haiek egindako sosa hurrengo belaunaldiak jan egin zuen), *yoan bear tzen Iruñera zea kobratzera, subentzioni kobratzera* (joan behar zuen Iruñera zera kobratzera, dirulaguntza kobratzera), *diputazionik itxi zittun denak* (diputazioak itxi zituen denak)...

Iñaki Caminok azaldu digu ezaugarri hori Euskal Herriko ekialde zabalean ageri dela:

Latinetikako *-tione(m)* atzikiak erromantzeetan eman formetarik euskarazko *-zione* bukaera etorri da maileguen bitartez eremu zabal honetara: *debozione*, *nazione*, *orazione* edo *punizione*, lau aldaerak dira nola Etxeparerenak, hala Ziburuko Etxeberrirenak ere. Nafarroa Garaiko ekialdeko eskualdeetan *-zione*-z landa entzun daiteke *-zio* bukaera ere. Hona Aezkoako etsenpluak: *afizione* 'zaletasuna', *azione* 'ekintza makurra', *bakazioneak* 'oporrak', *diputazione* 'Nafarroako administrazio erakundea', *konzentrazione* 'ereiteko diren alorren biltze edo bateratzea' edo *razione* 'jaten den bigarren platera, funtsean haragia'. Eguesibarko Joakin Lizarragak xviii-xix. mendeetan idatziak dira *afizione*, *akzione*, *konzeptione*, *kontrizione*, *perfekzione*, *proporzioe*... Baztanen *afizionia*, *debozionia*, *diputazionia*, *ejekuzionia*, *konparazione* 'adibidez', *relazionia*... ditugu (Salaburu & Lakar 2005). Epeldek Larresoro alderdian bilduak dira mailegu berri hauek (2003: 121): *azoziazione*, *dezizione*, *enfekzione*, *konparazione*, *konsolazione*, *obligazione*, *operazione*, *pozizione*, *prekozione*, *punizione*, *redukzione*, *telebizione*, *zirkulazione*.

Atziki hori duten formak ez dira egokiak hizkera formalerako eta, bereziki, idatziz *-zio* duten solasak erabili behar ditugu. Euskaltzaindiaren [9. arauak](#) aski ongi azaltzen du hori guzia.

4. MALERREKA ALDEKO MINTZOEN EZAUGARRIAK

(8) Hitz hasieran *oa-* > *goa-*

Zuazok dio [wa] bokal multzoaren aitzinean *g-* kontsonantea garatzea euskara nafarraren bereizgarria dela, hau da, *oa-* hitz hasieran dagoelarik, aitzinean *g-* gehitzen zaiola, *oa-* > *goa-* eginez. Hori dela eta, gure eskualdean horrelakoak adituko dugu: *guaiñ itteunte* (orain egiten dute), *guañ ezta oieken bearrikan* (orain ez da horien beharrik), *utzi zak eberki tapatuta, ta guaye biamnin, kusco [du]k* (utzi ezak ederki tapatua, eta hoa biharamunean, ikusiko duk), *guatzin gañin* (ohatzearen gainean), *gero eken gañin añarra patu ta ura guatzia* (gero haien gainean ainarra paratu eta hura ohatzea), *zimeni betti lami berriz etorri ta seiun quartu* (tximinia beheiti lamia berriz etorri eta segituan ohartu)...

Hala ere, hasierako *g-* gabeko formak ere aditzen ahal dira: *oain* (orain), *Saldisa, Zubita ta Eratsuna artu ttu oain* (Saldias, Zubieta eta Eratsun hartu ditu orain), *uaye! erama zan!* (hoa, eraman ezan), *ez, baserri oitan, bueno lana kanpon itten dute, beño bizi da baserri frankotan oanik yendia* (ez, baserri horietan, bueno lana kanpoan egiten dute, baina bizi da baserri frankotan oraindik jendea)...

Erran beharrik ez dago, *g-* duten forma horiek ahozkoari dagozkiola, eremu informalean; testuinguru formaletan, berriz, *Euskaltzaindiaren Hiztegian* ageri diren moduan eman behar ditugu.

(9) Bustidura indartsua

Gure eskualdean bustidura indartsua da, hau da, *it*, *in* eta *il* beharreen, *tt*, *ñ* eta *ll* ahoskatzen da. Horiekin batera, *dd* ere anitzetan adituko dugu. Honatx zenbait adibide:

- **it > tt:** *betti* (beheiti), *eman tzitten txekia* (eman zidan txekia), *iduit tzitten* (iruditu zitzaidan), *eskribittu* (eskribitu, idatzi), *battuzte Arizonan* (badituzte Arizonan), *ni biño amar urte zarraguk aittu dire kubiarta kartzen* (ni baino hamar urte zaharragoak aritu dira kubiartak ekartzen), *men kusten zinttun ordun* (hemen ikusten zenituen orduan)...

- **in > ñ:** *biño, miño, ño* (baina), *iñori* (inori), *aiño* (haraino), *yakiñen duzue zer den* (jakinen duzue zer den), *ezpaitzen iñun e yeus ere!* (ez baitzen inon ere deus ere!), *Legasa alletu iñeliken* (Legasara ailegatu ginelarik), *biorra den tokiño karri* (behorra dagoen tokiraino ekarri), *Bidasu pasatu barra giñun* (Bidasoa pasatu beharra genuen)...

- **il > ll:** *ontzako urria ta baulan batin pilla bat* (ontzako urrea eta kutxaren batean pila bat), *alletu zielikan* (ailegatu zirelarik), *illargin argiyikin* (ilargiaren argiarekin), *mallarrakin* (babarrunekin), *edozein eskutan ibillik* (edozein eskutan ibiliak)...

- **dd:** oro har, solas batzuetan ia sistematikoki egiten da bustidura hau: *xartela man ta bertzik bilddu* (txartela eman eta bertzeak bildu), *urtatsa(k) bilddu* (urtatsak bildu), *denak manddirik itten tziren ariya eginta* (denak maindireak egiten ziren haria eginda), *maindde xuri(k)* (maindre zuriak), *onddo ttiki batzuk kusi nittun* (onddo ttiki batzuk ikusi nituen), *nik eztaiz ze pasazen en onddukin* (nik ez dakit zer pasatzen den onddoekin), *bilddotsan odola do ardiina* (bildotsaren odola edo ardiena)...

Hala ere, palatalizatu gabeko edo bustidurarik gabeko formak ere adituko ditugu, batez ere Basaburu Ttikian³² eta Zubietan: *bildutzn tzittun belar ori[k] tenak* (biltzen zituen belar horiek denak), *gero bildu eskukin* (gero bildu eskuekin), *biño pitarra itten da sagarra bildu eta gero zanpatu* (baina pitarra egiten da sagarra bildu eta gero zanpatu), *igual amabost-amasei maindire batin edo* (igual hamabost-hamasei maindire batean edo)...

Orain arteko adibide guzietan adierazi dugunaren ildo beretik, idazterakoan ezin ditugu bustidura horiek dituzten solasak erabili.

(10) *a* > *e* bihurtzea

Hego Euskal Herriko ezaugarria da *a* > *e* bihurtzea **aitzinetik *i* edo *u*** bokalak ageri badira. Normalean Baztanekin edo Leitzarekin lotzen ditugu *aite* edo *atte* modukoak, Bertizaranan, Malerrekan³³ edota Bortzirietan ez baita gertakari hori (ia) aditzen.

Hala ere, erran beharra dago Basaburu Ttikian ezaugarri hori ezaguna dela, nahiz ez den sistematikoa. Bittorio Lizarragak aipatu digunaren arabera, Eratsunen gertatzen da bereziki, beti bukaeran. Ikus ditzagun zenbait adibide: *au re nik iñe* (hau ere nik egina), *gañera espartziñek ere itten zittun* (gainera espartinak ere egiten zituen), *anille bat* (uztai bat), *an medide in* (han neurria egin), *eurre ee bi aldetan zolatu* (egurra ere bi aldeetan zulatu), *ezurre kendu* (hezurra kendu), *burnie mozteko bertze zera batzuk* (burdina mozteko bertze zera batzuk), *iltxeurra* (intxaurra), *ta berdiñe an* (eta berdina han), *ta iriñe fiñe zagon edo kusten zun attek* (eta irina fina zegoen edo ikusten zuen aitak), *sorgiñe mordo at bilddu zela* (sorgin mordo bat bildu zela), *aik sorgiñek etzien* (haiek sorginak ez ziren), *osiñek eose* (osinak egosi)...

(11) Erakusleak

Gure eskualdean erabiltzen diren erakusle gehienak euskara baturako onartutakoak izan arren, erakusleei erreparatuta bereizten ahal da pertsona bat Baztangoa, Malerrekakoa edo Zubietatik goitikoa den. Guk aldatzen direnak bertzerik ez ditugu aipatuko eta hainbat adibide gehituko ditugu:

Hau

NORI kasuan *honeri*³⁴ eta *honei* moduko formak adituko ditugu eskualde guzian: *ze in bar tziu denbor*

32 Bittorio Lizarragak dio gehienetan txandaka erabiltzen direla palatalizatutako formak (*dd*) eta palatalizatu gabeak (*d*) edo palatalizatu gabeak bertzerik ez direla erabiltzen: *bilduzkero* (bilduz gero), *billu* (bildu), *eonttu* (egondu), *indarra* (indarra), *aindu* (agindu), *maindirik eitten tzi(r)in* (maindireak egiten ziren), *bi maindire* (bi maindire)... dena den, batzuetan (ia) sistematikoki egiten dira forma batzuk, *bilddu* (bildu), adibidez. Horrez gain, erraten du *bildots* solasa erabili arren, anitzetan *billotsa* edo *bilddotsa* ere aditzen ahal dela Zubietatik mendebaldera dauden herrietan.

33 *-tikan* > *-tiken* aski ezaguna da Malerrekan: *yendaji artiken* (jendilaje hartatik), *ixkiñ untiken* (izkina honetatik), *Oieregitiken* (Oieregitik), *bigeltiken* (gibeletik, atzetik), *eoztiken* (geroztik)... Asimilazio hori Malerrekan eta Bertizaranan indartsua da, Sunbillan eta Zubietatik mendebaldera dauden herrietan, ordea, oso ahula da edo ez dago horrelakorik.

Gauza bera gertatzen zaio *-rikan* > *-riken* asimilazioari ere.

34 Azalpenetan erakusle guztiei *h* paratu diegu, baina adibideetan ez, ahoskatzen den bezala eman ditugulako transkribapenak.

4. MALERREKA ALDEKO MINTZOEN EZAUGARRIAK

oneri...? (zer egin behar zioagu denbora³⁵ honi?), *oneri erraten diogu* (honi erraten diogu), *au erdi eru duk ta onei man bar tziou* (hau erdi eroa duk eta honi eman behar zioagu), *onei manatzen d(io)un bezala* (honi manatzen diogun bezala), *ze in dizu onei?*³⁶ (zer egin diozu honi?)...

Testuinguru formalean forma zuzena *honi* dela jakin behar dugu, nahiz gero bertzelako egoeratan *honeri* eta *honei* moduko formak erabili.

Hori

NORI delarik, gure eskualdeko herri guzietan *horreri* modukoak ageri dira: *nola erraten al diozu orreri gauz bat eta areri bertzia?* (nola erraten ahal diozu horri gauza bat eta hari bertzea?), *“lia” deitzen tzaio orreri* (“lia” deitzen zaio horri), *orai nola erraten diote orreri?* (orain nola erraten diote horri?), *berbena orreri saten genion leno* (berbena horri esaten genion lehenago), *irailleko illauti orreri guk erraten diou... burubilla* (iraileko hilabete horri guk erraten diogu... buruila), *ta Kristina orreri pues etzazion gustatu* (eta Kristina horri pues ez zitzaion gustatu)...

Egoera formaletan, ordea, *horreri* erakuslearen tokian, *horri* erabili behar dugu.

Hura

NOR kasuan aldatzen ez bada ere, NORK denean, *hark* beharrean, *harek* erraten da Malerrekako herri anitzetan: *arek ikus gabe yuaten bagiñen ura zagon paretara ta ura ukittu* (hark ikusi gabe joaten baginen hura zegoen paretara eta hura ukitu), *arek bazun bar ttiki bat* (hark bazuen ostatu ttiki bat), *arek matn tzion eztakit zemat pezeta* (hark ematen zion ez dakit zenbat pezeta), *arek erran tziten ez nula yuan biar itxera* (hark erran zidan ez nuela joan behar etxera), *arek eram bar tzun* (hark eraman behar zuen), *zeiñ alabakin espostu bar tzun arek* (zein alabarekin esposatu behar zuen hark), *bi urte egon bar tzun arek* (bi urte egon behar zuen hark), *arek umia botatzen tzulik an paatu* (hark umea botatzen zuelarik han paratu)...

Zubietatik mendebaldera, aldiz, ez da *harek* erabiltzen, baizik eta *hark*: *itten tzittun ark* (egiten zituen hark), *zerri anak eta eskatzen tzittun ark* (zerri hankak eta eskatzen zituen hark), *ark [g]uri zerra ekarri* (hark guri zerra ekarri), *ordun ark ori esaten tzun* (orduan hark hori esaten zuen), *ark txokoltea atea bar tzun* (hark txokoltea atera behar zuen), *ark esaten tzun* (hark esaten zuen)...

NORI kasuan ere gauza bera gertatzen da, *hari* beharrean, *hareri* erraten baita Zubietatik ekialdera dauden herrietan: *ez omen tzion ez arbo... geio arbol areri aizkori golpik man* (ez omen zion ez arbol... gehiago arbola hari aizkora kolperik eman), *ordun beitzen zion areri* (orduan begiratzen zion hari), *Xan Marko kazkabarra ta elur, nik mendi gañera yuateko areri dio[t] beldur* (San Marko kazkabarra eta elur, nik mendi gainera joateko hari diot beldur), *man tzion burua areri* (eman zion burua hari), *areri nasten zitun eta ek itten tzittun egosi* (hari nahasten zizkion eta haiek egiten zituen egosi)...

35 Paskual Rekaldek azaldu digun moduan, *Euskaltzaindiaren Hiztegiko* 6. adieran ikus daiteke [denbora](#) onartua dagoela *eguraldi* errateko.

36 Ezkurrako adibidea da.

4. MALERREKA ALDEKO MINTZOEN EZAUGARRIAK

Haatik, Zubietatik mendebaldera dauden herrietan *hari* adituko dugu: *gero ari ure bota* (gero hari ura bota), *xamurtzen yoaten zenin aragia, pues, ari patatak bota* (samurtzen joaten zenean haragia, bada, hari patatak bota), *ari beira patzen tziren* (hari begira paratzen ziren), *ari bota arroza ta tipula* (hari bota arroza eta tipula)...

Bertzelako kasuetan ere, antzera jokatzen dute gainerako erakusleek, izan ere, Iturendik ekialdera dauden herrietan *haretan, haretara...* moduko formak dira nagusi, nahiz *hartan, hartara...* modukoren bat ere aditzen ahal dugun: *ordun bolada aretan* (orduana bolada hartan), *inguru aretan barkazionikin zagon* (inguru hartan oporretan zegoen)... ditugu alde batetik, baina bertzetik, aldiz, *an baserri artan emana yana zerbatt ere* (han baserri hartan emana jana zerbait ere), *arrantzako botak gomazkuk erosiak, eun artan estreña in bearra* (arrantzarako botak gomazkoak erosiak, egun hartan estreina egin beharra), *Bertizeko sasi artan eroi itten ziren* (Bertizko sasi hartan erori egiten ziren)...

Ikusi ditugun adibideen ildo beretik, ordea, Zubietatik mendebaldera batuarekin bat egiten duten formak dira nagusi: *bazen or Elizondotik Irunara trena bat ibiltzen zena eta artan tortzen tziren andrik* (bazen hor Elizondotik Irunera tren bat ibiltzen zena eta hartan etortzen ziren andreak), *ta an ibiltzen zttun igual amasei laun, kotxe artan* (eta han ibiltzen zituen igual hamasei lagun, auto hartan), *baño eun artan joan zen nausie* (baina egun hartan joan zen nagusia), *gerra ondoko... zandu zen goseti artan* (gerra ondoko... izan zen gosete hartan)...

Laburpen modura, Zubietatik mendebaldera dauden formak baturako onartuak direnak dira, eta, beraz, egoera formaletan, bereziki idazterakoan *hark, hari, hartan, hartara...* erabili behar dira, *harek, hareri, haretan, haretara...* beharrean.

Hauek

Hauek egiteko *hok* erabiltzen da batez ere³⁷: *andiken ok kargatzen zielik* (handik hauek kargatzen zirelarik), *ok biyek ibizen zen* (hauek biak ibiltzen ziren), *berso bikañak ok* (bertso bikainak hauek), *ok moztu bar ttit, motel* (hauek moztu behar ditiat, motel), *ok yanakin yoaten tziren* (hauek janarekin joaten ziren), *ok men zakiten dena nun tzen* (hauek omen zekiten dena non zen)...

Deklinatzerakoan, aldiz, *hokin, hotan, hotik...* moduko formak adituko ditugu batez ere: *oainguk kajon modernu otan* (oraingoak tiradera moderno hauetan), *bai, zer okin, pikor okin* (bai, zera hauekin, pikor hauekin), *ta okin ola artu zure ankako biatz aundik* (eta hauekin hola hartu zure hankako behatz handiak), *sartu omen tzen zolo batera, ta izugarri elegantia! Eleganti ikaragarri ta okin sartu omen tzen* (sartu omen zen zulo batera, eta izugarri elegantea! Elegante ikaragarrian eta hauekin sartu omen zen), *bi toki otan axala dun beitti untan* (bi toki hauetan, azala duen beheiti honetan), *miño "silvestre" otik oaiñ ere atetzen dire nunai* (baina basa hauetarik orain ere ateratzen dira nonahi)...

37 Horrela erraten bada ere, idatziz forma osoa eta zuzena paratu behar da. Hala ere, Iñaki Caminok adierazi digun moduan, euskarazko literaturan guziz normala da Ipar Euskal Herrian *hok* idaztea, ez baita aldaera markatua, arrunta da.

4. MALERREKA ALDEKO MINTZOEN EZAUGARRIAK

Horiek

Beintza-Labaien eta Ituren bitarterainoko herrietan *hoitan* forma nagusi: *oik urrirun ta oitan zatn die beittu barrak* (horiek urrian eta horietan izaten dira begiratu beharrak), *bueno, beietan ezta izaten, biorra ta oitan da, bai* (bueno, behietan ez da izaten, behor eta horietan da, bai), *litruko ta botill oitan* (litroko eta botila horietan), *eta emen... eskap(a)tu eta mendi oitan, nee sortu itxin ondun bar(re)na ta...* (eta hemen... eskapatu eta mendi horietan, nire sortetxe ondoan barrena ta...)

Zubieta eta Saldiaстик mendebaldera, aldiz, bertze forma hau ere ezaguna da: *meza oritan umi denak ibiltze ziren* (meza horietan ume denak³⁸ ibiltzen ziren), *oritan denak olata eramatten tzen* (horietan denak olata eramaten zen), *ba zaten dere gero illun batzuk, ez polittak... politt oritakuk ez, zatn dere... marron antzera* (ba izaten dira gero ilun batzuk, ez politak... polit horietakoak ez, izaten dira... marroi antzera)...

Akitzeko, Narbarten, Oieregin eta Donamarian bildutako bertze adibide hauek erakusten digute Baztandik hurbil dauden herrietan Baztango erakusleak ere adi daitezkeela batzuetan: *oikendako enplastua* (horiendako enplastua), *injeniero ta oikendako beti* (ingeniari eta horiendako beti), *oiekendako? Ezkondu bear bazuten "asto trato" batekin egitten tziren* (horiendako? Ezkondu behar bazuten, "asto tratu" batekin egiten ziren)...

Egoera formaletarako jakin behar dugu *horiek, horietan, horietara...* direla forma zuzenak.

Haiek

Bertizaranan nahiz Iturendik eta Urroztik ekialdera dauden herrietan *hek* da forma nagusia NOR kasuan: *gurutzi ek patzen tziren* (gurutze haiek paratzen ziren), *ogia atetzen zen denboran sartzen ziren ek labian* (ogia ateratzen zen denboran sartzen ziren haiek labean), *an beratzen d(i)re ek eta onak zaten d(i)re* (han beratzen dira haiek eta onak izaten dira), *ek erdaraz zakiten* (haiek gaztelaniaz zekiten), *ek eiñeko sosa urrengo jenerazionik yan in tzun* (haiek egindako sosa hurrengo belaunaldiak jan egin zuen), *gero ek guatzera* (gero haiek ohatzera), *orai ek yoan tzien "a pique" beitti ta gu ate(a) giñen goitti* (orain haiek joan ziren *a pique* beheiti eta gu atera ginen goiti)...

Zubietatik nahiz Beintza-Labaiendik mendebaldera, berriz, *haiek* aurkituko dugu: *gero itten tziuzten aiek moztu ta yosi* (gero egiten zituzten haiek moztu eta josi), *uia serbtzko bear tzien aiek* (ogia serbitzeko behar ziren haiek), *bazterrin utzi aiek* (bazterrean utzi haiek), *miño aiek erama[n] ta bereala garbittu ta ekarri* (baina haiek eraman eta berehala garbitu eta ekarri), *aiek gar(bi)tzten ginttun* (haiek garbitzen genituen), *ba(ñ)an lixibekin (g)osten tziren aiek* (baina lixibarekin egosten ziren haiek), *autsekin tapatu ta erretzen tzin aiek* (hautsarekin tapatu eta erretzen ziren haiek), *ta aiek eitten ziuten guri* (eta haiek egiten ziguten guri)...

NORI kasuan, aldiz, *haiei* errateko *hekeri* nahiz *heiki* gisako erakusleak adituko ditugu: *matrimoniu bat baziten bedetzi ume... ekeri... ekeri zaintzen* (senar-emazte batzuek bazituzten bederatzi ume... haiek... haiek zaintzen), *ixpia erraten tzaio ekeri... ek paratu, ekeri diru gutixigo, biñon... ekeri pagatu* (espioi erraten zaie haiei... haiek paratu, haiei diru gutxixeago, baina... haiei pagatu), *segitzen genion andri ekeri itxeaiño* (jarraitzen genituen andre horiek etxeraino), *urtatsak erraten tzaion giltxaurrari ta ekeri* (urtatsak erraten

38 Paskual Rekaldek azaldu digu, *Euskara Batuaren Eskuliburuan (EBE)* azaltzen den moduan, [dena eta guzti](#) baliokideak direla.

4. MALERREKA ALDEKO MINTZOEN EZAUGARRIAK

zitzaien intxaurrei eta haiei), *ek matten zittozten ekeri, yateko* (haiek ematen zizkieten haiei, jateko), *aurra gustatzen baziote ekeri* (haurra gustatzen bazaie haiei), *kate eiki lotzeko*³⁹ (kate haiei lotzeko), *balima ie eskatzelik, eiki man, zuekendako* (baldin badira eskatzaileak, haiei eman, zuendako)...

Zubietatik eta Beintza-Labaindik mendebaldera, ordea, *hairi* (haiei) modukoak ikusiko ditugu batez ere: *gero, airi beste ingredienten bat nasiko zion* (gero, haiei beste osagairen bat nahasiko zien), *bai, airi (e)sate [gi]ñion laberria* (bai, haiei esaten genien laberria), *airi deneri barrendik denak kentzen ttizte* (haiei denei barrendik denak kentzen dizkiete), *serbitzeko afaria berriz airi* (serbitzeko afaria berriz haiei), *itxian ziñunakin, zerbattekin ordaindu airi* (etxean zenuenarekin, zerbaitekin ordaindu haiei)...

Bertze kasuak deklinatzerakoan, berriz, *hekin* (haiekin), *hetan* (haietan)... moduko formak adituko ditugu Zubietatik ekialdera dauden herrietan: *ekin batin ibiltze nitzen* (haiekin batera ibiltzen nintzen), *ta ekin bazkaldu omen zun* (eta haiekin bazkaldu omen zuen), *ekin pillota goitti bota ta aitzen tzen tabatan* (haiekin pilota goiti bota eta aritzen zen tortolosean), *ekin arraxkatu* (haiekin harraskatu), *sudur gañin me[n] zttun iru ille aundik, karagarrik, eta etan tzula indarra* (sudur gainean omen zituen hiru ile handi, ikaragarriak, eta haietan zuela indarra), *xare ttiki batzu[k] paginttun, xare etan bota ta* (zare txiki batzuk bagenituen, zare haietan bota eta), *denbor(a) etan milla pezeta pagatuta* (denbora haietan mila pezeta pagatuta), *leku batzuetan aritzak, t(a) etik... etan ere ari da sartzen baua* (leku batzuetan haritzak eta haietatik... haietan ere ari da sartzen pagoa), *denbor etan ya erran dugun eskasia izan zelik* (denbora haietan ja erran dugun eskasia zelarik)...

Zubietatik mendebaldera daudenetan, ordea, *haikin* (haiekin), *haitan* (haietan), *haitatik* (haietatik)... modukoak dira nagusi: *luxi aikin sakatzeko ta* (luze haiekin sakatzeko eta), *ta aikin zeatzen tzien* (eta haiekin zeratzen ziren), *bedetzi pikor aikin* (bederatzi pikor haiekin), *mei xamarrak karri ta aikin garbitzen tzen* (mehe samarrak ekarri eta haiekin garbitzen zen), *pala aikin sartu uia labera* (pala haiekin sartu ogia labera), *ta an, anille bat, kate eikin*⁴⁰ (eta han uztai bat, kate haiekin), *burnizkuk baitziren denbo(a) aitan saltzen tzienak* (burdinazkoak baitziren denbora hartan saltzen zirenak), *aiek ortz(a) aitan sartu* (haiek hortz haietan sartu), *demoa aitan zea zen, arpana, zerra* (denbora haietan zera zen, arpana, zerra), *eltze goxoana ateatzen tzen aik... ateatzen da aitan* (eltze goxoena ateratzen zen haiek... ateratzen da haietan), *karetzak atetzen dire aitan* (garatxoak ateratzen dira haietan), *iru aitatik bi izaten tzirin, zera, bi aldet'tik utsek* (hiru haietatik bi izaten ziren, zera, bi aldetatik hutsak), *makill aitetik berexi* (makila haietatik bereizi)...

(12) Hiatuetan [j] epentesia

Hiatuetan, *i* eta bertze bokalaren artean **[j]** epentesia egiten da batzuetan, hau da, bi silabatan banatuta dauden bi bokalaren artean *-y-* sartzen da. Gure eskualdeko herrietan Bortzirietan baino ahulagoa da gertakari hori, ez baita sistematikoki egiten. Ikus ditzagun zenbait adibide: *ariya* (haria), *garbiyak* (garbiak), *ikaragarriyak* (ikaragarriak), *karriya* (ekarria), *arriyak* (harriak), *mugarriyak* (mugarriak), *sorginkeriya* (sorginkeriak), *aundiyak* (handiak), *erriya* (herria), *ttikiya* (ttikia), *berriya* (berria), *yarriyak* (jarriak), *ogiya* (ogia), *euriya* (euria)...

Inesiboan (NON?) ere epentesia gertatzen da batzuetan; hori dela eta, *-iyin* forma aditzen ahal dugu Bertizaranan zein Malerrekan, batez ere Sunbillan, Bortzirietako eta Malerreka tarteko mintzoa baitute bertan. Basaburu Ttiki aldean, aldiz, ez dugu horrelakorik adituko. Hona hemen hainbat adibide: *aren azpiyin*

39 Beintza-Labaiengo adibidea da.

40 Beintza-Labaiengo adibidea da.

4. MALERREKA ALDEKO MINTZOEN EZAUGARRIAK

krixto bezala lotua ura (haren azpian kristo bezala lotua hura), *bazen erriyin emakume bat* (bazen herrian emakume bat), *igual bertze lantan erriyin ta aittuk ta orrela* (igual bertze lanetan herrian eta arituak eta horrela), *yeun itxe erriyin* (ehun etxe herrian), *erraten da mundu guziyin banatua dela* (erraten da mundu guzian banatua dela), *aren azpiyin patzen zinttun arropak* (haren azpian paratzen zenituen arropak), *aienak sasiyin bilddu* (aihenak sasian bildu)...

Aipatu berri dugun formarekin batera, batzuetan *-iyan* ere ikusi ahalko dugu: *ura erdiyan ta bertze bi bazterrin* (hura erdian eta bertze bi bazterrean), *eta erriyan, ate men zittuzten erritiken* (eta herrian, atera omen zituzten herritik), *ogiyān iriñān zaiakin* (ogiarene irinarene zahiarekin)...

Ezaugarri horren muga berriz ere gure eskualdean dago. Oronozen eta Basaburu Ttikian, erraterako, ez baititugu *-iyin* moduko epentesiak aurkituko, baina bai bertzelakoak: *aundiya, ogiya, ziriyak, esiyak, zerriya, gorriya, uliyak, erdiya, eztiya, gaziya, arbiya, ardiya, yosiyak, autsiya, argiya, zagiya, aziya*. Arraiozen, ordea, ez dugu *-iya* moduko epentesirik adituko.

(13) Bokak luzeak

Basaburu Ttikian arrunt ohikoak dira bokak luzeak: *ari bee(r)i (r)e patzen tzioten* (hari berari paratzen zioten), *aakin itte(n) giñun* (harekin egiten genuen), *erdiin utzi* (erdian utzi), *gari(a) ittn tzen lenoo emen* (garia egiten zen lehenago hemen), *kortxiitu eta geo* (kortxoa paratu eta gero), *xerriina nasi* (txerriarena nahasi), *zirikin bueltu* (ziriarekin buelta eman), *labiin erre* (labean erre), *kartzen tzeeten, medide* (ekartzen zidaten, neurria), *manduuk ttikik izaten dere* (mandoak ttikiak izaten dira), *biitu* (begiratu)...

Ezkurran hitz bukaeran asimilazioz bokak luzeak aurkituko ditugu: *uaiñ, errotarii aotan ibiltzen zela bai, oi erri guziik ore* (orain, errotaria ahotan ibiltzen zela bai, hori herri guziak hori), *gurdii irauale men tzitzioan* (gurdia irauli omen zitzaizen), *uneri kastigu ikaragarrii man bar ziu, ikaragarrii* (honi zigor ikaragarria eman behar zioagu, ikaragarria), *lemeziko zakuu do ola, lenbeziko zakue* (lehenbiziko zakua edo hola, lehenbiziko zakua)...

(14) Arrautu, eskautu, irauzi... modukoak

Bortzirietan *harrapatu, eskapatu, irabazi* erran beharrean, normalean *arrautu* (harrapatu), *eskautu* (eskapatu), *irauzi* (irabazi)... erabiltzen dira. Gure eskualdean ere horrelako formak aditzen ahal dira, nahiz ezaugarri hori ez den sistematikoa eta Bortzirietan bezain indartsua: *arraut ut bastante* (harrapatu dut bastante), *ardi gaztia arrautu omen tzun otzak* (ardi gaztea harrapatu omen zuen hotzak), *ta arrautzen bazun bakarremat... pues ura gelditzen tzen kastigtua* (eta harrapatzen bazuen bakarren bat... bada hura gelditzen zen zigortua), *illa arrautu men zuten otsua bordan barnin* (hila harrapatu omen zuten otsoa bordaren barnean), *ezta beretzi irauzirik* (ezta bederatzi irabazirik), *berreun dolarrekin eldu zen emengo irauzitikan doble* (berrehun dolarrekin heldu zen hemengo irabazitik doble), *irauzi ongi eta gaizki yan* (irabazi ongi eta gaizki jan)...⁴¹

41 *Irauzi* orokor samarra da Basaburu Ttikian. *Arrautu* ere azaltzen da, baina *arrap(a)tu* aditzarekin txandatu. Ezkurran, berriz, beti *arpatu* edota *arpato*.

(15) *Giñun, gunun...*

Genuen errateko, gure eskualdean *giñun* erabiltzen da batez ere, baina *gunun* modukoak ere adi ditzakegu. Bortzirietan maiz aurki ditzakegu *gunun* eta *nugun* gisako adizkiak eta Sunbillan ere nahiko erabiltzen dute *gunun* adizkia. Bertizaranan, ordea, gauzak aldatzen dira eta ez dugu *gunun* edo *nugun* moduko adizkirik aurkituko. Ikus ditzagun zenbait adibide: *kantatu bear gunun e... eskolatikan atetzin* (kantatu behar genuen e... eskolatik ateratzean), *au ere bagunun emen* (hau ere bagenuen hemen), *errezten gunun yakin gabe ze erraten gunun* (errezatzen genuen jakin gabe zer erraten genuen), *guk uskaraz itten gunun dena emen amakin ta attakin ta* (guk euskaraz egiten genuen dena hemen amarekin eta aitarekin eta), *yuan giñen eskolara yuxtu-yuxtun ikasi gunun erdaraz* (joan ginen eskolara eta justu-justu ikasi genuen gaztelaniaz)...

(16) *Patzeunte (paratzen dute) moduko metatesiak*

Aditz nagusia eta **edun* laguntzailearen orainaldiko adizkiak elkartzen direlarik, honelako metatesiak edo ordena aldaketak gertatzen dira: *patzeunte <*patzen ute < paratzen dute*.

Bortzirietan hagitz ohikoa den gertakari hori Malerrekan nahiz Bertizaranan ere aurki dezakegu, baina maiztasun txikiagoz. Ikus ditzagun zenbait adibide: *bai, zenbaitzuek errateunte “tella”* (bai, zenbaitzuek erraten dute “teila”), *batzuek errateunte baiez biño ni... nik in dut prueba ta eztire azitzen* (batzuek erraten duten baietz, baina ni... nik egin dut proba eta ez dira hazten), *ek zateunte lixta bat* (haiek izaten dute lista bat), *guttixio kobratzeuntenak* (gutxixeago kobratzen dutenak), *errateunte norbatt eskaka daola* (erraten dute norbait eskaka dagoela)...

Beintza-Labaienen ere ez da arrotza: *errateunte amairu* (erraten dute hamahiru), *“nones” dela sorgiñena errateunte* (“nones” dela sorginena erraten dute)...

Harrigarria dirudien arren, ezaugarri hori Oronozerraino iristen da: *patzeunte* (paratzen dute), *botatzeunte* (botatzen dute), *errateunte* (erraten dute)...

Zelaietak (2004:238) dio Bortzirietan zenbaitetan bertze urrats bat gehiago egiten dela: *eitten unte > eitten te*. Basaburu Ttikian, Malerrekan, Bertizaranan eta Oronozen ere aurki dezakegu ezaugarri hori: *ori erraten tena... anak miak eta ukerrak* (hori erraten dutena... hankak meheak eta okerrak), *oaiñ aizen die xingurrik, itten te mukuru* (orain aritzen dira xinaurriak, egiten dute mukuru), *amabortz egun gotti zaten te* (hamabortz egun goiti izaten dute), *biño ez noski erraten ten aña* (baina ez noski erraten duten adina), *zaten te xulua* (izaten dute zuloa), *pues eruk direla esaten te biño... eztire eruk ezkurriarrak* (bada eroak direla esaten dute baina... ez dira eroak ezkurriarrak), *Baztan zopak esaten te batzuek* (Baztan zopak esaten dute batzuek), *ozpiñkin ta gatzkin eta itten te batzuek* (ozpinarekin eta gatzarekin egiten dute batzuek)...

(17) *Sandhiak: ez + omen > ezpen*

Mintzatzean anitzetan hitzak elkarri lotuta ematen ditugu eta lexema bat baino gehiago elkarrekin ahoskatzen ditugu, laburdurak eta aldaketak sortuz. Gure eskualdean hagitz ohikoak dira sandhiak, baina aipamen berezia merezi duen bat ekarri nahi izan dugu lerrootara. Izan ere, *omen* partikulak *men* eta, gutxiagotan bada ere, *emen* aldaerak ditu, baina deigarriena *ez* eta *omen* elkartzean gertatzen den sandhia dugu, *m > p* bihurtzen baita. Ikus ditzagun adibide zenbait: *ezpen da* (ez omen da), *ezpen tzun geigo begittu* (ez omen zuen gehiago begiratu), *ezpen tzion enteintzen* (ez omen zion entenditzen), *ezpen tzin agertzen* (ez omen ziren agertzen), *ezpein zen* (ez omen zen)...

4. MALERREKA ALDEKO MINTZOEN EZAUGARRIAK

4.2 Morfologia

4.2.1 Izenaren morfologia

Izenaren morfologiarekin zerikusia duten ezaugarriak ikusten hasiko gara lehenik:

(1) Berezko *-a* galtzeko joera

Bidasoaldean (Bertizaranan, Malerrekan, Basaburu Ttikian eta Bortzirietan) berezko *-a* galtzeko joera handia dago: *denbor etan ya erran dugun eskasia izan zelik* (denbora haietan ja erran dugun eskasia izan zelarik), *onoko beste kazul lurrezko ortan in* (honako beste kazola lurrezko horretan egin), *nik nauzkin en... pil bat karetxa* (nik neuzkan pila bat kalitxa), *eskol pixko geixio* (eskola pixka bat gehixeago), *errot zarrin zaten tzirela sorgiñak* (errot zaharrean izaten zirela sorginak), *neska yuan bark'un ferrat ori artu ta ur eske* (neska, joan beharko dun ferreta hori hartu eta ur eske), *pein baten tartera alletu zielikan* (harkaitz baten tartera ailegatu zirelarik)...

Hala ere, horiekin batera eta gutxiagotan bada ere, behar ez den tokian *a* gehitzen duten adibideak ere aditzen ahal ditugu: *ura beruan* (ur beroan), *lore marrona bat ateatzen te* (lore marroi bat ateratzen dute), *amasei ortza* (hamasei hortz), *oanik martxan baizen trenabidia* (oraindik martxan baitzen trenbidea), *eur bakotxak bortz ortza* (egur bakoitzak bortz hortz)...

Argi utzi nahiko genuke, hizkera zainduan, egoera formaletan, hitzak osorik eman behar direla eta *a* horiek guziak dagokien tokian paratu behar direla.

(2) Ez da NORK pluraleko *-ek* bereizten

Baztan-Bidaso guzian, baita Basaburu Ttikian ere, ez da NORK pluraleko *-ek* bereizten, hau da, da absolutibo (NOR) pluralerako nahiz ergatibo (NORK) pluralerako *-ak* morfema erabiltzen da: *baso bat'tik eateunzten denak* (baso batetik edaten zuten denek), *xistulariyak karrika buelta ematten tenin* (txistulariek buelta ematen dutenean), *geienak eamttten te ola* (gehienek eramaten dute horrela), *bertze lagunak artu ta eama zuten* (bertze lagunak hartu eta eraman zuten), *sorgiñak artu men zuten* (sorginek hartu omen zuten), *lanen ortara aitzen zien gizonak eskatze zutenin* (lanean horretara aritzen ziren gizonak eskatzen zutenean), *denak gaxki akittu omen tzuten* (denek gaizki akitu omen zuten)...

Ezaugarri hori egoera informalean erabil daiteke, baina jakin behar dugu NORK pluraleko forma zuzena *-ek* dela, testuinguru formalean bereziki zaindu beharrekoa.

(3) Zenbatzaileak

Hauek dira gure eskualdean azpimarratu edo nabarmendu nahiko genituzkeen zenbakiak:

2: gure eskualdean⁴² **bi** eta **bida**⁴³ *aditzen ahal ditugu*. *Bi* ondoan izen bat duenean erabiltzen da eta, *bida*, aldiz, bakarrik doanean, hau da, izenordaina denean: *bida baziren yuana* (biga baziren joanak), *lautik ere bida egin bar tzirela* (lautik ere biga egin behar zirela), *bida beti*, *bi erri* (biga beti, bi herri), *bi ollasko ederrak bigali zatan bestetako* (bi oilasko eder bidali zizkidan bestetarako), *bi mando nittun nik ordun* (bi mando nituen nik ordun), *bi sunbildar* (bi sunbildar)...

5: eskualde gehienean *bost* nahiz *bortz* erabiltzen dira: *bortz egunen burun* (bortz egunen buruan), *ogeita bortz urte* (hogeita bortz urte), *eztait bortz illabatez edo* (ez dakit bortz hilabetez edo), *ni(k) tuten eskola bortz illabetez ikasia* (nik dudan eskola bortz hilabetez ikasia), *sueldo bat (d)a bos sos* (sueldo bat da bost sos), *amabos laun* (hamabost lagun), *leno igual bostako (e)do lautatoko tortzen zen zerri iltzili(a) itxera* (lehenago igual bostetarako edo lauretarako etortzen zen zerri hiltzailea etxera), *ta amabos... amabos bat eunez edo eruki an, kajonen, eta eo zintzilik patu* (eta hamabost... hamabost bat egunez edo eduki han, tiraderan, eta gero zintzilik paratu)...

Hala ere, erran beharra dago Zubieta eta Saldiaстик mendebaldera dauden herrietan ez dela *bortz* zenbatzailea erabiltzen, baizik eta *bost*: *bost eo sei talo suun ingurun* (bost edo sei talo suaren inguruan), *bost arrautze do batittu eta aakin* (bost arrautza edo irabiatu eta harekin), *oeita bost urtez* (hogeita bost urtez)...

60: Malerreka, Bertizarana eta Beintza-Labaien aldeko forma *hiruretan hoge*i erraten da; egun, nagusiki adinekoek erabiltzen dute, gazteagoek, eskolaren eta hedabideen eraginez segur aski, *hirurogei* erabiltzen baitute. Honatx adibide zenbait: *irutan ogei itxetako partittu bar tzinttun* (hiruretan hoge*i* etxetarako partitu behar zenituen), *zagik zaten zittun... irutan oeita amar litro* (zahagiak izaten zituen... hiruretan hogeita hamar litro)...

Zenbatzaile honen muga ere Zubieta eta Saldiaстик mendebaldera dago, adibideotan argi ikus daitekeen moduan: *iruroei kilo pisatze zittuen azukre...* (hirurogei kilo pisatzen zituen azukre...), *tortzen zen zaku aundia, ola, irurei kilo* (etortzen zen zaku handia, hola, hirurogei kilo)...

80: berriki aipatu dugunaren ildo beretik, gauza bera gertatzen zaio *lauretan hoge*i zenbatzaileari ere: *ta man zittion lautan ogeita amar duro* (eta eman zizkion lauretan hogeita hamar duro), *apez tzaar bat beitzen, lautan oeita amar urtetik goittikoa ta arek maten tzun meza* (apez zahar bat baitzen, lauretan hogeita hamar urtetik goitikoa eta hark ematen zuen meza), *lautan oeita amar duro* (lauretan hogeita hamar duro)...

Zubieta eta Saldiaстик mendebaldera, berriz, *laurogei* forma aurkituko dugu: *igual laurogeita zortzi urte do bazittun da urte t'erdi o ola ya il tzela* (igual laurogeita zortzi urte edo bazituen eta urte eta erdi edo hola ja hil zela)...

Puntu honetan ageri diren forma guzietan (*biga, bortz, hiruretan hoge, lauretan hoge...*) baturako balio dute eta egoera formaletan ere erabiltzen ahal dira.

42 Bittorio Lizarragak Saldiasen ere aurkitu izan du *bida*, nahiz ez duen uste Saldiasen ohikoa denik.

43 *Euskaltzaindiaren Hiztegian* ikus daitekeen moduan, *bida* erran arren, euskara batuan *biga* idatzi behar da.

4. MALERREKA ALDEKO MINTZOEN EZAUGARRIAK

(4) Zenbatzaile banatzaileak

Euskaltzaindiak [18. arauan](#) azaltzen duen moduan, zenbatzaile banatzaileak egiteko, **-na** morfema erabiltzen da (*bana, hiruna, hamarna...*), baina Malerrekan, Bertizaranan zein Bortzirietan *i* bokalez akitzen diren zenbatzaileekin **-ra**⁴⁴ erabiltzen da. Erran behar da Euskaltzaindiak ez dituela forma horiek gaitzesten. Zubieta eta Beintza-Labaiendik mendebaldera, ordea, ez da **-ra** banatzailea erabiltzen. Ikus ditzagun zenbait adibide: *otsalla, ta nai zuten aldatu, denari man pisko bana, eun bana do bira* (otsaila, eta nahi zuten aldatu, denei eman pixka bana, egun bana edo bira⁴⁵), *amabi illauteri bira eun* (hamabi hilabeteei bira egun), *ori unelako... bi... pintza bai, bi adarra gaztañanak edo eozein gauza... arbola zaten baitzte... ola, bi... birakuk* (hori honelako... bi... pintza bai, bi adar gatzainarenak edo edozein gauza... arbola izaten baitze... hola, bi... birakoak), *ura erdiyan, ta bertze bi bazterrin, eta bertzia(k) danak biraka-biraka filan* (hura erdian, eta bertze bi bazterrean, eta bertzeak denak biraka-biraka errenkadan)...

(5) Eman eta utzi aditzekin adlatiboa (NORA? / ZERTARA?)

Zuazok aipatzen duenaren arabera, perifrasi batzuetan *eman* eta *utzi* aditzekin inesiboa (NON?) erabili beharrean, adlatiboa (NORA?/ZERTARA?) erabiltzea ohikoa da ekialdeko hizkeretan. Hau da, *eman* eta *utzi* aditzekin, Euskal Herriko zati handi batean, adibidez, *utzi egiten* eta *utzi irakurtzen...* erraten da, baina gure eskualdean, berriz, *utzi egitera* eta *utzi irakurtzera*. Bi formak zuzenak dira eta, hortaz, euskara zainduan erabiltzen ahal dira. Ikus ditzagun hainbat adibide: *utzi bixkot oztutzera* (utzi pixka bat hoztera), *barrika lurrin utzitzera* (barrika lurrean uztera), *utzi pixkot idortzea* (utzi pixka bat idortzera), *etzuten utzitzen yendia kanpun ibiltzera* (ez zuten uzten jendea kanpoan ibiltzera), *ordun etzuten utzitzen espostera re* (orduan ez zuten uzten esposatzera ere), *yatera ez utzi koñaduk* (jatera ez utzi koinatuak)...

Hala ere, Patxi Iñigo euskaltzain urgazle iturendarrak zehazten duen moduan, *eman* eta *utzi* aditzekin ez ezik, *saiatu, atrebitu, lagundu eta jarri*⁴⁶ aditzekin ere adlatiboa erabiltzen da: *enaiz atrebitzen irugarrena erratia* (ez naiz atrebitzen hirugarrena erratera)...

(6) Destinatiboa (NORENTZAT? / NORENDAKO?)

Basaburu Ttikian **destinatiboa** egiteko **-tzat** erabiltzen dela garbi ikus daiteke adibideotan: *bai, bat gariintzat ta bestea maizentzat, bi arri bazeren* (bai, bat gariarentzat eta bestea artoarentzat, bi harri baziren), *guk itten giñun RENFEntzat lana* (guk RENFERentzat lan egiten genuen), *tertzerakuntzat ola bollo koskor batzuk* (hirugarren mailakoentzat hola opil koskor batzuk), *arte bazula an ta itten tzittula kaprestuk eta beorrantzat* (arte bazuela han eta egiten zituela kaprestuak eta behorrentzat), *ebakintzat ere belar klase osto xabal ori pixkot tenplato* (ebakientzat ere belar klase hosto zabal hori pixka bat epeldu)...

44 Patxi Iñigok zehaztu digu gehien erabiltzen direnak *bira* eta *seira* diren arren, *zazpira, zortzira* eta *bedetzira* ere erabiltzen direla.

45 *Euskaltzaindiaren Hiztegian* ikus daitekeen moduan, [bira](#) euskara batuan ere onartua dago.

46 *Ohitu* erran nahi duenean. *Euskaltzaindiaren Hiztegian* ikus daitekeen moduan, seigarren adieran ageri da [jarri](#) aditzak *ohitu* errateko ere balio duela.

4. MALERREKA ALDEKO MINTZOEN EZAUGARRIAK

Hala ere, horiekin batera, Bittorio Lizarragak dio Beintza-Labaienen nahiz Saldiasen horrelakoren bat ere jaso duela: *nire andrindako (nire andrearendako), zuretako da ori, au zuretako da, au zureztat eman dit (zuretzako da hori, hau zuretzako da, hau zureztat eman dit), oeita amasei kilo ola da tamaño politta neretako (hogeita hamasei kilo hola da tamaina polita niretako), pa(r)a zazu bindako bazkaria; ta arratseko, batendako afaria* (para ezazu birendako bazkaria; eta arratserako, batendako afaria)...

Malerreka eta Bertizaranako gainerako herrietara begiratzuz gero, **-tako/-dako** adituko dugu: *illargia(k) badu bere eragiña... badu... neretako* (ilargiak badu bere eragina... badu... niretako), *neretako onddua yaiotzen da kolpin* (niretako onddoa jaiotzen da kolpean), *lizarra zaten tzen azindandako, ardingako zaten giñun lizarra* (lizarra izaten zen aziendarendako, ardiendako izaten genuen lizarra), *gaba gabazkundako, eguna egunazkundako* (gaua gauazkoendako, eguna egunazkoendako), *etzen arendako deus ere* (ez zen harendako deus ere), *aurrendako beinpin bai* (haurrendako behinik behin bai), *moxpelandako belarrak, pareta zaarratan atetzen diren belar gixen batzuk* (ospelarendako belarrak, pareta zaharretan ateratzen diren belar gizen batzuk)...

(7) Prolatiboa (ZERTZAT? / ZERTAKO?)

Euskaltzaindiak bi balio bereizten ditu: [xede](#) eta [ustea](#). Zelaietak (2008: 135) dio *xede*a edo *helburua* adierazteko, Nafarroa gehienez⁴⁷ dagoen **-tako** ezaguna dela Bortzerrietan zein Malerrekan. Ikus ditzagun gure eskualdeko zenbait adibide: *aat(a) eraman erederotako* (harat eraman herederotako), *barrenin ere guatzetako sartu iratzia* (barrenean ere ohatzetako sartu iratzia), *bat artutzen tzun baserritarren in... interpretetako* (bat hartzen zuen baserritarren in... interpretetako), *bedetzi egunez izarrak kontatu eta zein neskakin itten baizun ere ametsa ga... bedetzigarren gabin, arekin, ura andregaitako* (bederatzi egunez izarrak kontatu eta zein neskekin egiten baitzuen amets, bederatzigarren gauean, harekin, hura andregaitako), *ibit tzena ardik itzitzeko biño geio gaztanbera itteko, edo adornotoko* (ibiltzen zena ardiak jezteko baino gehiago gaztanbera egiteko, edo apaingarritako)...

Ustea adierazteko, berriz, Zelaietak (2008: 135) eta Olanok (1998: 136-139) zehazten dute Sunbillan, Malerrekan eta Basaburu Ttikian **-tako** atzizkidun formak ezagunak direla, baina ez Bortziritan, han **-tzat** baita aukera bakarra. Ikus dezagun Urrozen jasotako adibide hau: *zaukaten arrun gaixtotako (zeukaten arrunt gaiztotako)*.

(8) Adlatiboa (NORA?): **-ra** eta **-rat**

Malerreka eta Bertizarana aldean, Baztanen eta Bortziritan baino gutxiago bada ere, adlatiboa (NORA?) egiteko, **-rat**⁴⁸ ere erabiltzen da, nahiz forma nagusia **-ra** den: *sua iñ estratan ta, dena(k) saltatu arat eta unat* (sua egin estratan eta, denak saltatu harat eta honat), *yendia arat yuaten tzen ikustera* (jendea harat joaten zen ikustera), *iñ austen zelik urdamatako giñona orrat kartzen giñun oñez* (irausi zelarik urdamatako genuena horrat ekartzen genuen oinez), *bota mendira eta itten zen pues ya gizendu* (bota mendira eta egiten zen bada ja gizendu), *kanpora ate* (kanpora atera), *ariztikan eultzara ate* (harizetik erlauntzara atera), *botatze zuten bettira* (botatzen zuten beheitira)...

47 Atzizki horren geografia hedaduraz ikus Camino (1997: 387), Ibarra (1995: 388), Ibarra (2000: 106) eta Olano (1998: 136).

48 Forma jakin batzuetan erabiltzen da batez ere: *harat, honat*... Iñaki Caminok azaldu digu Iruñerrian ere horrelakoak erabiltzen zirela.

4. MALERREKA ALDEKO MINTZOEN EZAUGARRIAK

Zubieta eta Basaburu Ttikian, berriz, *-ra*⁴⁹ bertzerik ez dugu aurkituko: *Iruñera yon eta antxe plaza* (Iruñera joan eta hantxe plaza), *exkin bat'tik bertzera begiak* (izkina batetik bertzera begiak), *gu kanpora atea giñen* (gu kanpora atera ginen), *errotatik errira uñutsik yoa nitzen* (errotatik herrira oinutsik joan nintzen)...

Akitzeko, garbi utzi nahi dugu adlatiboa egiteko *-ra* nahiz *-rat* formak erabiltzen ahal direla egoera formalean, baita idatzian ere.

4.2.2 Aditzaren morfologia

Jarraian, aditzaren morfologiarekin zerikusia duten ezaugarriak azalduko ditugu:

(1) Etorkizunean *-ko* eta *-en*

Baztan-Bidasoan etorkizunerako *-ko* atzizkiaz gain, *-n* (eta *-l*) kontsonantez akitzen diren aditzekin *-en* erabiltzen da: *eztakit zemat tzanen tzen* (ez dakit zenbat izanen zen), *zuk mandua ta eamanen diezu* (zuk mandoa eta eramanen diezu), *olatxe yuaren giñen* (holaxe joanen ginen), *Sunbillin igual zanen tzen* (Sunbillan igual izanen zen), *bertze trena izanen tzen seuraski* (bertze trena izanen zen segur aski), *erranen zizun zuri* (erranen zizun zuri)... *Hil* aditzaren kasuan ere, *-go* beharrea, *-en* gehituta egiten dira etorkizuneko aditzak. Ikus ditzagun pare bat adibide: *batzuk osatuko ziren*, *bertzik illen tziren* (batzuk osatuko ziren, bertzeak hilen ziren), *seguraski an illen zirela denak eta alaxe ta il tziren* (segur aski han hilen zirela denak eta halaxe eta hil ziren)...

Horrez gain, Basaburu Ttikian honelako asimilazioak gertatzen dira etorkizuna adieraztean: *emen amaan tzittun beltzak*, *or amaan tzittun txurik* (hemen eramanen zituen beltzak, hor eramanen zituen zuriak), *medikaziomat oo matten izaan zion* (botikaren bat edo ematen izanen zion), *denak goizin do erraan zizuten* (denak goizean edo erranen zizuten), *bi-iru (b)uelta eo iin tzuten* (bi-hiru buelta edo eginen zuten)...

Forma horiekin batera, *-nen > -in* berrikuntza ere aurki dezakegu, Beintza-Labaienen gutxi batzuetan bada ere, Iturendik eta Urroztik ekialderako herrietan maiztasun handiagoz: *etzen aunitz izain biño* (ez zen anitz izanen baina), *in zain zioten [em]endik eo andikan abisatu* (egin izanen zioten hemendik edo handik abisatu), *orregatik bota zain dizute kotxia ugaldere* (horregatik bota izanen dizute autoa ugaldere), *astaleguntako ortzila batin apezak errain tzun* (astelegunetako ortzirale batean apezak erranen zuen), *bertze batzuk igual errain dute bertze izen bat* (bertze batzuek igual erranen dute bertze izen bat), *orrek zapore gutti main dio* (horrek zapore gutxi emanen dio), *gutixio emain zioten* (gutixego emanen zioten), *iru kilo odolki yain zittula* (hiru kilo odolki janen zituela)...

Basaburu Ttikian, aldiz, bertze asimilazio bat gertatzen da etorkizuneko formetan eta *izaan* (izanen), *oon* (egonen)... modukoak erabiltzen dira. Ikus ditzagun zenbait adibide: *ze zaan [gi]ñen*, *ogei (i)txe do ogeita amar o ola zaan giñen* (zer izanen ginen, hoge etxe edo hogeita hamar edo hola izanen ginen), *medikaziomat oo matten izaan zion* (medikazioren bat edo ematen izanen zion), *otordu atean zopa earra yaan tziñun* (otordu batean zopa ederra janen zenuen), *nik emaan dizut* (nik emanen dizut)...

Behin baino gehiagotan azaldu dugun moduan, Nafarroan *-n* eta *-l* kontsonantez akitzen diren aditzekin etorkizuna egiteko *-en* erabil daiteke, onartua dagoelako eta *-go* bezain zuzena delako.

49 Bittorio Lizarragak azaldu digu Basaburu Ttikian ere erakusleekin *-rat* erabiltzen dela: *honata*, *horrata*, *ha(r)ata*...

4. MALERREKA ALDEKO MINTZOEN EZAUGARRIAK

(2) Izandu, egondu...

Partizipio analogiko batzuk dira nagusi gure eskualdean, hau da, partizipioaren gainean bertze partizipio marka erantsen zaie: *izan+du, egon+du...* Ikus ditzagun adibide zenbait: *beti aparte zandu da* (beti aparte izan da), *mingorria... e... izandu zela ta onara bialdu zutela* (mingorria... e... izan zela eta hona bidali zutela), *Zuit(a) ko jituk, or, beti zandu zeren* (Zubietako ijitoak, hor, beti izan ziren), *gaztina maestra egondu zen or* (gazteena maistra egon zen hor), *emen eondu nitzen goseak* (hemen egon nintzen goseak), *entzun izando nion, gore atautxik berak esaten zun* (entzun izan nion, gure atautxik berak esaten zuen), *gero bizittu dire beti, goiko erri auen kontura* (gero bizi dira beti, goiko herri hauen kontura), *itten da... etzantu in bar dozo, beste aiñekun itten da korritu* (egiten da... etzan behar duzu, bertze gainerakoan egiten da korritu)...

Zubietan, adibidez, ohikoa da *zanttu* modukoak aditzea: *an zanttu zerenak* (han izan zirenak), *Zubitan... zanttu dela ere eztakitt* (Zubietan... izan dela ere ez dakit)...

Partizipio analogiko horiek ezin ditugu testuinguru formalean, idatzian batez ere, erabili. Aski da *Euskaltzaindiaren Hiztegian* begiratzea ikusteko aditz horiek ez daudela onartuak: [egondu](#), [izandu](#), [bidaldu](#)...

(3) Utzitzen, yarritzen, moztutzen...

Hagitz ohikoa da eskualde guzian *utzitzen, yarritzen, moztutzen, sartutzen...* gisako aditz pleonastikoak aditzea. Ikus ditzagun hainbat adibide: *ordun ya utzitzen zo* (orduan ja uzten duzu), *eun batzu utzitzen ttugu biamun artiño* (egun batzuk uzten ditugu biharamun arte), *barrika lurrin utzitzera* (barrika lurrean uztera), *ixkiñin yarrizn tziren* (izkinan jartzen ziren), *gero oi yositz'tzion gaiñekuri* (gero hori josten zitzaion gainekoari), *illik ta yaus ez baizizuten moztutzen* (ileak eta deus ere ez baitzizuten mozten), *aixturrakin moztutzen zuten* (aizturrekin mozten zuten), *letanik sartutzen zittun* (letaniak sartzen zituen), *emakumia elizin sartutzen tzen* (emakumea elizan sartzen zen), *utzi bixkot oztutzera* (utzi pixka bat hoztera), *geo biamun artiño utzi ta... oztutzen iruki* (gero biharamun arte utzi eta... hozten eduki), *beiñ ikusten bazu ezta azitzen, oaiñ, balitteke... kus gabe azitzia* (behin ikusten baduzu ez da hazten, orain, baliteke... ikusi gabe haztea)...

Berez euskaraz aditz horiek *utzi, jarri, moztu, sartu, hoztu...* dira, ez **utzitu, *jarritu, *moztutu, *sartutu, *hoztutu*, eta abar. Hortaz, kalean, testuinguru informalean erabiltzen ahal dira, baina eremu formalagoetan, forma egokiak baliatu behar ditugu.

(4) Aditz izen bustiak

Aditz izen bustiak Bidasoalde guzian ohikoak dira, nahiz Malerreka aldean erabilera ez den hain indartsua. Hori dela eta, *-ten, -tea...* dagoen tokian, *-tten, -ttea...* gisakoak erabiltzen dira, baina ez sistematikoki: *ara amtten eminguk errotara aman* (hara eramaten hemengoak errotara eraman), *jentillek ez ematten nonbatt e garii do iritteko* (jentilek ez ematen nonbait ere garia edo ereiteko), *meza matten ai zela saingak aittu men zittun eliz atarin* (meza ematen ari zela saingak aditu omen zituen eliza atarian), *arrautzik ere ematten tzeren* (arrautzak ere ematen ziren), *mandoakin eamatten zittuen* (mandoarekin eramaten zituen), *ni pisun eotte nitzen* (ni pisuan egoten nintzen), *matten zittozten arrastan gantxigorak* (ematen zizkieten arratsetan gantxigorak)...

Bittorio Lizarragak dio Basaburu Ttikian eta Leitzan aditz horiek sistematikoki bustitzen direla: *eotten* (egoten), *ematten* (ematen) eta *eamatten* edo *eamitten* (eramaten). Horrez gain, *izatten* (izaten) ere jaso

4. MALERREKA ALDEKO MINTZOEN EZAUGARRIAK

du Beintza-Labaienen. Iñaki Caminok azaldu digu *-iten* aditz izenean zen *i* zaharraz gelditu den arrastoa dela: *egoiten, emaiten* edo *eramaiten*⁵⁰.

Garbi utzi nahi dugu bustidura horiek ahozkoari dagozkiola, eta, hortaz, ezin direla horrela idatzi.

(5) Ahalera

Baztan-Bidasoan ahalera adierazteko **-t(z)en ahal** erabiltzen da nagusiki: *be(r)atxuri pikorrek osuk botzen al ttiozo* (baratxuri pikorrek osoak botatzen ahal dizkiozu), *zenbat irauten al zun galdetu zio... nai zion* (zenbat irauten ahal zuen galdetu zio... nahi zion), *bedetzi illaubte pasatuta yuaten al tziren* (bederatzi hilabete pasatuta joaten ahal ziren), *urrutira ezautzen al tzu* (urrutira ezagutzen ahal duzu), *etzate emendikan bertze nausigana muitzen al* (ez zarete hemendik bertze nagusiengana mugitzen ahal), *or itten al tzu lo trankill* (hor egiten ahal duzu lo trankil)...

Horrez gain, bertze hauek ere aurki ditzakegu: *an geldittu zela itxera yuan ezattekela* (han gelditu zela etxera joan ez zitekeela), *ez datteke eon* (ez daiteke egon), *ezatteken yaus ere erein* (ez zitekeen deus ere erein), *itxetik ezatteken ateri* (etxetik ez zitekeen atera), *ez men tteke musuik man* (ez omen daiteke musurik eman)...

Beraz, testuinguru formalean ahalerazko formak egiteko *-t(z)en ahal* onartua dago eta erabiltzen ahal da, baiezko nahiz ezezko perpausetan: *joaten ahal naiz, ez naiz joaten ahal...*

(6) Lehenaldian *orainaldiko aditza + n*

Iraganeko adizkiak egiteko, iraganeko adizkiekin batera, *orainaldiko aditza + n* egitura duten aditzak ere aurkituko ditugu eskualde guzian: *in tzaitten bat erori ugaldera neri* (egin zitzaidan bat erori ugaldera niri), *gomeni zaigun geouneri egittia* (komeni zitzaigun geroni egitea), *yarria nagon emen* (jarria nengoen hemen), *gurutzi ari musu matten tzaion* (gurutze hari musu ematen zitzaion), *iduitzen zaiten* (iruditzen zitzaidan)...

Garbi utzi nahi dugu egoera informalean adizki horiek erabili arren, hizkera zaindu behar dugun egoera formalean baturako onartutako aditzak erabili behar direla: *nengoen, zitzaidan...* eta *ez nagon, zaiten...*⁵¹

(7) Bigarren pertsona singularrean *y-*

Euskara nafarraren bereizgarria da bigarren pertsona singularrean *y-* garatu izana, hau da, *haiz* adizkiari, adibidez, hasieran *y-* gehitzen zaio eta *yaiz* erraten da. Ezaugarri hori eskualde guztian ikusiko dugu, baina Leitzañ, Areson eta Aranon ez: *ai yaiz itxia itten*, *miño eztuk auniz probextu bar* (ari haiz etxea egiten, baina ez duk anitz aprobetxatu behar), *ez yaiz ilta re ez yaiz sartuko* (ez haiz hilda ere ez haiz sartuko), *aitz ona zaten yunen* (hagitz ona izaten huen), *oain miño reljio geigo yun ordun doikabe* (orain baino erlijio gehiago huen dudarik gabe)...

Yaiz moduko formak ahoz egoera informalean egokiak dira, baina idatzian ez.

50 Goizuetan ere halaxe egiten dute.

51 Bittorio Lizarragak azaldu digu Basaburu Ttikiko Ezkurran bereziki (Eratsunen txandaka) *ginen* izan beharrean, *gintzen* analogikoa erabiltzen dutela.

(8) Aditz laguntzaileetan *de-* eta *di-* galdu

Aditz laguntzaileetako *de-* eta *di-* atalak **galtzen dira**, jarraian ikus daitekeen bezala: *Erramo egunin bedektzen ttugu* (Erramu egunean bedekintzen ditugu), *ur bedekintukin eo... alorrin... beti patukatuko ttugu... orain ezttugu patzen* (ur bedekintuarekin edo... alorrean... beti paratukako ditugu... orain ez ditugu paratzen), *patzen ttuzu an ezur batzuk* (paratzen dituzu han hezur batzuk), *ez ttugu txerrin ertzik garbitzen, eosi itten ttugu* (ez ditugu txerriaren hertzeak garbitzen, egosi egiten ditugu), *urte guzin sartzen ttuu uliun* (urte guzian sartzen ditugu oliotan), *ortzatic nabaitzen da zenbat urte ttun* (hortzetatik nabaritzen da zenbat urte dituen), *nik nai ttut ibilli* (nik nahi ditut ibili), *kostillak eta oik itten ttute erreta yan* (saiheskiak eta horiek egiten dituzte erreta jan)...

Ezaugarri hori ere ahozkoari dagokio, beraz, testuinguru formalean ezin da horrelakorik erabili eta aditzak osorik eman behar dira.

(9) NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK nahasi

Euskara nafar gehienez NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK sailak nahasten dira, hau da, NOR-NORK aditzak behar diren tokian, NOR-NORI-NORK sailekoak erabiltzen dira, eta alderantziz, honako adibideotan ikusiko dugun moduan: *kartzen banaute giltxaurrak* (ekartzen badizkidate intxaurrak), *manen zattugu onenbertze diru* (emanen dizugu honenbertze diru), *in tzidaten eraman Ultzamara* (egin ninduten eraman Ultzamara), *izautuko ziaten andi(k) torrita* (ezagutuko ninduten handik etorrita), *ruedakin bai... bein galdu ginttun... guardik arraptu baitziuten* (gurpilekin bai... behin galdu genituen... goardiek harrapatu baikintuzten), *bedetzi urte nittunin do ola il tzen atautxi ta oroitzen naiz amak igorri zitela* (bederatzi urte nituenean edo hola hil zen atautxi eta oroitzen naiz amak igorri ninduela)...

Aditz horiek testuinguru informalean erabiltzen dira eta hala jarraituko du, baina argi izan behar dugu testuinguru formalean jakin behar dugula bereizten eta formak egoki erabiltzen.

(10) Komunztadurarik ez datiboa (NORI) dagoelarik

Datiboarekiko (NORI) komunztadura hautazkoa da Nafarroako ekialdean eta Ipar Euskal herri gehienez. Hau da, NORI dagoenez ez da komunztadura edo konkordantzia hori beti egiten eta hori Ipar Euskal Herritik hurbil dauden eskualdeetako ezaugarri bat da. Gure eskualde guzian aurki ditzakegu horrelako adibideak, nahiz Zubietatik goiti gero eta ahulagoa den ezaugarri hori.

Honatx zenbait adibide: *airi deneri barrendik denak kentzen ttizte* (haiei denei barrendik denak kentzen dizkiete), *zu(k) maten bazu neri bertze duro erdi bat, nik berrizen areri patuko ttiot bertsuk* (zuk ematen badidazu niri bertze duro erdi bat, nik berriz hari paratuko dizkiot bertsoak), *ta guri aitzen ziren oiuka andik* (eta guri aritzen zitzaizkigun oihuka handik), *orduaz etzen gustatzeri begitzen* (orduaz ez zitzaion gustatzeari begiratzen), *zuk matte duzu neri?* (zuk maite nauzu?), *irugarren kintuari tiratu zen berriz* (hirugarren kintoari tiratu zitzaion berriz), *eztute geigo begituko zuri* (ez dizute gehiago begiratuko zuri), *uste zun gure osabak areri ai zela erraten* (uste zuen gure osabak hari ari zitzaiola erraten), *abixtu zuten okeri, foralari* (abisatu zieten hauei, foralei)...

Behin eta berriz azaldu dugun moduan, egoera formalean baturako onartuta dauden adizkiak erabili behar direla argi utzi nahi dugu.

4. MALERREKA ALDEKO MINTZOEN EZAUGARRIAK

(11) *-ki* aditz atzizkia

Koldo Zuazok dio *-ki* aditz atzizkia Nafarroa gehiengan, Gipuzkoako ipar-ekialdeko zenbait hizkeratan (bereziki Irunen eta Hondarribian), Lapurdin eta Nafarroa Beherean erabiltzen dela. Morfema hori trinkoen tokian eta harridura perpausetan erabiltzen da batez ere.

Patxi Iñigok, Patxi Salaberrik eta Juan José Zubirik (1995:284) argitaratutako "[-ki aditz-atzizkiaren gainean](#)" izeneko artikuluan azaltzen dute morfema horrek hiru erabilera dituela:

1. Aditz trinkoen kasuan esaldi bat **hanpatu edo enfasia** eman nahi diogunean *-ki* erabiltzen da. Hau da, "*Galtzerdiak kajoiaren barnean dira*" esaldia hanpatu nahi badugu, *-ki* atzizkia erabiliz egiten ahal dugu: "*Galtzerdiak kajoiaren barnean izaki!*".
2. Forma trinkoaren ordez aspektu puntukaria aditzera emateko balio duena: *ibilki naiz* (nabil), *eramaki nuen* (neraman).
3. Agurtu edo diosal egiteko ibiltzen duguna: *zer, egoki?* (zer, bazaudete?) edo *zu ere ariki, e?* (zu ere ari zara, e?)

Artikulu horretan, gainera, gure eskualdean *-ki* morfemaren erabilera zehazten dute, honako pasarteotan ikus daitekeen moduan:

Ezkurran *izake* (< *izaki*), *jakinke* (< *jakinki*) eta *egoke* (< *egoki*) ibiltzen dituzte, baina ez puntukari eta ez diosaltzat; **Eratsunen** *egoki*, *ariki*, *helduki*, *ibilki* eta *jakinki* segurutzat jotzen ditu gure informatzaileak, eta *joaki* zalantzazkotzat. Erabilerari doakionez, **-ki** Eratsunen hanpatzailea da, baina ez puntukaria, eta diosaltzat ere franko gutxi ibiltzen bide dute. **Labaienen** *ariki*, *egoki*, *helduki* eta *ibilki* erabiltzen dituzte diosal egiteko, eta horiez gainera *jakinki* ere bai, hanpadura adierazteko; **Saldiasen** *egoki*, *ariki*, *helduki* eta *ibilki* erabiltzen dituzte, beti hanpadura adierazteko, ez diosal gisara; bigarren modu honetara erabiltzea Labaiengotzat jotzen dute Saldiasen.

Malerrekan Zubietako informatzaileak **-ki** puntukari gisa ez du ezagutzen; diosal egiteko *ariki*, *egoki*, *helduki* eta *ibilki* seguruak dira, eta *joaki* zalantzazkoa; hanpadura markatzeko *ariki*, *egoki*, *helduki*, *ibilki*, *izaki*, *jakinki* eta *joaki* ibiltzen ditu. *Ekarki* eta *eramaki* ez ditu erabiltzen, baina ez ditu txartzat jotzen. **Iturenen** ere ez dute puntukaritzat ibiltzen; baina bai diosal egiteko *-ariki*, *egoki*, *helduki*, *ibilki* eta gutxiago *joaki*- eta hanpadura aditzera emateko *-ariki*, *egoki*, *ekarki*, *eramaki*, *ibilki*, *izaki*, *jakinki*, *joaki*-. **Donamarian** Iturenen bezal-bezala erabiltzen dute, *ekarki* zalantzan jartzen duten arren; gaitzetsi, halere, ez dute egiten; **Oizen** aurreko bi herrietan bezala ibiltzen dute, bai eta **Urrozen** ere. **Donezteben** ere Iturenen bezala ibiltzen da **-ki** aditz-atzizkia; Sunbillan hanpadura adierazteko *-ariki*, *egoki*, *ekarki*, *eramaki*, *helduki*, *ibilki*, *izaki*, *jakinki* eta *joaki*- eta diosal egiteko *-ariki*, *egoki*, *helduki*, *ibilki*, *joaki*- ibiltzen dute, baina ez puntukari gisa.

Jarraian, guk Basaburu Ttikian bildutako hainbat adibide ageri dira: *kotxia elduki* (autoa helduki), *guk e[z] xakinki*⁵² (guk ez jakinki), *mantso elduki* (mantso helduki), *bi anaiak yoaki* (bi anaiak joaki), *nik exakinki* (nik ez jakinki), *itsua izaki* (itsua izaki), *ez izaki daus ere* (ez izaki deus ere), *dena su matten aiki* (dena su ematen aiki), *leertu izaki ta* (lehertu izaki eta), *pagatu nik izaki ordun* (pagatu nik izaki orduan), *zakurrek yaten aiki* (zakurrak jaten aiki), *burugorra izaki* (burugogorra izaki)...

52 *Ez jakinki* erratean, lekuko anitzek *exakinki* edo *es yakinki* antzeko zerbait erraten dute. Patxi Iñigok azaldu zigun moduan, bukaerako [z]-ren ondotik [y] heldu denean, z > s bihurtzen delakoz, batzuetan [n] heldu denean egiten den bezala: *noisnai* (noiznahi), *asnai* (aznahi)...

4. MALERREKA ALDEKO MINTZOEN EZAUGARRIAK

Akitzeko, Malerreka eta Bertizaranako gainerako herrietan jasotako adibide zenbait ere gehitu nahi izan ditugu: *bidian yuaki ta sorgiña ate* (bidean joaki eta sorgina atera), *basoa ate ziola e... apuruan egoki... itteko, eta, emagiña bear zula* (basora atera zuela e... apuroan egoki... egiteko, eta emagina behar zuela), *ta gero aurdun eoki* (eta gero haurdun egoki), *eta arek ez yakinki ari itten andrik bezala* (eta hark ez jakinki haria egiten andreak bezala), *apez batek yakinki nola itten tziren* (apez batek jakinki nola egiten ziren), *iñork ez yakinki nor zen* (inork ez jakinki nor zen), *yakinki guk aranztarrek nora tor bar tzuten* (jakinki guk aranztarrek nora etorri behar zuten), *gizona bere makillikin elduki gabaz* (gizona bere makilarekin helduki gauzez), *mengo gaztiak (...)* *betik [g]otti elduki* (hemengo gazteak beheitik goiti helduki)...

(12) Eduki

Eduki aditza Zubietan eta Basaburu Ttikian gainerako herrietan baino maiztasun handiagoz erabiltzen da, bertzeetan *dut, dugu...* modukoak erabiltzen baitira batez ere. Ikus ditzagun hainbat adibide: *bere itxian nola zauken alaba* (bere etxean nola zeukan alaba), *an dauka arri aundi bat zuri gañera botzeko* (han dauka harri handi bat zuri gainera botatzeko), *au exur au ola gixena badauke* (hau hezur hau hola gizena dauka), *miño dauke* (baina dauka), *mandoa zartu men tzaukin eta esan omen tzion* (mandoa zahartua omen zeukan eta esan omen zion), *errial zillar ura altxatuta nauken* (erreal zilar hura altxatua neukan), *malizi asko daukizu* (malizia handia daukazu), *kusi bar digu onek ze sabiduria dauken gizon unek* (ikusi behar diagu honek zer jakituria daukan gizon honek), *urte bat daukat konfestu nizela* (urte bat daukat konfesatu nintzela)...

Bi moduak onartuta daude eta zuzenak dira, hau da, berdin-berdin erabiltzen ahal dugu *nik daukat* edo *nik dut*.

(13) Tzirin

Tzirin gisako adizkiak adituko ditugu Beintza-Labaien eta Zubietatik Leitza aldera: *an beratze maizirin* (han beratzen baitziren), *ur berue botiz garbitzn tzirin* (ur beroa botaz garbitzen ziren), *yon tzirin bee familikin* (joan ziren bere familiarekin), *beratzen tzirinin, ateri ta txera (e)karri ta idortzen tzi(r)inin garbatu* (beratzen zirenean, atera eta etxera ekarri eta idortzen zirenean garbatu), *aik zaten baitzirin, apezak zatn baitziuzten zerbitzirik* (haiek izaten baitziren, apezek izaten baitzituzten zerbitzariak), *ofrendak... bedeetzi opill eraam bar zaten tzirin elizera* (ofrendak... bederatzi opil eraman behar izaten ziren elizara), *azpiko ek txurik zatn tzirin leno, gerrin lotzen tzirinak* (azpiko haiek zuriak izaten ziren lehenago, gerrian lotzen zirenak), *zer(a) urik etzirin ibiltzen* (zera horiek ez ziren ibiltzen)...

Adizki horiek ahozkoari dagozkio eta gainerako aditzekin ikusi dugun moduan, egoera formalean onartutako aditzak bertzerik ezin direla erabili jakin behar dugu.

(14) Tere/dere

Tere/dere moduko adizkiak erabiltzen dira batez ere Zubietatik mendebalderako herrietan: *huri itte bado eztere bustitzen* (euria egiten badu ez dira bustitzen), *oaiñ ee izaan dere* (orain ere izanen dira), *oik sorgiñak dere* (horiek sorginak dira), *zaten dere gero illun batzuk, ez polittak* (izaten dira gero ilun batzuk, ez politak), *yotzen deren ezkill urikin orduk tokatzen badere* (jotzen diren ezkil horiekin orduak jotzen badira), *atzazkaletan olako pintta batzuk atetzen dere* (azazkaletan holako orban batzuk ateratzen dira), *itxeko kontuk itxin eduki*

4. MALERREKA ALDEKO MINTZOEN EZAUGARRIAK

bar tzaten dere (etxeako kontuak etxean eduki behar izaten dira), *tomate potik nola zatn dere ola* (tomate poteak nola izaten diren hola), *ala dere orik ere* (hala dira horiek ere), *gero artan busti ta ateetzen dere zopak* (gero hartan busti eta ateratzen dira zopak)...

Aurreko puntuan erran dugunaren ildo beretik, ahozkoan erabiltzen diren forma horiek ezin ditugu testuinguru formalean erabili.

(15) Partizipioetan *-nta* erabili

Gure eskualdean⁵³ bukaeran **sudurkaria** (*-n* normalean) **duten aditzen partizipioek *-ta* hartzen dute**, ez *-da*: *etzanta baldin badaude agudo uriya* (etzanda baldin badaude, agudo euria), *nozpatere gizon arek nolabait tiru manta do il zun* (noizbait ere gizon hark nolabait tiro emanda edo hil zuen), *an, etzanta* (han, etzanda), *su inta re bai* (sua eginda ere bai), *diru emanta lenago* (dirua emanda lehenago), *an erdi yanta re gelditzn tziren* (han erdi janta gelditzen ziren), *iñauti(k) yoanta Garizma* (inauteak joanda Garizuma), *uiek eittekin gatza manta* (horiek egitearekin gatza emanda), *guk baduu emen beitti yoanta borda bat* (guk badugu hemendik beheiti joanda borda bat)...

Ezaugarri hori ahozkoari dagokio eta, beraz, testuinguru formalean *-nda* erabili behar dugula argi izan behar dugu.

(16) *-katu*

Euskaltzaindiaren *Euskararen gramatika*n (2021:1046) azaltzen da Malerrekan, Bortzerrietan, Goizuetan eta Hondarribian, partizipioari *-katu/-ketu* atzizkia gehiturik osatzen dela esperientzia perfektuzko adizkia (*emanketu, etorriketu, ikusiketu, izanduketu...*).

-katu aditz atzizkia anitz erabiltzen da Bortzirietan, adinekoen artean bereziki, nolabait ohitura adierazteko edota noizbait gertatu den zerbaiti erreferentzia egiteko. Gure eskualdean erabilera anitzez ttikiagoa bada ere, adinekoen artean ez da arrotza, baina galbidean da: *oloko batzuk nik aittukatu tut* (holako batzuk nik aditukatu ditut / holako batzuk noizbait aditu ditut), *otsun errestua artukatu men tzun emen elur batkin* (otsoaren arrastoa hartukatu omen zuen hemen elur batekin / otsoaren errestoa noizbait hartu omen zuen hemen elur batekin), *bateri aittukatu zandu nion* (bati aditukatu izan nion / bati noizbait aditu nion), *nik ikusketu dut tellatua... burun patu ta... atetzen* (nik ikuskatu dut teilatua... buruan paratu eta... ateratzen / nik ikusi izan dut teilatua... buruan paratu eta... ateratzen), *eztugu in zandukatu* (ez dugu egin izandukatu / ez dugu inoiz egin)...

Bertizaranan eta Basaburu Ttikian ez dugu holakorik adituko.

(17) *Aditza + gogo*

Aditza + gogo egitura adinekoek baliatzen dute nagusiki *asmoa izan* edo *nahi izan* adierazteko. Bi erataria erabiltzen da, *gogo* osorik erabiliz edota *-go* aditzari lotuta: *i, ze errango ziu?* (hi, ze erran gogo zioagu?), *ta musik... aen erdikin ingo izun ainbertze etxe ta... ordun ok... baliko zuen igual, urre puska arek, e... oainko*

53 Basaburu Ttikian eta Goizuetan ere erabiltzen dela azaldu digu Bittorio Lizarragak.

4. MALERREKA ALDEKO MINTZOEN EZAUGARRIAK

million bat (eta musika... haren erdiarekin egin gogo zituen hainbertze etxe eta... orduan hauek... balioko zuen igual, urre puska hark, e... oraingo milioi bat)...

Ezaugarri hori ongi ulertzea behar-beharrezkoa da bertakoak ez diren eta arestian aipatu ditugun **errango, emango, jango...* moduko formak saihesteko, jende anitzek erabiltzen baititu *erranen, emanen, janen...* beharrean. Argi izan behar dugu gure eskualdean *-n* letraz akitzen diren aditzen etorkizunean *-en* hartzen dutela, eta ez *-go*, erdialdean eta mendebaldean bezala.

Hala ere, egia da karrikan adinekoei *errango* eta *eramango* aditzen ahal diegula, baina kasu horretan ez dira hanka sartzen ari, forma zuzenak baitira horiek; izan ere, ez dute *erranen* eta *eramanen* erran nahi, *erran gogo* edo *erran nahi* eta *eraman gogo* edo *eraman nahi* baizik. Garbi utzi nahiko genuke *jango dut* ahozkoan bertzerik ezin dela erabili, idatzian forma osoa eman behar baita: *jan gogo dut*.

(18) Ezezko perpausetan ordena aldatu

Malerreka eta inguruko herrietan ohikoa da *ezin* partikula erabiltzean lehenbizi aditz nagusia agertzea eta gero aditz laguntzailea, jarraian ikus daitekeen moduan: *ezin aguantu dut* (ezin dut aguantatu), *aunitz geigo ezin bildu dut* (anitz gehiago ezin dut bildu), *ezin kontu zion* (ezin zion kontu), *geldirik eziñ egon zara* (geldirik ezin zara egon), *elurrakin ezin alletu zera* (elurrarekin ezin zara ailegatu)...

Iñaki Caminok azaldu digu hori hurrenkera zaharra dela eta orain egiten duguna, hau da, parentesi artean dagoena, ondotik sortu den aldaketa dela.

Halere, bertzelako formak, aldaketa dutenak, ere erabiltzen dira: *xerri bat iñaus iltzen baduzu ezin da konserbatu* (zerri bat irausi hiltzen baduzu, ezin da kontserbatu), *apezak libro idekia bazaukan, ordun sorgiña(k) ezin ziren muittu* (apezak liburua irekia bazeukan, orduan sorginak ezin ziren mugitu)...

Bi moduak zuzenak dira euskara batuan eta biak erabiltzen ahal dira.

4.3 Sintaxia

Agerikoa den moduan, 4.3 puntuak ez ditu ezaugarri anitz, aldaketa gutxien izaten duen atala izaten baita normalean sintaxiarena, baina horrek ez du erran nahi pisu ttikiko ezaugarriak direnik, alderantziz baizik. Jarraian, gure eskualdeko forma bereziak azalduko ditugu.

(1) Denbora (NOIZ?) eta modu (NOLA?) perpausak

Denbora (NOIZ?) eta modu (NOLA?) perpausetan *-(e)larik* erabiltzen da nagusiki Urroz eta Iturendik ekialdera dauden herrietan: *bidia i(n) tzelik, karretera i(n) tzelik ere bai* (bidea egin zelarik, errepidea egin zelarik ere bai), *biño gero akittu zelik ura, ordun segidan nai zuten* (baina gero akitu zelarik hura, orduan segituan nahi zuten), *goiz batez olluak ate(a) zirelik kanpura, segidun, momento batez, santiamen batein in tzittun bortz il* (goiz batez oiloak atera zirelarik kanpora, segituan, momentu batez, "santiamen" batean egin zituen bortz hil), *denbora kanbioa bazelik, goibeltzen zelik et(a) ola* (denbora kanbioa zelarik, goibeltzen zelarik eta hola)...

4. MALERREKA ALDEKO MINTZOEN EZAUGARRIAK

Horrekin batera, dena den, **-(e)nean** ere aditzen ahal dugu eskualde guzian, baina bereziki Zubietan eta Basaburu Ttikian, bertako forma nagusia baita denbora eta modu perpausak egiteko: *ura zandu zunin yuan zen medikungana* (hura izan zuenean joan zen medikuarengana), *ta guatzea in bar tzenin itten tzen bi zolo aitan sartu eskua* (eta ohatzea egin behar zenean egiten zen bi zulo haietan sartu eskua), *erditze(n) dienin ya itten dire ardi* (erditzen direnean ja egiten dira ardi), *kap oi idortzen tz(a)ionin patzen tzu biarna* (kapa hori idortzen zaionean paratzen duzu bigarrena)...

Dena den, denbora adierazteko **-tzeekin** ere adituko dugu noiznahi, baina jakin behar dugu forma osoa **-(t)zearekin** dela, eta forma horrek idatzirako eta eremu formalerako ere balio duela. Ikus ditzagun hainbat adibide: *auzalan(e)ako ezkillen esaten tzaio. Eta... ta ura aitzekin denak Erriko Itxe... an da Erriko Itxean* (auzolanerako ezkillen esaten zaio. Eta... eta hura aditzearekin denak Herriko Etxe... an eta Herriko Etxean), *eta itxera alletzekin, ya aspertzen tziren gu ondotikan, ta ordun eman sosa* (eta etxera ailegatzearekin, ja aspertzen ziren gu ondotik, eta orduan eman sosa), *ordun, gerra aintziñin ta oiek... gero ya, gerra eltzekin, ya akittu ziren* (orduan, gerra aitzinean eta horiek... gero ja, gerra heltzearekin, ja akitu ziren), *astuk ura ondora tortzekin ezpen tzun pausorik maten* (astoak hura ondora etortzearekin ez omen zuen pausorik ematen)...

Ez gure gure eskualdean erabiltzen den errepikapenean oinarritutako bertze egitura hau aipatu gabe utzi nahi, galbidean baita: *erori bazen erori* (erori zenetik), *ezkondu bazen ezkondu*, *etzun besta geiorik in* (ezkondu zenetik, ez zuen besta gehiagorik egin)...

Laburbilduz, puntu honetan ikusi ditugun forma guziek idatzirako ere balio dute, beraz, *joan nintzanean*, *joan nintzelarik*, *joatearekin*, *joan bazen joan...* modukoak berdin-berdin erabiltzen ahal ditugu egoera formalean.

(2) Perpaus konpletiboak

Eskualde guzian **uste** aditz nagusia delarik eta aditz laguntzailerik gabe dagoelarik, perpaus **konpletiboa** egiteko **-(e)n** erabiltzen da, jarraian ikus daitekeen moduan: *eta nik uste den, or, Yoanin zun aizpa* (eta nik uste den, hor, Joanean zuen aizpa), *nik uste esposatu zen trajikin entertu zuten* (nik uste esposatu zen trajearekin lurperatu zuten), *nik uste amabi urtetan zaten den, ez?* (nik uste hamabi urtetan izaten den, ez?)...

Uste [+ *edun*] aditzarekin batera aditz laguntzailea ageri delarik, aldiz, **-(e)la** erabiltzen da, jarraian ikusiko dugun moduan: *uste dut ez tirela agotiak* (uste dut ez direla agotak), *ez nun uste alaku(a) zela* (ez nuen uste halakoa zela), *guk uste genuen kontrabandun zela* (guk uste genuen kontrabandoan zela), *uste dut aunitz itxetan etzutela patzen ez zapatik* (uste dut anitz etxetan ez zutela paratzen ez zapatarik), *uste ot eunez ibiltzen tziela* (uste dut egunez ibiltzen zirela), *beti ola errezten ttu, uste du ongi errezten dula, ta segi ortan* (beti hola errezatzen ditu, uste du ongi errezatzen duela, eta segi horretan)...

(3) Perpaus kontzesiboak

Perpaus kontzesiboak egiteko, **-ba-... ere** eta **-ta ere** egiturekin batera, **nahiz** ere erabiltzen da: *primera erran bearrin primerisimaku erraten tzen, naiz igualtsua izan, biño, primerisima* (“primera” erran beharrean “primerisimakoa” erraten zen, nahiz igualtsua izan, baina, “primerisima”), *nik ezautu nun, naiz ni ttikia nintzen* (nik ezagutu nuen, nahiz ni ttikia nintzen), *antxuak dire, pues, denak, naiz izan urruxa, arikua, pues, denak* (antxuak⁵⁴ dira, bada, denak, nahiz izan urruxa, aharikoa, bada, denak), *entierriku lenoo difuntuk ekartzen*

54 [Antxu](#) urtebeteko arkume edo bildotsari deitzen zaio.

tziren bizkarrin artuta, naiz baserri apartetikan etor... ekartzen tziren bizkarrin artuta (entierorako lehenago difuntuak ekartzen ziren bizkarrean hartuta, nahiz baserri apartetik etor... ekartzen ziren bizkarrean hartuta), *pixkot tostatzan baziñun axala braxakin ta istorio, gero naiz autsekin tapatu ta garbixoo ateatzen tzen* (pixka bat txigortzen bazenuen azala brasarekin eta istorio, gero nahiz hautsarekin tapatu eta garbixeago ateratzen zen)...

Ikus daitekeen moduan, gure eskualdean *nahiz* bakarrik erabiltzen da, *eta* gabe. Egoera formaletan puntu honetan azaltzen diren forma guztiak erabiltzen ahal dira.

(4) Kausazko perpausak (ZERGATIK?)

Kausazko perpausak eratzeko gure eskualdean **bait-** eta **-lako**z erabiltzen dira. Lehebizikoari dagokionez, *bait-* bidez eratzen dira kausazko perpaus anitz: *koñak ezpaitzen agitz ibiltzen...*, *ta gero, zera(k) gutigo, este, bertze... oraingo edari modernu ori... txanpaña!* (koñaka ez baitzen hagitz ibiltzen..., eta gero, zerak gutxiago, este, bertze... oraingo edari moderno hori), *anekin itten tzuten morterua, zapa-zapa-zapa... ordun ezpaitzen makiñaik* (hankekin egiten zuten morteroa, zapa-zapa-zapa... orduan ez baitzen makinari), *bazka aitza ta gaztaña izaten baitzen ordun franko politte*⁵⁵ (bazka haritza eta gaztaina izaten baitzen ordun franko polita), *ta ala etzen lertzen, gañekoan bakizu, beotasun orrekin eo lertu itten baitzen* (eta hala ez zen lehertzen, gainerakoan badakizu, berotasun horrekin edo lehertu egiten baitzen)...

Kausazko perpausak eratzeko **-lako**z forma ere baliatzen da, baina ez **-lako** edo **-lakotz**: *Ittuna deitzen da Ittun... itsua dagolakoz* (Ituren deitzen da Itu... itsua dagoelakoz), *sekretariu ura erittu do zartu o jublatu zelakoz, eztaki[t] zer, etorri zen bertze bat ordezeko* (sekretario hura eritu edo zahartu edo jublatu zelakoz, ez dakit zer, etorri zen bertze bat ordezeko), *itten ziguten irri eskolan... ezkanakigunkoz*⁵⁶ *erdaraz* (egiten ziguten irri eskolan... ez genekielakoz erdaraz), *bi ollasko ederrak bigali zatan*⁵⁷ *bestetako zorra zutelakoz eta ez nue... eskatzen ez nuelakoz* (bi oilasko eder bidali zizkidan bestetako zorra zutelakoz eta ez nue... eskatzen ez nuelakoz), *eztakit etzakilakoz edo... ez zul... ez zuloakoz egin nai* (ez dakit ez zekielakoz edo... ez zuel... ez zuelakoz egin nahi)...

Gure eskualdeko hizkera erabilia idatzi nahi dugunean ere, egoera formaletan erabiltzen ahal dira *bait-* nahiz **-(e)lako**z.

(5) Helburuzko perpausak (ZERTARAKO?)

Helburuzko perpausak egiteko **-ko** erabiltzen da: *erril zillar ura amak o(g)ia eosteko kendu ziten* (erreal zilar hura amak ogia erosteko kendu zidan), *ya akabillan betti zeliken, ziri batekin eiten zen azpitiken xoluk in tarteka-tarteka... a, ori ya... itteko da despeida ongi* (ja akabailan beheiti zelarik, ziri batekin egiten zen azpitik zuloak egin tarteka-tarteka... a, hori ja... despedida ongi egiteko da), *ordun eldu zen berreun dolar irauzteko zera zen, kontrata ala giñun, eta, berreun dolarrekin eldu zen emengo irauzitikan doble* (orduan heldu zen berrehun dolar irabazteko zera zen, kontrata hala genuen, eta, berrehun dolarrekin heldu zen hemengo

55 Oierregiko adibidea da.

56 Espero beharko genukeen forma *ezkanakigulakoz* litzateke, baina badirudi lekukoak *ezkanakigun* adizkiari kausazko morfema gehitzean sortutako emaitza dela.

57 Baztanekin harreman estua zuen lekukoak. Horregatik, garbi utzi nahi dugu hori ez dela Malerrekako forma, Baztan aldekoa baizik.

4. MALERREKA ALDEKO MINTZOEN EZAUGARRIAK

irabazitik doble), *iñork nai etzitunak txorizuk itteko Frantzira eraaten zuzten* (inork nahi ez zituenak txorizoak egiteko Frantziara eramaten zituzten)...

(6) *Al* galde partikula

Basaburu Ttiki aldean ohikoa da galderetan *al* partikula erabiltzea, Baztan-Bidasoan ez bezala. Berez partikula horrek ez du erranahi berezirik eta euskalkiekin lotura du, ezaugarri hori ere Gipuzkoatik hurbil dauden herrietatik mendebaldera zabaltzen baita: *ba al dakizue zuek eltzea nola eosten den ongi?* (ba al dakizue zuek eltzea nola egosten den ongi?), *orrek balio al du?* (horrek balio al du?), *bai al dakik nun abillen?* (ba al dakik non habilen?), *zengatik ez al tzien kont(u)ratzen, ba, orrengatik paat tzutela guutzia?* (zergatik ez al ziren konturatzen, bada, horrengatik paratu zutela gurutzea?)...

Galderetan, beraz, *al* erabil daiteke hala nahi izanez gero, baina *al* gabe ere, galdera zuzenak eginen ditugula jakin behar dugu, hori baita gure eskualdean galderak egiteko modu nagusia.

4.4 Lexikoa

Lexikoaren edo hiztegiaren atala izaten dute gisa honetako gramatika deskriptiboek, baina guk atal berezi bat egin nahi izan dugu, behin eta berriz azpimarratu dugun moduan, gure eskualdean biltzen baitira solas anitzen mugak. Hori dela eta, borzgarren atalean aukera izanen dugu ikusteko gure eskualdean Ituren eta Beintza-Labaien herrietan marra bat kokatuz gero, marra horretatik mendebaldera *esan*, *beste*, *asko*... erabiltzen direla eta marra horretatik ekialdera, *ordea*, *erran*, *bertze*, *anitz*...

Horrez gain, *EBEn* "[Zalantza eragiten duten zenbait hitz eta izen berezi](#)" atala dugu, arrunt interesgarria, praktikoa eta erabilerraza. Atal horretako sarreran aski garbi azaltzen du Euskaltzaindiak gida honetan zehar proposatutakoa:

Beltzez datozenak, batzuk letra lodiz eman dira, bestetzuk letra normalean. Beltzez agertzeak adierazi nahi du euskara batuan guztiak direla erabilgarriak, baina *Euskaltzaindiaren Hiztegiak*, nolabait esateko, mailaketa bat egiten duela haien artean: hemen letra lodiz ageri direnen alde egiten du, hain zuzen, dela forma estandarragoak direlako, dela aldaera nagusiak direlako, dela erabilera hedatuagoa dutelako.

Aukera nagusia ez direnak (*EBE* honetan letra biribil arruntez adieraziak), modu soilean ageri dira gehienetan Hiztegian (alegia, erabilera-adibiderik gabe), nolabait ere markatzeko bigarren mailakoak direla; normalki, gainera, lehen aukera den beste hitz definitzaile batek ematen die adiera. Hiztegiaren jarraibidea hori izanik ere, horrek ez du esan nahi egoera eta testuinguru guztietan hala behar duenik: **komunikazio-egoera zein —hartzailea, asmoa, testuingurua, helburua, tokia eta unea...—, bigarren mailako horiek ere guztiz egokiak (edo egokiagoak) izan litezke zenbait egoeratan. Testuinguruak aginduko digu zein aukeratu.**

5. MALERREKA ALDEKO MINTZOEN HIZTEGIA

Kontrakoa uste den arren, Bidaso aldean erabiltzen diren solas gehienak euskara batuko formak dira eta, hortaz, erabili eta bulkatu beharrekoak.

Jarraian ageri den hiztegiaren ezkerreko aldean batez ere Euskal Herriko erdialdean erabiltzen diren solasak ageri dira. Hala ere, zutabe horretan ere berez erdialdekoak ez diren, baina eskolaren nahiz komunikabideen eraginez zabaldu diren bertzelako solasak ere gehitu ditugu (*amaitu, apurtu, arkatz, erosketa...*). Era berean, gerta daiteke ezkerreko aldeko formez gain, Malerreka aldean eman ditugun formak ere erabiltzea Euskal Herriko erdialdean, baina horiek ez ditugu adierazi, gida honen helburua Malerreka aldeko herrietako mintzoak ezagutaraztea eta bulkatzea baita.

Erdiko zutabeari dagokionez, Malerrekako herri gehienetako⁵⁸ euskarako forma estandarrak edo batuak eman ditugu eta, eskuinekoan, aldiz, Zubieta nahiz Basaburu Ttiki aldekoak⁵⁹. Azken zutabe horretan, ordea, aniztetan forma bat baino gehiago ageri da, borts herri horien artean ezberdintasun ugari izaten baitira. Hori dela eta, zutabe horretan berean hasieran adierazi dugu zer herritako formak diren: *B-L* (Beintza-Labaien), *Er* (Eratsun), *Ez* (Ezkurra), *S* (Saldias) eta *Z* (Zubieta). Herri batean forma bat eta gainerakoetan bertze bat erabiltzen bada, *Gainerakoak* paratu dugu azken horiei erreferentzia egiteko.

Letra arruntean dauden hitz horiek guziak *Euskaltzaindiaren Hiztegian* ageri direla eta, hortaz, onartuak daudela. Zenbaitetan, forma horien ondoan, letra etzanez eta parentesi artean, zenbait hitz nola erraten diren azaldu dugu, baina garbi utzi nahi dugu ezin direla horrela idatzi. Bertzalde, letra etzanez eta parentesi gabe *Euskaltzaindiaren Hiztegian* onartuta ez dauden zenbait solas gehitu ditugu, gure eskualdean nola erraten diren jakiteko, baina momentuz behinik behin, Euskaltzaindiak ez ditu solas horiek onartu. Dena dela, horrek ez du erran nahi etorkizunean onartuko ez direnik, Euskaltzaindia euskalkietako solasak sartzen ari baita *Euskaltzaindiaren Hiztegian*.

Akitzeko, hiztegia ostutzen lagundu duten guzien laguntza ere eskertu nahi dugu: Tere Arretxea, Nerea Bazterrika, Izaskun Bertiz, Joxe Bertiz, Iñaki Camino, Antxon Erregerena, Anttonio Hernandorena, Miguel Hernandorena, Andres Iñigo, Patxi Iñigo, Marta Legazkue, Bittorio Lizarraga, Gloria Loperena, Pakita Mikelarena, Ainhoa Mitxeo, Martin Mitxeo, Antxone Otxandorena, Aitziber Ugalde, Migel Mari Ugalde, Martin Subizar, Pakita Telletxea...

58 Malerreka gehiena diogunean, honako herriez ari gara: Bertizaranako hiru herriak (Legasa, Narbarte eta Oieregi), Donamaria, Doneztebe, Elgorriaga, Ituren, Oiz, Sunbilla eta Urroz.

59 Bertze sail honetan honako herriak sartu ditugu: Zubieta, Beintza-Labaien, Eratsun, Ezkurra eta Saldias. Halere, aipatu nahiko genuke zenbaitetan Beintza-Labaienek multzo horrekin bat egin beharrean, Malerreka gehiena osatzen duten herrieekin bat egiten duela.

5. MALERREKA ALDEKO MINTZOEN HIZTEGIA

A

Erdialdekoa	Malerreka gehiena	Zubieta eta Basaburu Ttikia
agindu	manatu	agindu
ahaztu	atzen du	atzen du
aitabitxi	atautxi	atautxi
aitazulo	aitazorro (<i>attazorro</i>)	aitazorro (<i>attazorro</i>)
aitona	aitatxi, atautxi	atautxi
aje	bestondo	bestondo
ala	edo	edo
aldapa	malda	malda
aldatu	kanbiatu (<i>kanbitu</i>), aldatu	kanbiatu (<i>kanbiato, kanbitu</i>), aldatu
algara	<i>ajaja</i>	<i>ajaja</i>
algaraka	<i>ajataka, ajajaka</i>	irriz, <i>ajajaz</i>
altxatu	goitu (<i>goittu</i>), goratu	B-L / Z: goitu (<i>goittu</i>) / S: altxatu ⁶⁰
alu	<i>potota</i>	<i>potota</i>
amaitu	akitu (<i>akittu</i>)	akitu (<i>akittu</i>)
amazulo	<i>amazorro</i>	<i>amazorro</i>
amildu	amildu, erroiztu (<i>erroittu</i>)	amildu (<i>amilddu</i>)
amona	amatxi	amatxi
apaiz	apez	apez
aprobetxategi	<i>bekets</i>	<i>bekets</i>
apur ⁶¹	papur	B-L: apur / Gainerakoak: papur
apurtu	hautsi	hautsi
arkatz	lapitz	lapitz
arin	zalu (<i>zauli</i>)	zalu (<i>zauli</i>)
arkakuso	kukuso	kukuso
arkume	bildots	bildots
armiarma	armiarma (<i>irmiarma</i>)	B-L / S: armiarma (<i>irmiarma</i>) Z: <i>amaraun (amaun)</i>
armiarma sare	<i>amaraun (sare)</i> ⁶² (<i>amon sari, amauma</i>), armiarma sare (<i>irmiarma sari</i>)	<i>amaraun sare</i> (B-L: <i>emaun sare</i>) Z: <i>amon sare, amauna</i> S: armiarma sare
arnas	hats	hats
arnasestu	hatsankatu, hatsanditu	hats estuka
arnasestuka	hatsanka	B-L: hats estuka / Gainerakoak: hatsanka
arnas hartu	hats hartu	hats hartu

60 Bittorio Lizarragak azaldu digu Basaburu Ttiki guzian *goitu (goittu)* ere erabiltzen dela.

61 *Euskaltzaindiaren Hiztegia*n ikusten ahal den moduan, *apur* solasak *pixka bat* erran nahi du, baina, horrez gain, gure eskualdean *zerbaiten, bereziki ogiaren, zati txikiari* erreferentzia egiteko ere erabiltzen da.

62 Batetik, *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* dio *amarauna* *armiarma sare*a dela, baina gure eskualdean *animaliari* eta *armiarma sareari* deitzen zaie horrela. Bertzalde, *Orotariko Euskal Hiztegia*n ere ikusten ahal da *amaraun* solasak zer aldaera duen eta bi adiera dituela.

5. MALERREKA ALDEKO MINTZOEN HIZTEGIA

A

Erdialdekoa	Malerreka gehiena	Zubieta eta Basaburu Ttikia
arrastaka	herrestaka, herrestan	B-L / Z: arrastaka Gainerakoak: herrestan
arrautza	arroltze (<i>arroltzi</i>)	arroltze (<i>arraultzi</i>)
artean	<i>artekan</i> (<i>artakan</i>)	<i>artekan</i> (<i>artakan</i>)
askatu	laxatu (<i>lixatu</i>)	laxatu (<i>lixatu</i>)
asko	B-L: aunitz / Gainerakoak: <i>asko</i>	B-L: aunitz / Gainerakoak: <i>asko</i>
astegun	astelegun (<i>astelun</i>) ⁶³	B-L: astegun Gainerakoak: astelegun (<i>astelun</i>)
asun	asun (<i>asuñ</i>)	asun (<i>asuñ, osiñ</i>)
atximur	zimiko	zimiko (Er / Ez: <i>azpintze</i>)
atze	gibel	atze ⁶⁴
atzeratu	gibelatu	atzeratu (<i>atzetu</i>)
aurre	aitzin (<i>aintzin</i>)	aurre ⁶⁵
aurreratu	aitzindu (<i>aintzindu</i>)	aurreratu (<i>aurreto, aurtu</i>)
azkar ⁶⁶	agudo (<i>abudo</i>)	agudo
azken	hondar	B-L / S: azken / Z: hondar
azkenean	hondarrean (<i>ondarrin</i>)	azkenean (<i>azkenin, azkenen</i>), hondarrean (<i>ondarrin, ondarren</i>)
azkura	aznahi (<i>asnai</i>)	aznahi (<i>asnai</i>)

B

Erdialdekoa	Malerreka gehiena	Zubieta eta Basaburu Ttikia
babarrun	banabar ⁶⁷	B-L / S: eltzari (<i>eltzarie, eltzari gorrie</i>) Er / Ez: banabar (<i>bana(a)rra</i>) Z: <i>mailar</i> ⁶⁸ (<i>mallar</i>)
barrabil	potoko (<i>potoko, potoku</i>)	potoko (<i>potoko, potoku</i>)
barre	irri	irri
batez beste	banaz bertze ⁶⁹	batez beste

63 Orotariko Euskal Hiztegian ageri den moduan, gurean [aste gorri](#) ere erabiltzen da *aste egun* errateko.

64 Beintza-Labaienen *gibel* ere aditzen ahal da.

65 Bittorio Lizarragak erran digu Beintza-Labaienen ere *aitzin* erabiltzen dela.

66 Iñaki Caminok ohartarazi digu erdialdean *aguro* ere erabiltzen dela. Forma hori ez dago onartua idatzirako, *agudo* baita *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* jasotzen duena.

67 Ituren eta Zubietan *mailar* deitzen diote.

68 Orotariko Euskal Hiztegian begirutzen badugu, ikusiko dugu [mailar](#) solasari Bortzirietan *ilar* deitzen zaiola eta Basaburuan, berriz, *mai ilar*. Beraz, baliteke *mahai ilar* izatea *mailar* aldaeraren jatorria.

69 *Batez beste* forman oinarrituta, anitz zabaldu da *batez bertze*, baina hori ez da zuzena, bertze erabiltzekotan, *banaz bertze* behar duelakoz izan.

5. MALERREKA ALDEKO MINTZOEN HIZTEGIA

B

Erdialdekoa	Malerreka gehiena	Zubieta eta Basaburu Ttikia
behe	beheiti (<i>betti</i>)	beheiti (<i>betti</i>)
behean	beheitian (<i>bettin</i>)	beheitian (<i>bettin</i>)
behera	beheitira (<i>bettira</i>)	beheitira (<i>bettira</i>)
behintzat	behinik behin (<i>benpin</i>)	behinik behin (<i>benpin, beinpin</i>)
belardi	belai (<i>belagi</i>)	belai (<i>belagi</i>), soro (<i>soru</i>)
belarri	beharri (<i>biarri, bigarri</i>)	beharri (<i>biarri</i>), belarri
beldur	ikara (<i>ikari</i>)	ikara (<i>ikari</i>)
beldurtu	ikaratu (<i>ikatu</i>) ⁷⁰	ikaratu (<i>ikatu</i>)
berandu	mantso	mantso, berandu (<i>berando</i>)
berehala	istantean (<i>ixtantin</i>), instant batean (<i>ixtanpatin</i>), instanteko (<i>ixtanteko</i>)	istantean (<i>ixtantin</i>), instanteko (<i>ixtanteko</i>)
berriro	berriz (<i>berrizen</i>)	berriz
beste	bertze	B-L: bertze / Gainerakoak: beste
bestela	bertzela	B-L: bertzela / Gainerakoak: bestela
beti	beti, betiro	beti
bi	bi, biga (<i>bida</i>)	bi ⁷¹
bidali	igorri, bidali, lekutu ⁷²	bidali
bide batez	bidenabar	bidenabar
bidezidor	xenda, bidexka (<i>bidaxka</i>)	xenda
bigun	beratz	beratz
bigundu	beratu (<i>beraztu</i>)	beratu (<i>beraztu</i>)
biharamun ⁷³	bestondo	bestondo
biki	bibiro (<i>bibiru</i>)	B-L / S: bizki (<i>bixki</i>) / Z: bibiro
biloba	iloba	iloba
biluzik	larrugorrian (<i>larrugorritten</i>)	B-L: larrugorrian (<i>larrugorrin</i>) Gainerakoak: biluzik (<i>billuxik</i>)
bosgarren	borzgarren	bosgarren (<i>boskarren</i>)
bost	bortz	bost
botaka	goitika (<i>gottika</i>)	goitika (<i>gottika</i>)
botaka egin	goitika egin (<i>gottika in</i>)	goitika egin (<i>gottika in</i>)
bukatu	akitu (<i>akittu</i>)	akitu (<i>akittu</i>)
bultzatu	bulkatu	bulkatu
buruargi	erne (<i>erni</i>)	erne (<i>erni</i>)
bururatu	gogoratu (<i>gogotu</i>)	gogoratu (<i>gogotu</i>)

70 Bertizaranan *izitu* ere erraten da, baina idazteko forma onetsia *izutu* da.

71 Bittorio Lizarragak azaldu digu Beintza-Labaienen ere *bida* erabiltzen dela.

72 *Lekutu* aditzak *kendu*, *desagerrarazi* edo *norbait modu txarrean bidali* erran nahi du. *Igorri* eta *bidali*, *berriz*, sinonimoak dira.

73 *Aje* solasaren sinonimoa da.

5. MALERREKA ALDEKO MINTZOEN HIZTEGIA

D

Erdialdekoa	Malerreka gehiena	Zubieta eta Basaburu Ttikia
damutu	urrikitu (<i>urrikittu</i>)	B-L / Z: urrikitu (<i>urrikittu</i>) S: damutu
dardara	daldara (<i>daldaria</i>)	B-L / Z: daldara (<i>daldaria</i>) Gainerakoak: dardara (<i>dardarie, dardaria</i>)
dardarka	<i>daldaritan (daldaitten, daldarittan)</i>	<i>daldarika, daldarittan</i>
dena dela	berdin ⁷⁴	berdin
doministiku ⁷⁵	atija, usin (<i>atruxiñ⁷⁶, errautsiñ</i>)	atija, usin (<i>erruxin, arrauxin, arruxiñ</i>)

E

Erdialdekoa	Malerreka gehiena	Zubieta eta Basaburu Ttikia
egunsenti	argi haste (<i>argisti</i>)	argi haste (<i>argisti</i>)
eguraldi	denbora	denbora
ehiza	ihizi (<i>izi</i>)	ihizi (<i>izi</i>)
ekain	garagarri, <i>garagartzaro (garartzuru, gararzu)</i>	E: garagarri S: <i>garagartzaro</i>
eltxo	ulitxa	ulitxa
eltzekari	eltzari	eltzari
entzun	aditu (<i>aittu</i>)	aditu (<i>aittu</i>)
erosketa	mandatu	mandatu
erosketak egin	mandatuak egin ⁷⁷ (<i>mandatuk in, mandautuk in</i>)	mandatuak egin (<i>mandatuk in</i>), mandatutara joan (<i>mandatuta yuan</i>)
errain	errain (<i>erregin</i>)	errain (<i>Er / Ez: erreiñe / S: erreiña</i>)
erratz	eskoba, isatsa ⁷⁸	eskoba
erraz	aisa, aise	aisa
erre ⁷⁹	kiskali (<i>kizkali</i>)	kiskali (<i>kizkali, kixkali</i>)

74 Gaztelaniazko *total* errateko erabiltzen da *berdin*.

75 *Doministiku* latineko *Dominus tecum* esapidetik heldu da (euskaraz *Jauna zurekin*). Egun *usinari* deitzen zaio horrela, nahiz jatorria *usin* egin eta gero erraten ziren solasetan dagoen.

76 *Orotariko Euskal Hiztegia*n begiratu gero, ikusiko dugu euskara batuan onartua dagoen *atija* edo bere aldaera *atrija*ren barruan bertze hainbat aldaera daudela, gure eskualdean erabiltzen direnen antzekoak.

77 Berez adiera zabalagoa du, bertze edozein motatako lan ttikei ere *mandatu* deitzen baitzaie (paper kontuak, abisuak pasatzea...).

78 Bertizaranan erabiltzen da *isats* solasa, Baztanen bezala.

79 *Erabat erre* erran nahi du *kiskali* aditzak.

5. MALERREKA ALDEKO MINTZOEN HIZTEGIA

E

Erdialdekoa	Malerreka gehiena	Zubieta eta Basaburu Ttikia
erregu ⁸⁰	erregu (<i>errugu</i>)	erregu
errementari	arotz	arotz
errieta	errieta (<i>errixta</i>)	errieta (<i>errixta</i>)
esan	erran	B-L: erran Gainerakoak: esan ⁸¹ (<i>san</i>)
esanahi	erranahi	B-L: erranahi / Gainerakoak: esanahi
eskerrak	beharrik (<i>biarrik</i> ⁸²)	beharrik (<i>biarrik</i>)
eskerrik asko	esker mila	eskerrik asko ⁸³
eskumuinak	goraintziak (<i>goraintzik</i>)	goraintziak (<i>goraintzik</i>)
eseri	jarri (<i>yarri</i>)	jarri (<i>yarri</i>)
esnatu	ernatu	B-L: ernatu / Er: iratzarri
etorri	heldu ⁸⁴	heldu
ezbehar	makur	makur
ezer ez	deus ere, garaurik ez (<i>garanik ez, gaanik ez</i>)	deus ere
ezkondu	esposatu (<i>espostu</i>)	esposatu
ezkutatu	altxatu, gorde	altxatu, gorde
eztarri	zintzur	zintzur
eztarri latza	marranta (<i>marranka</i>)	marranta (<i>marranka</i>)

F

Erdialdekoa	Malerreka gehiena	Zubieta eta Basaburu Ttikia
festa	besta	B-L: besta / Gainerakoak: festa (<i>fiesta</i>)

80 Garai batean erabiltzen zen neurria da.

81 Beintza-Labaienen *erran* eta *erranahi* erabiltzen dira batez ere.

82 Ez diogu *h* paratu gure eskualdean ez delako ahoskatzen.

83 Beintza-Labaienen *esker aunitz* erraten da.

84 Norbait une horretan etortzen ari delarik erabiltzen da *heldu da*.

5. MALERREKA ALDEKO MINTZOEN HIZTEGIA

G

Erdialdekoa	Malerreka gehiena	Zubieta eta Basaburu Ttikia
gaitzeru	gaitzeru (<i>gaitzuru</i>)	gaitzeru
gaixo	eri ⁸⁵	eri
gaixotasun	eritasun	eritasun
galbana	zakur nabarra	zakur nabarra
galdera	galdemodu	galdemodu
ganadu	azienda (<i>azinda</i>)	azienda (<i>azinda</i>)
ganbara	sabai	sabai (B-L: <i>sabaria</i> / Gainerakoak: <i>sabaia, sabaie</i>)
ganoragabea	ilupa ⁸⁶ (<i>illupa</i>)	ilupa
garaiz	tenorez	tenorez
garatxo	kalitxa (<i>karitx</i>)	kalitxa
garo	iratze (<i>iratzi</i>)	iratze (<i>iratzi</i>)
gau	arrats ⁸⁷ , gau	arrats, gau
gehiegi	sobera	sobera (<i>sobra</i>)
gor	sor	sor
gora	goiti (<i>gotti</i>)	goiti (<i>gotti</i>)
gorabehera	goiti-beheiti (<i>gotti-betti</i>)	goiti-beheiti (<i>gotti-betti</i>)
goratu	goitu, goititu	goitu
gorde	altxatu	gorde, altxatu
gordeka	altxapeka	gordeka
gorotz	ongarri	ongarri
gosari	otamen ⁸⁸ , gosari	B-L: otamen / Gainerakoak: gosari
guraize	aiztur	aiztur, guraize (<i>boraxi, buruxi, buxi</i>)
gutxi gorabehera	guti goiti-beheiti (<i>guttiz gotti-betti, gutti gotti-betti</i>)	gutxi goiti-beheiti ⁸⁹ (<i>gutxi gotti-betti</i>)
guzti	guzi	guzi
guztiz	arrunt (<i>arron, arrontin</i>)	arras (<i>arraso, raso</i>), arrunt (<i>arron</i>)

85 *Erixko* anitzetan erabiltzen da *erdi eri*, *erdi gaixorik* errateko.

86 *Eskasa*, *fundamentu gutxikoa* errateko erabiltzen da. *Ergel*, berriz, irain larria da. Badirudi *ergel* emakumeei lotutako iraina dela, beraz, gizonendako are mingarriagoa omen da.

87 *Euskaltzaindiaren Hiztegian* ikus daitekeen moduan, [arrats](#) ilunabarrari edo gaueko lehen orduei erreferentzia egiteko erabiltzen da.

88 Gure eskualdean [otamen](#) solasa erabiltzen zen mokaduari edota otordu nagusietatik kanpo egiten den janaldi arinari erreferentzia egiteko.

89 Malerreka gehiengan eta Beintza-Labaienen *gutti goitti-betti* erraten da, baina *guti goiti-beheiti* idatzi behar da.

5. MALERREKA ALDEKO MINTZOEN HIZTEGIA

H

Erdialdekoa	Malerreka gehiena	Zubieta eta Basaburu Ttikia
handi-handi	alimale (<i>animali</i>)	alimale (<i>animali</i>)
hankazpi	hanka zola ⁹⁰	hanka zola
hare	legar, hondar	legar, hondar
hasiera	hasmenta (<i>aspenta, asmenta</i>)	hasiera
hego haize	haize hego (<i>aizegu</i>)	haize hego
herren	maingu	maingu
herrenka	mainguka	mainguka
heste	hertze (<i>ertzi</i>)	hertze (<i>ertzi</i>)
hirugihar	xingar	xingar
hirurogei	hiruretan hogeï (<i>irutan oei</i>)	hirurogei ⁹¹ , hiruretan hogeï (<i>irutan oei</i>)
hirurogeita hamar	hiruretan hogeita hamar (<i>irutan oeitamar</i>)	hiruretan hogeita hamar ⁹² , hirurogeita hamar
hitz	solas	B-L: solas / Gainerakoak: jolas ⁹³
hitz egin	solastatu (<i>solastu</i>), solas egin, mintzatu	B-L / S / Z: solas egin Er / Ez: jolas egin
hitzeman ⁹⁴	agindu	agindu
hizkera	mintzaira, solas	Er / Ez: jolas / Gainerakoak: solas
hizketan	solasean (<i>solasin</i>)	solasean (<i>solasin</i>)
hobeto	hobeki	hobeki
hodei	laino (<i>laño, lañu</i>), goibel ⁹⁵	laino (<i>laño, lañu</i>), hodei, goibel
honezkero	gaurgero ⁹⁶ (<i>gargero</i>)	gaurgero (<i>gargero</i>)
horma	pareta	pareta
horrela	hola	hola
hozka	ausiki (<i>atxiki</i>)	hozka
hozka egin	ausiki egin (<i>atxiki in</i>)	hozka egin
hoztu	hormatu	hormatu
hurrupa	zurrupa	zurrupa
hurruptatu	zurruptatu	zurruptatu

90 *Euskaltzaindiaren Hiztegian hanka nahiz zola ikus ditzakegu, baina ez hanka zola. Orotariko Euskal Hiztegian, berriz, [hanka zola](#) ageri da oinaren azpiko aldea errateko.*

91 Eskualde guzian *hiruretan hogeï, hiruretan hogeita hamar...* erabiltzen dira.

92 Adinekoek erabiltzen dute batez ere.

93 *Solas* erran beharrean, Basaburu Ttikian [jolas](#) erabiltzen dute eta, anitzek uste dutenaren kontra, *Euskaltzaindiaren Hiztegian* onartua dago.

94 *Promes egin* erranahia duelarik.

95 *Euskaltzaindiaren Hiztegian goibel* solasa begiratzen badugu, ikusiko dugu *hodei* adiera ez dela azalpenetan ageri, baina adibideetan bai. Orotariko Euskal Hiztegian ere ikusten ahal da [goibel](#) erabiltzen dela *hodei* errateko.

96 *Gaurgero* erratean, ez dakigu ziur ekintza gertatu ote den.

5. MALERREKA ALDEKO MINTZOEN HIZTEGIA

Erdialdekoa	Malerreka gehiena	Zubieta eta Basaburu Ttikia
ibai	ugalde ⁹⁷	erreka, ugalde
idatzi	eskribitu	eskribitu
igel	negel ⁹⁸ , zetel ⁹⁹	negel, igel
igo	igan	goitu (<i>goittu</i>), igo (<i>io</i>)
infektatu	gaiztotu (<i>gaixtatu</i>)	gaiztotu (<i>gaixtatu</i>)
intxaur	eltzaur (<i>giltzaur</i>)	intxaur (<i>iltxaur</i>), eltzaur (<i>eltxaur</i> , <i>eltzaur</i>)
inurri	xinaurri (<i>ziñurri</i> , <i>xiñurri</i>)	xinaurri (<i>xingurri</i> , <i>zingurri</i> , <i>xiñurri</i>)
irail	buruil (<i>burubil</i>)	irail
irakurri	leitu (<i>leittu</i>)	leitu (<i>leittu</i>)
irausi	inaus (<i>iñaus</i>)	inaus (<i>iñaus</i>)
iritsi	ailegatu (<i>alletu</i>)	ailegatu (<i>alletu</i>)
irribarre	irri murriz	irri murriz
irten	atera (<i>ate</i> , <i>ateri</i>)	atera (<i>ateri</i> , <i>atere</i>)
irudi	iduri	iduri (<i>idui</i>)
iruditu	iduri izan ¹⁰⁰ (<i>idui</i>)	iduri izan (<i>idui</i>)
itogin	itaxur (<i>itxasura</i>)	itaxur (B-L: <i>itxoxera</i> / Gainerakoak: <i>ittoixuri</i> , <i>itaixure</i>)
itsatsi	atxiki (<i>itxeki</i>)	atxiki (<i>itxeki</i>)
itxaron	esperatu (<i>espetu</i>)	esperatu (<i>espetu</i> , <i>espeto</i>)
itxi	itxi, hetsi	itxi, hetsi
izara	maindire (<i>mainddiri</i> , <i>maindiri</i>)	maindire
izotz	horma	horma ¹⁰¹
izoztu	hormatu	hormatu

97 Malerreka gehiengan *erreka* eta *ugaldea* ez dira gauza bera, lehenbizikoak *erreka txikia* erran nahi baitu, bigarrenak, aldiz, *ibaia*. Dena den, *EHHAn* begiratzen badugu, ikusiko dugu Basaburu Ttikian ez dela bereizketa hori egiten, [erreka](#) baita *ibaia* errateko erabiltzen den forma.

98 *EHHAn* kontsulta eginez gero, ikusten ahal dugu Euskal Herri osoan nola erraten den [igel](#) solasa.

99 *Igelari* nahiz *zapaburuari* erreferentzia egiteko erabiltzen da. *Orotariko Euskal Hiztegian* ere ikusten ahal dira [zetel](#) solasaren bi adiera horiek.

100 *Euskaltzaindiaren Hiztegian* ikus daiteke [irudi izan](#) Iparraldean eta Nafarroan erabiltzen den aditza dela *aipatzen* denaren *itxura izan edo hura izan* balitz bezala azaldu adierazteko.

101 Bittorio Lizarragak azaldu digunaren arabera, Eratsunen eta Ezkurran, gutxiago bada ere, *koille* ere erraten da.

5. MALERREKA ALDEKO MINTZOEN HIZTEGIA

J

Erdialdekoa	Malerreka gehiena	Zubieta eta Basaburu Ttikia
jai	besta	B-L: besta Gainerakoak: festa (<i>fiesta</i>) ¹⁰²
jaio	sortu	sortu, jaio
jaitsi	jautsi, baxatu (<i>bajatu</i>)	jautsi, baxatu (<i>bajatu</i>)
jakina	noski, dudarik gabe (<i>duikabe</i>)	noski (<i>nuski</i>), dudarik gabe (<i>duikabe</i>)
jantzi	jauntzi, beztitu	jauntzi
jario handia	arraka ¹⁰³	arraka
jarri	paratu (<i>patu</i>)	paratu (<i>patu</i>)
jendetza	jendalde	jendalde
jipoitu	zanpatu	zanpatu, txikitu (<i>txikittu</i>)
jo	jo, berotu	jo
jolas	josteta, jostaketa	jostaketa
jolastu	jostatu, jostetan aritu	jostatu

K

Erdialdekoa	Malerreka gehiena	Zubieta eta Basaburu Ttikia
kakagura	kakagale (<i>kakale</i>)	kakagale (<i>kakale</i>)
kakati	kakontzi	kakontzi, kakati
kale	karrika	karrika
kare	gisu (<i>kisu</i>)	gisu (<i>kisu</i>)
karobi	gisu labe (<i>kisu labe</i>)	gisu labe (<i>kisu labe</i>)
katuka	potikoka (<i>pottikoka</i>)	katuka
kontuz ibili	kasu eman (<i>kasu man</i>)	kasu eman (<i>kasu man</i>)
korrika	lasterka	lasterka
korrika egin	laster egin	laster egin
kostata	karrakilaka ¹⁰⁴ (<i>karrakillaka</i>)	karrakilaka

102 Beintza-Labaienen *besta* da.

103 *Orotariko Euskal Hiztegia*n ikus daiteke *arraka* zerbaiten *jario handiari* erreferentzia egiteko erabiltzen dela: [odo/arraka](#), [izerdi arraka](#)...

104 *Ezinean*, *ederki kostata* errateko erabiltzen da.

5. MALERREKA ALDEKO MINTZOEN HIZTEGIA

L

Erdialdekoa	Malerreka gehiena	Zubieta eta Basaburu Ttikia
labana	nabala	B-L: nabala Gainerakoak: labana
lanegun	astelegun ¹⁰⁵ (<i>asteleun, astelun</i>)	B-L: astegun Gainerakoak: astelegun (<i>astelun</i>)
lapurtu	ebatsi	ebatsi
lasai	trankil, lasai	trankil, lasai
laster	agudo (<i>abudo</i>)	agudo (<i>auda</i>)
legamia	orantza	orantza
lehen ¹⁰⁶	arestian (<i>aixtin</i>)	arestian (<i>aixtin</i>)
lehenengo	lehenbiziko (<i>lenbizko, lemizko, lemiziko</i>), lehendabiziko	lehenbiziko (<i>lenbizko, lenbiziko, lemizko, lemiziko</i>)
lehengo ¹⁰⁷	arestiko (<i>aixtiko</i>)	arestiko (<i>aixtiko</i>)
lehor	idor	idor
lehortu	idortu	idortu
logura	logale	logale
lokatz	lohi	lohi

M

Erdialdekoa	Malerreka gehiena	Zubieta eta Basaburu Ttikia
madari	udare	udare
malgu	zalu (<i>zauli</i>)	zalu (<i>zauli</i>)
mami	gaztanbera	gaztanbera
maneatu	maneatu ¹⁰⁸ (<i>manitu</i>)	maneatu (B-L: <i>manitu</i> / Gainerakoak: <i>manito, maneto</i>)
marigorringo	katalingorri (<i>kattalingorri</i>)	katalingorri (<i>kattalingorri</i>)
marrubi	marrubi (<i>maraguri, maruri</i>)	marrubi (<i>maruri, marubi</i>)
masail	mazela ¹⁰⁹ , matela	mazela, matela
masaileko	zaplato (<i>zapleteko</i>), zartako, matelezurreko ¹¹⁰	zartako, matelezurreko

105 *Euskaltzaindiaren Hiztegian* bildua dago [astegun buruzuri](#) forma ere.

106 *Duela gutxi* erranahia duelarik.

107 *Duela gutxiko* errateko.

108 *Euskaltzaindiaren Hiztegian* azaltzen da [maneatu](#) solasak, bertzeak bertze, *janariez mintzatuz, prestatu, ondu* erran nahi duela.

109 *Mazela* ipurdiko masailari, aurpegikoari nahiz mendiko aldapari erraten zaio. *Matela*, berriz, aurpegikoari.

110 Aurpegian ematen den zartako handiari *matelezurreko* deitzen zaio.

5. MALERREKA ALDEKO MINTZOEN HIZTEGIA

M

Erdialdekoa	Malerreka gehiena	Zubieta eta Basaburu Ttikia
masailezur	matelezur	matelezur
masusta	mazurtza	mazurtza (B-L: <i>maxurtxi</i> / Gainerakoak: <i>mazurtze</i>)
menpe	men	men
menpean	men ¹¹¹ (<i>menin</i>)	men (<i>menen, menin</i>)
mesedez	faborez	faborez
mihi	mingain	mingain
mindu	minberatu	minberatu (<i>minbetu</i>)
min handi	oinaze (<i>oñazi</i>)	oinaze (<i>oñazi</i>)
momentu	istant (<i>ixtant</i>), momentu	istant (<i>ixtant</i>)
momentuan	istantean (<i>ixtantin</i>), momentuan (<i>momentun</i>)	istantean (<i>ixtantin</i>)
momentu batean	istant batean (<i>ixtant batin</i> , <i>ixtanpatin</i>)	istant batean (<i>ixtant batin</i>)
motots	tutulu ¹¹² (<i>ttuttulu</i>)	tutulu (<i>ttuttulu</i>), <i>tontor</i> ¹¹³
moztu	moztu, ebaki	moztu

N

Erdialdekoa	Malerreka gehiena	Zubieta eta Basaburu Ttikia
nahiko	aski	aski

111 *Norbaiten mendean, agindupean egoteari norbaiten menean egotea erraten zaio. Euskaltzaindiaren Hiztegiko [men](#) solasaren lehen adieran argi azaltzen da -en atzizkiaren eskuinean erabiltzen dela, leku-atzizkiekin eta singularrean.*

112 *Baztango Mintzoa: gramatika eta hiztegia* liburuko 473. orrialdean ere ageri da solas hori. *Ille puztan, galdurru...* ere aditu ditugu *motots* errateko.

113 *Orotariko Euskal Hiztegia*n hamaikagarren adieran ikusten ahal da [tontor](#) solasak *motots* ere erran nahi duela.

5. MALERREKA ALDEKO MINTZOEN HIZTEGIA

O

Erdialdekoa	Malerreka gehiena	Zubieta eta Basaburu Ttikia
ohe	ohatze (<i>guatze</i>)	ohatze (<i>guatze</i>)
ohitu	jarri (<i>yarri</i>)	jarri
oin	zango (<i>xangu</i>)	B-L: zango / Gainerakoak: hanka ¹¹⁴
oker	makur	makur
ondo	ongi, poliki (<i>polliki</i>)	ongi
ongi egon	poliki egon	poliki egon
orkatila	hanka lepo ¹¹⁵	zurmiu, zormio ¹¹⁶
oso	arrunt (<i>arron, arrontin</i>), hagitz (<i>aitz</i>)	arrunt (<i>arron, arrontin</i>), hagitz (<i>aitz</i>), oso
ospel	ospel (<i>mospel</i>)	ospel (<i>mospel</i>)
ostegun	ortzegun	B-L: ortzegun Gainerakoak: ostegun ¹¹⁷ (<i>osteun</i>)
ostiral	ortzirale (<i>ortzila</i>)	B-L: ortzirale (<i>ortzila</i>) Gainerakoak: ostiral (<i>ostila</i>)
otarre	zare	zare

P

Erdialdekoa	Malerreka gehiena	Zubieta eta Basaburu Ttikia
pila	mukuru ¹¹⁸	mukuru, pila
pixagura	pixagale (<i>pixale</i>)	pixagale (<i>pixale</i>)
pixoihal	xatar ¹¹⁹ , pixoihal	B-L: <i>gunddiri</i> / S: haur zapi (<i>arzapi</i>) ¹²⁰
poliki	mantso	mantso
pozik	kontent	kontent
presaka	tarrapataka	tarrapataka, presaka
promes egin	agindu	agindu
puskatu	hautsi, xehatu (<i>xetu</i>), hondatu	hautsi, xehatu (<i>xetu</i>), txikitu (<i>txikittu</i>)

114 Zubietan denari *hanka* erraten diote, ez dute *oina* bereizten.

115 *Baztango Mintzoa: gramatika eta hiztegia* liburuko 499. orrialdean *zangolepo* ageri da.

116 *Orotariko Euskal Hiztegia* antzeko [aldaerak](#) ikusten ahal dira.

117 Beintza-Labaienen *ortzegun* eta *ortzirale* dira.

118 *Zerbaiten multzoa edo pila* denean *mukuru*a bada ere, *egurra ongi pilatua* dagoelarik ere, *egur pila* deitzen zaio.

119 Baztanen eta Bertizaranan erabiltzen da.

120 *Euskaltzaindiaren Hiztegia* [haur oihal](#) ikusten ahal dugu eta segur aski *arzapi* horren azpian *haur zapi* egonen da.

5. MALERREKA ALDEKO MINTZOEN HIZTEGIA

S

Erdialdekoa	Malerreka gehiena	Zubieta eta Basaburu Ttikia
saguzar	gauenara (<i>gauñara</i>), saguzar (<i>xaguxar</i>)	gauenara (<i>gabenara</i>), saguzar ¹²¹ (<i>xaguxar</i>)
sakatu	zapatu	zapatu
sargori	sargori (<i>sargo</i>), sapa ¹²²	sargori, sapa
saski	esporta ¹²³	esporta
segur aski	noski ¹²⁴	noski (<i>nuski</i>)
sinistu	sinetsi	sinetsi
so	belai (<i>belagi</i>)	so

T

Erdialdekoa	Malerreka gehiena	Zubieta eta Basaburu Ttikia
taberna	ostatu	ostatu
tarrapatan	tarrapataka	tarrapataka
triku	sagarroi	sagarroi
truke	alde ¹²⁵	alde
trumoi	ortots	ortots, ostots
txahal	aratxe (<i>aretxi, aretzi</i>)	aratxe (<i>aretxe</i>)
txapel	zapel	zapel
txekor	aratxe (<i>aretxi, aretzi</i>)	aratxe (<i>aretxe</i>)
tximeleta	pinpilinpauza	tximeleta ¹²⁶
txiza	pixa ¹²⁷ (<i>piza</i>)	pixa

121 EHHAn ikus daitekeen moduan, Sunbillan [sorgintxori](#) erraten da. Beintza-Labaienen, aldiz, *itsukapelu* erabiltzen dute, nahiz forma hori ez den hizkera formalerako onartua. Bertizaranan *gabako xorrua* erraten zaio (*gaueko txoria*).

122 Bertizaranan bi formak erabili izan dira, nahiz egun *sargori* nagusi izan.

123 *Saski handia* denean, [buru zare](#) deitzen zaio.

124 *Noski* erabiltzen da *ustea* eta *zalantza* ere adierazteko: *uste dut etorri dela. Noski bai* (hori uste dut, baina ez nago ziur).

125 *Zerbaiten truke* beharrean, *zerbaiten alde* erraten da gure eskualdean. Ikus ditzagun pare bat adibide: *lenuo ori erraten tzuten, zerbaiten alde trukatu, kanbiatu, saldu ez, diru aldera ez* (lehenago hori erraten zuten, zerbaiten truke trukatu, kanbiatu, saldu ez, diru truke ez), *mantenun alde yuaten tziren lanera bertze itxetara* (mantenuaren truke joaten ziren lanera bertze etxeetara)... Halere, lehen adibidean ikus daitekeen moduan, *trukatu* aditza ere existitzen da, baina *gauzak trukatzeko* direlarik erabili ohi da.

126 EHHAn ikus daitekeen moduan, Beintza-Labaienen [xiripittona](#) erraten da.

127 Hizkera informalean, *pixa* handia egiten denean *pizzerreka* erraten da, baina batuan [pixa erreka](#) idatzi behar da.

5. MALERREKA ALDEKO MINTZOEN HIZTEGIA

U

Erdialdekoa	Malerreka gehiena	Zubieta eta Basaburu Ttikia
uholde	<i>urangal (uangal)</i>	uholde, urangal
ukuilu	soto ¹²⁸ (<i>sotu</i>)	soto, heia (<i>ei</i>)
urtarril	ilbeltz	ilbeltz
urtxintxa	katagorri (<i>kattagorri</i>), katapurtxintxa ¹²⁹	katagorri (<i>kattagorri</i>)
utzi ¹³⁰	zarpail	zarpail

Z

Erdialdekoa	Malerreka gehiena	Zubieta eta Basaburu Ttikia
zabu	gorgoina (<i>gorgongillu</i> , <i>gorongillu</i> , <i>gorgongilla</i>)	<i>korda</i>
zapaldu	zanpatu, zapatu	zanpatu, zapatu
zaparrada	erauntsi	erauntsi
zapo	apo	apo
zarata	asots	asots, soinu
zarata handia	burrumba	burrumba
zaunka	sainga	sainga
zaunkaka	saingaka	saingaka
zergatik	zertaz	zertaz
zikinkeria	zolda	zolda
zilbor	xilko (<i>zilko</i> , <i>zilku</i>)	xilko, zilbor (<i>xilbor</i>)
zintzarri	joare ¹³¹	joare (<i>yoari</i> , <i>yoale</i>)
zotin	txukun (<i>xukun</i>)	txopin ¹³²
zulo (<i>amazulo</i> , <i>aitazulo</i> ...)	zorro (<i>amazorro</i> , <i>aitazorro</i> ...)	zorro (<i>amazorro</i> , <i>aitazorro</i> ...)
zurrutaka	arraka	arraka

128 *Euskaltzaindiaren Hiztegian* azaltzen den moduan, etxe baten behe-itiko solairuari deitzen zaio [soto](#) eta aziendak han izaten ziren.

129 Bertizaranan bi formak erabiltzen dira. *Katapurtxintxa* Baztanen ere erabiltzen da, *Baztango Mintzoa: gramatika eta hiztegiko* 396. orrialdean ikus daitekeen moduan.

130 Arropa zikin edo zaharrekin ibiltzen den pertsonari deitzen zaio horrela.

131 Joare izena orokorra den arren, joare handiei *pulunpa* deitzen zaie. *Euskaltzaindiaren Hiztegian* [bulunba](#) ageri da, *Orotariko Euskal Hiztegian*, aldiz, bertzelako [aldaerak](#) ikusten ahal ditugu.

132 Beintza-Labaien *xopiña* erraten da, baina ezin da horrela idatzi.

5. MALERREKA ALDEKO MINTZOEN HIZTEGIA

Bertzelako esapide eta egitura batzuk ere bildu nahi izan ditugu lexikoaren ondotik, haiek indartu eta gal ez daitezen:

Arropa edo bertze zerbait estreinatzean:

Zimikoberri!

Dolumina adierazteko norbait hiltzen denean:

Osasuna enkomendatzeko

Eskerrak ematean:

- Esker mila! / Eskerrik asko¹³³!
- Ez da zerik¹³⁴ / Ez da zergatik / Ez horregatik¹³⁵

Goizean agurtzean:

- Egin duzu lo? / Egun on. Egin duzu lo?
- Nik bai. Hik ere bai? / Bai, zuk ere bai?

Gauean agurtzean:

- Pasatu gabon / Gabon pasa
- Baita zuk ere / Pasatu gabon / Gabon pasa

Norbait ezagutzean:

Urte askotarako!
Urte aunitzetako! / Aunitz urtetako!

Norbait bere urtebetze egunean zoriontzeko:

Aunitz urtez!




133 Zubieta eta Basaburu Ttikian erabiltzen da.

134 *Orotariko Euskal Hiztegia*n ikusten ahal dira bertzelako [aldaerak](#) eta haien hedadura.

135 Zubietatik mendebaldera erabiltzen da.

6. LEKUKOTASUNAK

Atal honek orain arte azaldutako guzia modu praktikoan ikustea du helburu; izan ere, Mikel Belaskoren laguntzaz [Malerreka solasean](#) liburuarekin batera heldu zen DVDko hainbat lekukotasun berreskuratu eta hona ekarri nahi izan ditugu.

Pasarte horiek guziak  ikurrean klik eginez gero aditzen ahal dira eta, jarraian, transkribapena bi modutan ageri da: euskalkian erraten den bezala lehenik, eta ondotik, transkripzio horiek euskara batuan emanda.

BEINTZA-LABAIEN

Teila buruan

Emakumia elizin sartuzen tzen gero, aurrikin eliza yaten tzen. Zortzi-amar bat eunen buruen edo ola, yartzen tzenin ungi edo, ona, elizin sartzera, elizin sartu barra zatn zen. Eta apezari abixten zezion ia nois nai dun yoatea, eta, onelako euntan, edo onelko arratsadlin, do onelko goizin do erraan zizun. Ta ordun, bittartiño, tellatua... zera, tella patuta ibilli bar zaten men tzun.

Ink.: Eta? Buruan paratuta?

Buruen tella... tella patuta, bai, billi bar omen tzun. Biño gore denboatan yan tzen ori.

Ink.: Biño ori zer tzen, itxetik atetzeko edo itxian ere bai?

Txia re... etxiin ez! Txetik atetzeko zate men tzen ori.



Euskara batuan

Emakumea elizan sartzen zen gero, haurrarekin elizara joaten zen. Zortzi-hamar bat egunen buruan edo hola, jartzen zenean ongi edo, hona, elizan sartzera, elizan sartu beharra izaten zen. Eta apezari abisatzen zitzaion ea noiz nahi duen joatea, eta, honelako egunetan, edo honelako arratsaldean, edo honelako goizean edo erranen zizun. Eta orduan, bitartean, teilatua... zera, teila paratuta ibili behar izaten omen zuen.

Ink.: *Eta? Buruan paratuta?*

Buruan teila... teila paratuta, bai, ibili behar omen zuen. Baina gure denboratan joan zen hori.

Ink.: *Baina hori zer zen, etxetik ateratzeko edo etxean ere bai?*

Etxea ere... etxean ez! Etxetik ateratzeko izaten omen zen hori.

DONAMARIA



Sorginek neska eraman

Sorgiñak... bai, sorgiñak bazirela, biño, klaro... ek fedi ura bazuten, kusten zittuztela. Gure amaxik erraten tzun ura egun batin yuan tzela errotara, illundu zaiola, errotara yuan da illundu. Eta, etzakila sorgiña zen... Epelun barna yuan tzela bueltan, ta astun antziñin yarri zela gizaseme baten forman bat. Eta astuk ura ondora tortzekin ezpen tzun pausorik maten. Eta, arre! ta arre! ta ezpen tzun pausurik maten. Eta gero, orduan erraten men tzen ta sorgiña zain tzela, ta sorgiña zela... Eta, amaxi asto gañin, eta erran men tzion... ori:

- Mundu untara baldi... mundu untako baldin bazara, mintza zitte! Ezpazara mundu untakua, onda zitte! - erran men zion-

Eta orduan ja Aitaren in men tzun amaxik eta desaparezittu omen tzen, sorgiña... do... ori, Donamarin zaten tzen más bien sorgiñen ori. Errot zarrin zaten tzirela sorgiñak, Donamarin.

Eta orduan erraten zuten, ori... Mengotxia, an itxe bat ederra, etzutela urik erraten tzun(...) ta etzutela urik. Ta neska bat, ango etxeke alabari erran ziotela:

- Neska yuan bark'un ferrat ori artu ta ur eske.

Ferrata zaten tzen zurezko zera bat. Ur eske, ta yuan men tzen ta erran men tzion:

- Bai, biño sorgiñak gargerero aterik dire...

- Bai, biño utziko yaute, etzala kasik in.

Yuan men tzen, ta sorgiñak artu men zuten, kendu men zioten ferrata, eta erran men zioten yuain zirela Mengotxera eta errain zutela: "Gaba gabazkundako, eguna egunazkundako, eta zuen Maria ezta geigo Mengotxerako". Ta banba! bota zutela ferrata, sorgiñak.

Euskara batuan

Sorginak... bai, sorginak bazirela, baina, jakina... haiek fede hura bazuten, ikusten zituztela. Gure amaxik erraten zuen hura egun batean joan zela errotara, ilundu zitzaioa, errotara joan eta ilundu. Eta, ez zekiela sorgina zen... Epeloan barna joan zela bueltan, eta astoaren aitzinean jarri zela gizaseme baten forman bat. Eta astoak hura ondora etortzearekin ez omen zuen pausorik ematen. Eta, arre! eta arre! eta ez omen zuen pausorik ematen. Eta gero, orduan erraten omen zen eta sorgina izanen zela, eta sorgina zela... Eta, amaxi astoaren gainean, eta erran omen zion... hori:

- Mundu honetako baldin bazara, mintza zaitetz! Ez bazara mundu honetako, honda zaitetz! -erran omen zion-

Eta orduan ja Aitaren egin omen zuen amaxik eta desagertu omen zen, sorgina... edo... hori, Donamarian izaten zen *más bien* sorginen hori. Errota zaharrean izaten zirela sorginak, Donamarian.

Eta orduan erraten zuten, hori... Bengoetxea, han etxe bat ederra, ez zutela urik erraten zuen (...) eta ez zutela urik. Eta neska bati, hango etxeke alabari erran ziotela:

- Neska joan beharko dun ferreta hori hartu eta ur eske.

Ferreta izaten zen zurezko zera bat. Ur eske, eta joan omen zen eta erran omen zion:

- Bai, baina sorginak gargerero atera dira...

- Bai, baina utziko haute, ez kasurik egin.

Joan omen zen, eta sorginek hartu omen zuten, kendu omen zioten ferreta, eta erran omen zioten joango zirela Bengoetxera eta erranen zutela: "Gaua gauekoendako, eguna egunekoendako, eta zuen Maria ez da gehiago Bengotxerako". Eta banba! bota zutela ferreta, sorginek.

DONEZTEBE



Euskara eta gaztelania

Emen lemeziko itxi ortan(...), Romanen borda, lemeziko itxia. Ta or karretera... ta paeta ta karretera, ura etzen ainberze kotxik ibitzen ordun! Or aitze iñen pillotan. Ta patu iñun raia bat, paetan, ta gu... aitze iñen pillotan.

Taatsaldekolabak, bortzakaldin... olabortzak aldin, tortzn tzien Narbartetiken, Oieregitiken, Legasatik neskatzak Doneztebera, a la capital, ordun kapitala omen tzen au oikindako... Ta, eldu zien ta, iru anai an dire a... yuan zien Ameiketaa, ta ni, ni... gaztenatiken ta:

- *I, mia se... eldu ittuk alakuk! Ze neska ura!*

- *I, ze errango ziu? Ze erra... ze errango ziu? (...)*

- *Joño! Ze erran biar... jayos guapas!*

- *Oi... ori gutti duk! ¡Simpáticas! –benpen berzi... bertzik–.*

- *Simpática... oi miño aundixigua...*

Ze, ze... ze atrasamientua! Ta, bat Inaxio, arrunt trastia zen ta:

- *Ni... nik erranen tziot ¡Adiós antepáticas! Oi erran bar tziogu!*

Eldu zien neskatzak eta:

- *Ai zate pillotan?*

Da:

- *Jo, ze neskatzak majuk...*

- *Ta, bueno... aios! aios!*

- *¡Adiós! ¡Adiós! ¡Antepáticas!*

- *Mekaguen... la letxe puta! Ze erran ote ziu?*

Ze, nola bizi yu? 36 giñen, e! ordun, e!

Ink.: Pentsatuz geiago zela, ez?

Geigo zela... antepática...

Euskara batuan

Hemen lehenbiziko etxe horretan (...), Romanen borda, lehenbiziko etxea. Eta hor karretera... eta pareta eta karretera, hura ez zen hainbertze autorik ibiltzen ordun! Hor aritzen ginen pilotan. Eta paratu genuen marra bat, paretan, eta gu... aritzen ginen pilotan.

Eta arratsaldeko laurak, bortzak aldean... hola bortzak aldean, etortzen ziren Narbartetik, Oieregitik, Legasatik neskatzak Doneztebera, a la capital, ordun kapitala omen zen hau horiendako... Eta, heldu ziren eta, hiru anaia han dira... joan ziren Ameriketara, eta ni, ni... gazteenetatik eta:

- Hi... heldu dituk halakoak! Ze neska hura!

- Hi, zer erran gogo zieagu? Zer erra... zer erran gogo zieagu? (...)

- Joño! Zer erran behar... jayos guapas!

- Hori... hori gutxi duk! ¡Simpáticas! –behinik behin bertze... bertzeak–.

- *Simpática... hori baina handixeagoa...*

Ze, ze... ze “atrasamientoa”! Eta, bat Inaxio, arrunt trastea zen ta:

- *Nik erranen zieat ¡Adiós antepáticas! Hori erran behar zieagu!*

Heldu ziren neskatzak eta:

- *Ari zarete pilotan?*

Eta:

- *Jo, zer neskatzak majoak...*

- *Eta, bueno... aios! aios!*

- *¡Adiós! ¡Adiós! ¡Antepáticas!*

- *Mekaguen... la letxe puta! Zer erran ote zieagu?*

Zer, nola bizi ginen, e! ordun, e!

Ink.: Pentsatuz gehiago zela, ez?

Gehiago zela... antepática...

6. LEKUKOTASUNAK

ELGORRIAGA



Elkarri laguntzea

Baldi'mazien suak erreta do zera, ta ordun ya denek zera zu... zuten, maten zuten bakoitzak orrenbertzeko bat dañundako. Bai, laguzen zen, erri guzia yuntazen zen itxe bat erretzen bazen, erri guzi yuntatzen zen ayuda itteko, bai.

Ta, azinda porejenplo, azinda bat erroiztu ta desgrazen baldin bazen, pues itten zen ura karnizerua karri, garbittu, ta, errin bertan, itxe... baldin bazen tokia modun benpiñen itxin bertan partitzen tzun karnizeruk kiloka-kiloka. Eta gero itxez itxe saltzen ibilli, bai. Ta baita, errin ezpazen aski, kanpura yuaten zen aragia saltzera.

Euskara batuan

Baldin baziren suak erreta edo zera, eta orduan ja denek zera zu... zuten, ematen zuten bakoitzak horrenbertzeko bat kalteendako. Bai, laguntzen zen, herri guzia juntatzen zen etxe bat erretzen bazen, herri guzia juntatzen zen ayuda egiteko, bai...

Eta, azienda adibidez, azienda bat erroiztu eta desgraziatzen baldin bazen, pues egiten zen hura karnizeroa ekarri, garbitu, eta, herrian bertan, etxe... baldin bazen tokia moduan behinik behin etxean bertan partitzen zuen karnizeroak kiloka-kiloka. Eta gero etxez etxe saltzen ibili, bai. Eta baita, herrian ez bazen aski, kanpora joaten zen haragia saltzera.

ERATSUN



Arrautzeekin harmaila hautsi nahi

Beste bein, or satte(n) zaio Domardolako arria do, or, Ezkurran. Ta, pentsatu men tzuen armal ura autsi bar tzuela arraultzekin.

Ink.: Ezkurriarrek?

Ezkurdiarrek. Eta, aman in ttue kriston arraultze pillek ta ez austen armala, eta batek esan men tzin, esan men tzun:

- Espe zak, espe zak. Kore ollo beltza lepa sallek, arraultz itten dunak, aanak autsiko ik, bai!

Alle(g)ie, arraultze berrie ollok in ta arek¹³⁷ autsiko zuela, miño, ya arek ez autsi in omen tzuen, ez autsi.

Euskara batuan

Beste behin, hor esaten zaio Domardolako harria edo, hor, Ezkurran. Eta, pentsatu omen zuen harmaila hura hautsi behar zuela arroltzeekin.

Ink.: Ezkurriarrek?

Ezkurriarrek. Eta, eraman egin dituzte kristoren arroltze pilak eta ez hausten harmala, eta batek esan omen zuen, esan omen zuen:

- Espera ezak, espera ezak. Gure oilo beltz lepa soilak, arroltzea egiten duenak, harenak hautsiko dik, bai!

Alegia, arroltze berria oiloak egin eta hark hautsiko zuela, baina, ja hark ez hautsi egin omen zuen, ez hautsi.

137 Berez espero genezakeen forma *hark* da, baina baliteke inkestatzaileen eraginez erabiltzea *harek*.

EZKURRA



Sortzea eta bataioa

Ink.: Leenagoko bataioak nolakoak izaten tziren?

Oso polittek!

Ink.: Noiz izaten zen bataioa? Jaio ta, umea jaio, ta...?

Jaio ta bila)ramunen. Oaiñ, berrez, iru illeten burua, igual. Ta urte beten burua igual!

Ink.: Ta nor joaten zen bataiora?

O! Atautxi-amatxi ta ume kozkor oik denak. Denak! Botzen baitzioan diru! Ta, diru bota ezkie... Pozik! An ibilli aztarrika, arropa guzik austen! Zimitorio alakoa, alakoa da ori gañea, ta... bai, an aixe ibiltzen baizen.

Ink.: Nola deitzen zitzaion orri? Botatze orri.

Purruxke, purruxke, purruxkean bota. Bai. Aman tzun... amatten tzun poltsan, da, purruxkean bota. Emen amaan tzittun beltzak, or amaan tzittun txurik eta bitetek nasteko, bat emendek eta bestea ortik bota! Bai.

Ink.: Eta ori atautxik botatzen zun?

Bai, bai,(a)tautxik.

Ink.: Eta botatzen ez balin bazuen?

U! Atautxi puxkiñero, poco dinero! Beti ortan, e? Erdaaz beti! Atautxi puxkiñero, poco dinero! Ze gauze, e!

Euskara batuan

Ink.: *Lehenagoko bataioak nolakoak izaten ziren?*

Oso politak!

Ink.: *Noiz izaten zen bataioa? Jaio eta, umea jaio, eta...?*

Jaio eta biharamunean. Orain, berriz, hiru hilabeteren buruan, igual. Eta urte beteren buruan igual!

Ink.: *Eta nor joaten zen bataiora?*

O! Atautxi-amatxi eta ume kozkor horiek denak. Denak! Botatzen baitzitzaien dirua! Eta, dirua botaz gero... Han ibili aztarrika, arropa guziak hausten! Zimitorio halakoa, halakoa da hori gainera, eta... bai, han aise ibiltzen baitzen.

Ink.: *Nola deitzen zitzaion orri? Botatze horri.*

Purruxka, purruxka, purruxkan bota. Bai. Eraman zuen... eramaten zuen poltsan, eta, purruxkan bota. Hemen eramanean zituen beltzak, hor eramanean zituen zuriak eta bietatik nahasteko, bat hemendik eta bestea hortik bota! Bai.

Ink.: *Eta hori atautxik botatzen zuen?*

Bai, bai, atautxik.

Ink.: *Eta botatzen ez baldin bazuen?*

U! Atautxi puxkinero, poco dinero! Beti horretan, e? Erdaraz beti! Atautxi puxkinero, poco dinero! Zer gauza, e!

6. LEKUKOTASUNAK

ITUREN

Laminak nolakoak ziren



Ink.: Eta lamik nolakoak ziren? Dena urrezkoa zuten ta ola, ez?

Urrezku zuten dena, bazakiten ta gañea nun tzen urria...(...) bai... dena-dena-denak), orraxik eta, burruntzalik eta, platerak eta, kazuk eta, denak, denak ola...

Ink.: Eta nolakoak ziren adittu duzu nozbattere? Amaxiri do...?

Ama... arek erratn tzun: "Bueno, nai zuna artu oaiñ!". Aurra yaio zenin, aurra de... de... deit tzuten aurra... zateko. Eta nik uste den, or, Yoanin zun aizpa, eta...

Ink.: Nork?

Andri orrek o emagiñ orrek. Ta aizpa... aizpa zelakoz, ori... man tzion aizpakeri zerbatt, ora... ori itteko. Yoanen ere baita ori iña.

Ink.: Yoaneko andria etzuten deitu lamiek, emagin lanak egiteko?

Ez, ez, ez, ez. Barbenekua. Bertan, ondo-ondun(...).

Ink.: Eta, Barbeneko andria zer? Emagin lanak itteko deitu zuten, ez?

Emagin lanak itteko erriz erri, itxes itxe ibilzen zen, Ittunan itxes itxe, ta ek ikas zuten, e... duilk) gabe komo... ba, yakinen zuten... da lamik... orik aise yakitten baita dena... Ta, deitu) tzuten ta, aurra yaio zenin:

- Bueno, nai zuna artu oain, otik] pat zuretako In zu mesede ederra ta...

Arek aria itten aitzen aunitz ta xarrantxa ederra kusi.

Ink.: Urrezku gañera, ez?

Urrezku...

- Auxe eram bar dit.

Ta, oaxe.

- Bueno, atze... atzera beitu eram bar tzu, e! Dena musikikin yuain gera.

Ui! Ui! Ura musika aztik...

Ink.: Itxeño, laguntzen zioten?

Itxeño, itxe ataiño.

Ta:

- Atzera begitzen bali'mazu, kenduko zugu.

Ta, atzera ez begitu biño, anka sartu zunin bat, ya! musikeru nai zun kusi...

- Bueno, erdia.

Ta musik... aen erdikin ingo izun ainbertze etxe ta... ordun ok... baliko zuen igual, urre puska arek, e... oainko millon bat. Eta ordun oainko millon batekin itten zain ziren amar itxe. Bos milla duro, lau...

Ink.: Eta orduan etxe aunitz erosi zittun, ez?

Erosi ta in, itxe ondun. Denak... ta...

Ink.: Ta ze itxe dire oiek?

Ta landan ere la... lurrik obenak, eta...

Ink.: Ze etxe dire Barbenekuk erosi zittuztenak? Xarrantxan diruikin...?

Oi! Onena... denak, e... Barbenekuk erraten diou guk, Barbenekuk dire, ondu artan, denak ondun.

Euskara batuan

Ink.: *Eta lamiak nolakoak ziren? Dena urrezkoa zuten eta horrela, ez?*

Urrezkoa zuten dena, bazekiten eta gainera non zen urrea... (...) bai... den-den-denak, orraziak eta, burrunzaliak eta, platerak eta, eltzeak eta, denak, denak hola...

Ink.: *Eta nolakoak ziren aditu duzu noizbait ere? Amatxiri edo...?*

Ama... hark erraten zuen: "Bueno, nahi duzuna hartu orain!". Haurra jaio zenean, haurra deitu zuten haurra... izateko. Eta nik uste den, hor, Joanean zuen ahizpa, eta...

Ink.: *Nork?*

Andre horrek edo emagin horrek. Eta ahizpa... ahizpa zelakoz, hori... eman zion ahizpari zerbait, hura... hori egiteko. Joanean ere baita hori egina.

Ink.: *Joaneko andrea ez zuten deitu lamiak, emagin lanak egiteko?*

Ez, ez, ez, ez. Barberenekoak. Bertan, ondo-ondoan (...).

Ink.: *Eta, Barbereneko andrea zer? Emagin lanak egiteko deitu zuten, ez?*

Emagin lanak egiteko herriz herri, etxez etxe ibiltzen zen, Iturenen etxez etxe, eta haiek ikasi zuten, e... dudarik gabe... ba, jakinen zuten... eta lamiak... horiek aise jakiten baitute dena... Eta, deitu zuten eta, haurra jaio zenean:

- Bueno, nahi duzuna hartu orain, hauetarik bat zuretako. Egin duzu mesede ederra eta...

Hark haria egiten aritzen anitz eta txarrantxa¹³⁸ ederra ikusi.

Ink.: *Urrezkoa gainera, ez?*

Urrezkoa...

- Hauxe eraman behar dut.

Eta, huraxe.

- Bueno, atze... atzera begiratu eraman behar duzu, e! Dena musikariekin joanen gara.

Ui! Ui! Hura musika atzetik...

Ink.: *Etixeraino, laguntzen zioten?*

Etixeraino, etxe atariraino.

Eta:

- Atzera begiratzen balin baduzu, kenduko dizugu.

Eta atzera ez begiratu baina, hanka sartu zuenean bat, ja! musikaria nahi zuen ikusi...

- Bueno, erdia.

Eta musika... haren erdiarekin egin gogo zituen hainbertze etxe eta... orduan hauek... balioko zuen igual, urre puska hark, e... oraingo milioi bat. Eta orduan oraingo milioi batekin egiten izanen ziren hamar etxe. Bost mila duro, lau...

Ink.: *Eta orduan etxe anitz erosi zituen, ez?*

Erosi eta egin, etxe ondoan. Denak...eta...

Ink.: *Eta zein etxe dira horiek?*

Eta landan ere... lurrik hoberenak, eta...

Ink.: *Zein etxe dira Barberenekoak erosi zituztenak? Xarrantxaren diruarekin...?*

Oi! Onena... denak, e... Barberenekoak erraten diogu guk, Barberenekoak dira, ondo hartan, denak ondoan.

138 [Txarrantxa](#) lihoa orrazteko erabiltzen zen.

6. LEKUKOTASUNAK

NARBARTE



Ezkontza: uztarria paratzea

Ezkontzen ai zenin aldarin, andriri tapatu burua geiago. ¡Es un paño! Arropa xuri bat. Elizan zaten zen, bai, bai, bere dibujak, bere bordatuk eta gauzak eta baaizue leenogo zer tzen gauza oitako. Orai biño pollitaguk itten tziren, e! Millaka gauza.

Ink.: Eta ze, patzen zitzaion gizonari re bai o...?

Gizonari ola, unaiño, biño andriri buruan, zert(a)z eta andrik egon bear du beti menin, gizonan menin. Erraziozu gaurkuri!

Euskara batuan

Ezkontzen ari zenean aldarean, andreari tapatu burua gehiago. ¡Es un paño! Arropa zuri bat. Elizan izaten zen, bai, bai, bere marrazkiak, bere bordatuak eta gauzak eta badakizue lehenago zer zen gauza horietarako. Orain baino politagoak egiten ziren, e! Milaka gauza.

Ink.: *Eta zer, paratzen zitzaion gizonari ere bai edo...?*

Gizonari horrela, honaino, baina andreari buruan, zertaz eta andreak egon behar du beti menean, gizonaren menean. Erran iezaezu gaurkoei!

SUNBILLA



Erleak

Guk benpen afizione ikaragarriya bagenun ortara, ui! ui! ui! ui! ui! Mekauen! txikitant! 39... gu allet zandu gara emendik iru ordun burun aritzin erliak ate, ta bi anaiok (...) bi orduko bidian bizkarrin ta erlakumek eta artu, ta ka... ariztikan eultzara ate, aizkorakin autsi aritza, onborrin sarzen baizien ba oik... (...) ta an itten tzuten erlik kabia, ta an sartzen tzien, ta yuan ta zeñek arraptu lemizko, gurutzi itten ion aritz areri ta geo yuan ta ate, ta kartzen ginttun. (...) Bai, tapatu ta leno ezkillla bezalko eultz tzar batzuk zaten tziren... yoari bezalko batzuk. Ta ek gero, o... ma... tel batekin, trapo batkin edo... zera, pañulu aundik zatn ie, aekin lotu ta kara... negun kartzen tzien ori, e!

139 Sunbillan ttiki erraten da.

Euskara batuan

Guk behintzat zaletasun ikaragarria bagenuen horretara, ui! ui! ui! ui! ui! Mekauen! txikitant... gu ailegatu izan gara hemendik hiru orduan buruan haritzean erleak atera, eta bi anaiok (...) bi orduko bidean bizkarrean eta erlekumeak eta hartu, eta ka... haritzetik eultzerraino, aizkorarekin hautsi haritza, enborrean sartzen baitziren ba horiek... (...) eta han egiten zuten erleek habia, eta han sartzen ziren, eta joan eta zeinek harrapatu lehenbiziko, gurutzea egiten zion haritz hari eta gero joan eta atera, eta ekartzen genituen. (...) Bai, tapatu eta lehenago ezkila bezalako eultze¹⁴⁰ txar batzuk izaten ziren... joare bezalako batzuk. Eta haiek gero, o... ma... tela batekin, trapu batekin edo... zera, zapi handiak izaten ziren, haiekin lotu eta jakina... neguan ekartzen ziren hori, e!

140 *Euskaltzaindiaren Hiztegian* ikusten ahal den moduan, [eultze](#) erlauntzari erraten zaio gure eskualdean.

LEGASA



Ezkontza tratuak

Oaiñ gooratzen naiz bat, kaso bat pasatu zena. Nik ez nun ezautu, miño nere ana... amak bai, erraten tzuen ezautu zula. Mutil bat, emengo mutil bat ederra, ori, Ultzamara yuan bar tzula andria billara. Ta leno itten (zu) ten attunak ostatur edo merkatun tratua: "Bai, nik battut iru alaba ta bat zure semindako". Ta itxalde ederrekua omen. Ta bueno, pues, yuateko. Ta, pues, erran tzion ze erritan ta izena, nor zen. Aren itxera yoa bear tzun izautzera andregai, etzakin ez nor zen mixabilik.

Ta ogeita bortz urte, mutilla elegancia, pues, emendiken Ultzamara yuateko pues goiz guzia oñez yoa zain tzen, pentsatzen dut. Ta yuaten omen da ta balangun nes... iru alaba bazittula ta etilk) bat zanen tzula. Ta, balangoko atia edeki zun neska gazte bat ta amasei-amazazpi urtekua, ta: "Au, au izan bar te du nere andregai?". Ta etzakin. "Ze pollita!". Eta ia nola zun izena, ta: "Bai, badakit) nor tzaren. Goazen, goazen itxera". Ta, atta ta ama an omen zien, sukaldin. Ta ekin bazkaldu omen tzun. Eta, ori, iru alaba. Ta, ori gustatu zion, gaztin ura, atia ideki zion ura.(...) Elkarrekin bazkaldu ta yoa omen tzien gero, salara atta ta amakin, ola. Ta, bueno, zein... zein alabakin esposu bar zun arek. Ta "Bai, mutikua, emen legik manatzen dun bezala, zaarnaz aintziña". Ta bera miño zazpi urte zarrugua andria. Ta, pues, "Orrekin esposu barko zu, gaztinak gerora enpleatuko dire ta". Oseake nola izaten zen! Eta ezautzera andregai, andik egun batzun burun esposuko, etzun bein ere ikusi, eta... ari gustatu tz(a)ion ttikiñ ura ta gero esposu zen zarnakin.

Euskara batuan

Orain gogoratzen naiz bat, kasu bat pasatu zena. Nik ez nuen ezagutu, baina nire amak bai, erraten zuen ezagutu zuela. Mutil bat, hemengo mutil bat ederra, hori, Ultzamara joan behar zuela andrearen bila. Eta lehenago egiten zuten aitonek ostatur edo merkatuan tratua: "Bai, nik baditut hiru alaba, eta bat zure semearendako". Eta etxalde ederrekua omen. Eta bueno, ba, joateko. Eta, ba, erran zion zein herritan eta izena, nor zen. Haren etxera joan behar zuen ezagutzera andregai, ez zekien ezta nor zen miserableak.

Eta hogeita bortz urte, mutila elegante, ba, hemendik Ultzamara joateko goiz guzia oinez joan izanen zen, pentsatzen dut. Eta joaten omen da eta balangoan nes... hiru alaba bazitueta eta horietatik bat izanen zuela. Eta, hango... atea ireki zuen, neska gazte bat eta hamasei-hamazazpi urtekoa, eta: "Honek izan behar ote du nire andregai?". Eta ez zekien. "Zer polita!". Eta ea nola zuen izena, eta: "Bai, badakit nor zaren. Goazen, goazen etxera". Eta, aita eta ama han omen ziren, sukaldean. Eta haiekin bazkaldu omen zuen. Eta, hori, hiru alaba. Eta, hori gustatu zitzaion, gazteen hura, atea ireki zion hura. (...) Elkarrekin bazkaldu eta joan omen ziren, gero, egongelara aita eta amarekin, hola. Eta, bueno, zein alabarekin esposatu behar zuen hark. Eta "Bai, mutikoa, hemen legeak manatzen duen bezala, zaharrenaz aitzina". Eta bera baino zazpi urte zaharragoa andrea. Eta, ba, "Horrekin esposatu beharko duzu, gazteenak gerora enpleatuko dira eta". Oseake, nola izaten zen! Eta ezagutzera andregai, handik egun batzuren buruan esposatzeko, ez zuen behin ere ikusi, eta... hari gustatu zitzaion ttikien hura eta gero esposatu zen zaharrenarekin.

6. LEKUKOTASUNAK

OIEREGI



Kontrabandoa

Ink.: Eta gero, inguru ontan kontrabando aunitz egin izandu da, ta ala, ez?

Emen... emen asi Ezkurratik, erraen nuke, Leitzatik asi ta Urepel, Aldude, Esnazu... dena, inguru guzin balio zun guzia yoaten zen kontrabandura. On zen guzia. Aferantza balen bazen do kaleko umi etik etzien mugitzen, biño baserriko yendia, dena!

Ink.: Ta ze garraiatzen zen?

Ekartzen tzen... nik eztut zautu kubiartak. Ezautu... ez naiz alletu kubiarta kartzen. Miño, yuxtu-yuxtua enaiz alletu, e! gañekuk denak. Kubiarta kartze omen tzuten... emen ezpaitzen kubiartik, Españin etzen kubiartik. Ta ekartzel(n) zen Franzitik kontrabandun. Ni biño amar urte zarraguk aittu dire kubiarta kartzen. Lan oso gogorra men tzen. Geo asi zen ori, bei zarrak. Gerra onduan andik kartze zen, ezpaizen aragirik emen. Emengo gerran deus(g)abe gelditu zen au. Tortze(n) zien Frantzik beiak. Ta tortzen tziren aunitz, geien-geienak tortzen tziren emendik, Bertiztik. Saratik Monunborda baserrirat) ta ortik Bertizera. Eta, Saban deskargatzen tzien beiak ta beiy'itten tzen nekatu. Ta igual Bertizeko sasi artan eroi itten ziren, nekatuta. Ta, oloko botell bat ardo eanazi, kla-kla-kla, ta beia yoaten tzen Ultzamaño, geldittu gabe.(...)

Lenbizin gogorra zen, oso gogorra; lenbizin. Biño gero, artzen zen bizio bat! Igual da elurra ai bau, ta orma ai bau, ta igual da saka ai badu, ta illuna, ta illargi... illargiik gabe berdin yoaten zara. Artzuzu bizio bat... eztuzu uzten ura! Ta guk iraazte giñun oeita amar duro, zera, Mugai(r) etik Ultzamako mugera, oeita amar duro. Biño, eun guzia lanin pasatu ta cuarenta pesetas iraazten zen, zorzi duro. Ta, nun gaña o, Bertizen, etziñun lanik, Iratira yoan bar z(i)ñun mendira, Iratin bakarrik zeon lana, etzen Lesakik, etzen Leizik, etzen Berako fabrikik, etzen fabrikik emen; ezpaitzen iñun e yeus ere! Ezpaitzen yaus ee iñon ere! Iratira, edo Frantzira, ...o kontrabandura.

Euskara batuan

Ink.: Eta gero, inguru honetan kontrabando aunitz egin izan da, eta hola, ez?

Hemen... hemen hasi Ezkurratik, erranen nuke, Leitzatik hasi eta Urepel, Aldude, Esnazu... dena, inguru guzian balio zuen guzia joaten zen kontrabandora. On zen guzia. Alfer antza baldin bazen edo, kaleko ume haietarik ez ziren mugitzen, baina baserriko jendea, dena!

Ink.: Eta zer garraiatzen zen?

Ekartzen zen... nik ez ditut ezagutu kubiartak. Ezagutu... ez naiz aritu kubiarta ekartzen. Baina, justu-justua ez naiz ailegatu, e! gainerakoak denak. Kubiarta ekartzen omen zuten... hemen ez baitzen kubiartarik, Espainian ez zen kubiartarik. Eta ekartzen zen Frantziatik kontrabandoan. Ni baino hamar urte zaharragoak aritu dira kubiarta ekartzen. Lan oso gogorra omen zen. Gero hasi zen hori, behi zaharrak. Gerra ondoan handik ekartzen zen, ez baitzen haragirik hemen. Hemengo gerran deus gabe gelditu zen hau. Etortzen ziren Frantziatik behiak. Eta etortzen ziren aunitz, gehien-gehienak etortzen ziren hemendik, Bertizetik. Saratik Monunborda baserrira(t) eta hortik Bertizera. Eta, Saran deskargatzen ziren behiak eta behia egiten zen nekatu. Eta igual Bertizko sasi hartan erori egiten ziren, nekatuta. Eta, holako botila bat ardo edanarazi, kla-kla-kla eta behia joaten zen Ultzamaraino, gelditu gabe. (...)

Lehenbizian gogorra zen, oso gogorra; lehenbizian. Baina gero, hartzen zen bizio bat! Igual da elurra ari badu, eta horma ari badu, eta igual da saka ari badu, eta iluna, eta ilargi... ilargirik gabe berdin joaten zara. Hartzen duzu bizio bat... ez duzu uzten hura! Eta guk irabazten genuen hogeita hamar duro, zera, Mugairitik Ultzamako mugara, hogeita hamar duro. Baina, egun guzia lanean pasatu eta cuarenta pesetas irabazten zen, zortzi duro. Eta, non gainera hor, Bertizen, ez zenuen lanik, Iratira joan behar zenuen mendira, Iratin bakarrik zegoen lana, ez zen Lesakarik, ez zen Leitzarik, ez zen Berako fabrikarik, ez zen fabrikarik hemen; ez baitzen inon ere deus ere! Ez baitzen deus ere inon ere! Iratira, edo Frantziara, edo... kontrabandora.



OIZ

Doneztebekoekin harremana

Doneztebe zen e... capital, gu ginen, berriz, caseros.

Ink.: Eta burla eta horrela egiten zizueten?

Bai, bai, haiek erdaraz zekiten eta guk ez genekien... haiek erdaraz. Baina okerragoa zen, euskaraz ez zuten ikasi eta erdaraz ere gaizki, gu baino okerrago... Eta, Doneztebe horrela egon da beti... gero bizi izan dira beti, goiko herri hauen kontura, bai. Hor lehengo zaharrak ziren famatuak... etxe batean igual medikua zela... bertzean ez dakit nor eta ja Madrilera bizitzera joanak eta, haiek egindako sosa hurrengo belaunaldiak jan egin zuen.(...)

Ink.: Ze harreman zenuten Doneztebekoekin?

Ink.: Bestetan eta horrela aritzen zineten dantzan elkarrekin, adibidez?

A... Doneztebeko neskekin? Ez, ez, ez, ez. Ba, ez ziren ariko, doneztebearrak a... ja kategoria gehixeago zuten. Elizondon gauza bera pasatzen zen, e! Bai. Nahi zuten como capital egin horiek... Elizondora joaten ginen dantzan eta ari ba Arizkungo neskak edo Erratzukoak edo... kanpokoekin(...). Eta hemen igual, e! Hemen ere Doneztebeko neskak han egonen ziren a verlas venir, Irun aldetik edo nonbait kanpokoia etorri baldin bazen ba harekin joanen ziren dantzara, bai.

Euskara batuan

Doneztebe zen e... capital, gu ginen, berriz, caseros.

Ink.: Eta burla eta horrela egiten zizueten?

Bai, bai, haiek erdaraz zekiten eta guk ez genekien... haiek erdaraz. Baina okerragoa zen, euskaraz ez zuten ikasi eta erdaraz ere gaizki, gu baino okerrago... Eta, Doneztebe horrela egon da beti... gero bizi izan dira beti, goiko herri hauen kontura, bai. Hor lehengo zaharrak ziren famatuak... etxe batean igual medikua zela... bertzean ez dakit nor eta ja Madrilera bizitzera joanak eta, haiek egindako sosa hurrengo belaunaldiak jan egin zuen. (...)

Ink.: Ze harreman zenuten Doneztebekoekin?

Ink.: Bestetan eta horrela aritzen zineten dantzan elkarrekin, adibidez?

A... Doneztebeko neskekin? Ez, ez, ez, ez. Ba, ez ziren ariko, doneztebearrak a... ja kategoria gehixeago zuten. Elizondon gauza bera pasatzen zen, e! Bai. Nahi zuten como capital egin horiek... Elizondora joaten ginen dantzan eta ari ba Arizkungo neskak edo Erratzukoak edo... kanpokoekin (...). Eta hemen igual, e! Hemen ere Doneztebeko neskak han egonen ziren a verlas venir, Irun aldetik edo nonbait kanpokoia etorri baldin bazen ba harekin joanen ziren dantzara, bai.

6. LEKUKOTASUNAK



SALDIAS

Garia ogia egiteko prestatzea

Bai, kartze zen zamatan itxera, ta geo ganbaran (u)tzitzen tzen giro ona torri arte, eguzkia o giro ona torri arte. Ta gero, aurretik eskatu bear zen lekua, txanda artzeko. Ta ordun, giro ona zenin, zuk baaziñun txanda, zuri matten zuten, miño, zure aurretik eskatu bazen txanda, leku ure artua bazen, zuk in bar tziñun espetu berriz denbora ona torri arte. Ta ola itten tzen. Ta ordun itten tzen dena, san dugun bezala, aberikin bueltaka-bueltaka, montonin patu gari buruk goitti direla, ta pikorra euzkik ta aberik zapatuz itten tzen zolera yoa.

Ink.: Ori ze, emen plazan?

Emen, plazan. Ta gero, klaro, lastoa kentzen tzen pixkan-pixkan. Ta gero, azkle(n)in gelditze zen zolan pikorra ta geo itten tzen... aizeilk) bazen, aizekin. Miño gero, kusten zen ya aizea izatea zalla zela re, ta ordun, klaro, zen katxarro bat eskuz emattekua! Aize makina(b) at bota lastoa ta garia naasin ta aize makinak itten tzun berexi pikorra alde batera ta lastoa bestera. Ta orexe kartze tzen txera, pikor pixko ura. Miño oso zalla itten zen.

Ink.: Eta aize makina ori ze izaten zen, errian bat, edo...?

Bai. Bat e... soziedadaren bezala, osea, emen... ze zaan ñen, ogei(itxe do ogeita amar do ala zaan giñen, denen arte erosi zaten zen ta gero itten tzen txandan-txandan, girua nola itten tzen, iru... iru do iru leku zaten tziren emen, giro ona zenin aproexteko egunean.

Euskara batuan

Bai, ekartzen zen zamatan etxera, eta gero ganbaran uzten zen giro ona etorri arte, eguzkia edo giro ona etorri arte. Eta gero, aurretik eskatu bear zen lekua, txanda hartzeko. Eta orduan, giro ona zenean, zuk bazenuen txanda, zuri ematen zizuten, baina, zure aurretik eskatu bazen txanda, leku hura hartua bazen, zuk egin bear zenuen itxaron berriz denbora ona etorri arte. Eta hola egiten zen. Eta orduan egiten zen dena, esan dugun bezala, abereekin bueltaka-bueltaka, pilan paratu gari buruak goiti direla eta pikorra eguzkiak eta abereek zanpatuz egiten zen zolara joan.

Ink.: Hori zer, hemen plazan?

Hemen, plazan. Eta gero, klaro, lastoa kentzen zen pixkanaka-pixkanaka. Eta gero, azkenean gelditzen zen zolan pikorra eta gero egiten zen... haizerik bazen, haizearekin. Baina gero, ikusten zen ja haizea izatea zaila zela ere, eta orduan, klaro, zen tramankulu bat eskuz ematekoa! Haize makina bat bota lastoa eta garia nahasian eta haize makinak egiten zuen bereizi pikorra alde batera eta lastoa bestera. Eta horixe ekartzen zen etxera, pikor pixka hura. Baina oso zaila egiten zen.

Ink.: Eta haize makina hori zer izaten zen, herrian bat, edo...?

Bai. Bat e... soziedadean bezala, osea, hemen... zer izanen ginen, hogeitxeko edo hogeitxeko hamar edo horrela izanen ginen, denen artean erositzen izaten zen eta gero egiten zen txandan-txandan, giroa nola egiten zen, hiru... hiru edo hiru leku izaten ziren hemen, giro ona zenean aprobetxatzeko egunean.



URROZ

Onddoak, zizak eta perretxikoak

Lenao biltzen tziren ondduak izaten ziren... ta etzen uste urte guzin izaten tzirela, eta biltzen tziren ondduak izaten ziren... orrirun... urrirua, otubren, iratz itten ai giñeliken. Eta oain man duu kontua aspaldin e... pues atetzen direla... asi maiatzan ceita zazpitik edo... biatik... iruatik edo asi, eta... beun... epoka dute... ia San Fermiñak alde arte. Eta gero... Amaberjiña... aurretik asi, eta... ya berriz Amariña ondu artio, ogei bat egu... amabos bat egunez.

Lebizko atetzen dire betti, beittik, asten dire betik gora, Frantzi aldetiken... (k) gero segitzen dute gotti... e... Norte aldetik, eta gero atetzen dire ya mendira ondarreko. Eta... oa, gero zaten dute... gero asten dire San Migel... aurrin, o San Miguel egunetan eta ya otubre guzia.

(...)

Ink.: Ta gero onddoak atetzeko ere illargiak badu... eragiña, ez?

Illargiak) badu bere eragiña... badu... neretako, nik, e... nik itzautzen... osea, kalkulatu dutenaz, ilberin atetzen dire ilber... berrian, illargi berrian atetzen dire... geigo. (...) Eta, ilberan, berriz, atetzen dire guttiago, ta zerbait baita re ederrago.

(...)

Goaiñ e... al baditteke moztu... ipurdia an utzi. Erraten dute ipurdin dula azia. Biño onddua, txanpiñonak ta itten ttute, biño ondduak itteko... sortzeko gizonak oaiñk eztu inbenturik ateri. Onddua sekretua da.

Euskara batuan

Lehenago biltzen ziren onddoak izaten ziren... eta ez zen uste... urte guzian izaten zirela, eta biltzen ziren onddoak izaten ziren... urrian... urrian, otubren, iratzea egiten ari ginelarik. Eta orain eman dugu kontua aspaldian e... pues ateratzen direla... hasi maiatzean hogeita zazpitik edo... bitik... hirutik edo hasi, eta... beren... garaia dute... ia San Ferminak alde arte. Eta gero... Amabirjina... aurretik hasi, eta... ja berriz Amabirjina ondo arte, hogeit bat egun... hamabost bat egunez.

Lehenbiziko ateratzen dira beheiti, beheititik, hasten dira behetik gora, Frantzia aldetik... haiek gero segitzen dute goiti... e... Norte aldetik, eta gero ateratzen dira ja mendira ondarreko. Eta... oa, gero izaten dute... gero hasten dira San Migel... urrian, edo San Migel egunetan eta ja otubre guzia.

(...)

Ink.: Eta gero onddoak ateratzeko ere ilargiak badu... eragina, ez?

Ilargiak badu bere eragina... badu... niretako, nik, e... nik ezagutzen... osea, kalkulatu dudanez, ilberrian ateratzen dira ilberrian, ilargi berrian ateratzen dira... gehiago. (...) Eta ilbeheran, berriz, ateratzen dira gutxiago, eta zerbait baita ere ederrago.

(...)

Orain ahal bada moztu... ipurdia han utzi. Erraten dute ipurdian duela hazia. Baina onddoa, txanpinoiak eta egiten dituzte, baina onddoak egiteko... sortzeko gizonak oraindik ez du asmakizunik atera. Onddoak sekretua da.

6. LEKUKOTASUNAK



ZUBIETA

Gangarabilak sendatzeko

Ink.: Eta gangabillak... sendatzeko?

Bai, ori gatz pikorra(k) patzen zeren.

Ink.: Nola zen? Ori...

Gangabillak bedetzi zaten tzeren... (...) eta bedetzi pikor patu. Eta... ziñatu gurutze bat iñez, ola beti gurutze bat iñez yoa...

Senarra: Gero sura bota...

Bai...

*“Gangabillak bedetzi,
bedetzik) zortzi,*

zortzik zazpi,

zazpik sei,

seie...

bostek lau,

lauk iru,

irul] pi,

bik bat,

*nere ganda... nere gangabillak
sendatzeko*

zirt! zart!”

Ta sura botzen tzen. Eta, pikor ekin denekin gauza bera itten zen, ziñatu. Bedetzi pikor aikin, bai. Ta yuaten zeren... bai... goizian barurik in bar zaten tzen(...). Bai, niri ziñatu zirazten.

Euskara batuan

Ink.: Eta gangarabilak... sendatzeko?

Bai, hori gatz pikorra paratzen ziren.

Ink.: Nola zen? Hori...

Gangarabilak bederatzi izaten ziren... (...) eta bederatzi pikor paratu. Eta... zinatuz gurutze bat eginez, horrela beti gurutze bat eginez joan...

Senarra: Gero sutara bota...

Bai...

“Gangarabilak bederatzi,

bederatzitik zortzi,

zortzitik zazpi,

zazpitik sei,

sei...

bostetik lau,

lautik hiru,

hirutik bi,

bitik bat,

nire gangarabilak sendatzeko

zirt! zart!”

Eta sutara botatzen zen. Eta, pikor haiekin denekin gauza bera egiten zen, zinatuz. Bederatzi pikor haiekin, bai. Eta joaten ziren... bai... goizean baraurik egin behar izaten zen (...). Bai, niri zinatuz zizkidaten.

7. BERTZELAKO BALIABIDEAK

Azken atal honetan, gida osoan zehar aipatu eta baliatu ditugun eta hagitz interesgarriak iruditzen zaizkigun baliabideak gehitu ditugu, edonork erabili nahi izanez gero, denak bilduta eskura izan ditzan.

Argitalpenak euskarri digitalean

[Baztango mintzoa erabiltzeko gida](#)

[Berría Estilo Liburua](#)

[EGLU I](#)

[Euskara batua eta euskalkiak Haur eta Lehen Hezkuntzan](#)

[Euskara batua eta tokian tokiko erabilera: korapiloak eta erronkak](#)

[Euskara batuaren egungo premiak](#)

[Euskararen Herri Hizkeren Atlasa](#)

[Malerreka solasean. Ahozko tradizioaren bilduma](#)

[Zalantza-dantza](#)

Bertzelako webguneak

EIBZren [Araugintza lantzeko](#) materiala

EIMAre [Euskal ikasmaterialen Estilo-liburua](#)

EHUren [EHUTSI](#)

[Euskaltzaindiaren webgunea](#)

[Euskaltzaindiaren arauak](#)

Euskaltzaindiaren [EODA](#) (Euskal Onomastikaren Datutegia)

[Euskaltzaindiaren Hiztegia](#)

Euskaltzaindiaren [Jagonet](#) zerbitzua

[Euskalkien erabileraz Irakaskuntzan, Komunikabideetan eta Administrazioan](#) adierazpena

[Euskara Batuaren Eskuliburua](#) (EBE)

[Orotariko Euskal Hiztegia](#) (OEH)

7. BERTZELAKO BALIABIDEAK

Ikus-entzunezkoak

[HABEren webgunea](#)

[Ahotsak](#)

[Artxibotik¹⁴¹](#)

[Bidasoa.info](#)

[Bortzirietako ahozko ondarearen bilketa](#)

[Nafarroako Euskararen Mediateka](#)

[Malerrekako ahozko ondarearen bilketa](#)

[Malerreka. Maldan goiti eta beheitiko kontuak, erreka bazterreko kantuak](#)

[Navarchivo](#)

Itzultzaileak

[Ni, Bidasoa](#)

[itzuli](#) itzultzaile neuronala

[Elia](#) Elhuyarren itzultzailea

Komunikabideak

[Erran.eus](#)

[Xorroxin irratia](#)

[Ttipi-ttapa aldizkaria](#)

Mapak

[Bonaparteren mapa](#)

[Zuazoren mapa](#)

Zuzentzaileak

[Hobelex](#)

[Xuxen](#)

141 *Erran.eus* webguneko atal bat da.

8. BIBLIOGRAFIA

APALAUZA, A. (2012). *Nafarroako ipar-mendebaleko hizkeren egitura geolinguistikoa*. Iruñea eta Bilbo. Euskaltzaindia eta Nafarroako Gobernua.

CAMINO, I. (1998). *Nafarroako hizkerak*. Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardunaldietako Agiriak. Bilbo. UEU.

_____ (1997). *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*. Iruñea. Nafarroako Gobernua.

_____ (2004). *Hego-nafarrera*. Iruñea. Nafarroako Gobernua.

EPELDE, I. (2004). *Larresoroko euskara*. Gasteiz. EHU.

ERDOZIA, J.L. (2001). *Sakana erdialdeko euskara*. Iruñea. Nafarroako Gobernua.

EUSKALTZAINDIA (1979). Adierazpena: "Euskara batua eta euskalkiak irakaskuntzan", in *Euskera* 24, 1979-2, 697-698.

_____ (1991). *EGLU I*. Bilbo. Euskaltzaindia.

_____ (2004). Adierazpena: "[Euskalkien erabileraz Irakaskuntzan, Komunikabideetan eta Administrazioan](#)"

_____ (2018). *Euskara Batuaren Eskuliburua*. Bilbo. Euskaltzaindia.

_____ (2021). *Euskararen gramatika*. Bilbo. Euskaltzaindia.

EUSKALTZAINDIA & EZKERRABERRI FUNDAZIOA (2020). [Euskara batua eta tokian tokiko erabilera: korapiloak eta erronkak](#). Bilbo. Euskaltzaindia.

IBARRA, O. (1995). *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*. Iruñea. Nafarroako Gobernua.

_____ (2000). *Erroibar eta Esteribarko hizkera*. Iruñea. Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

IÑIGO, P. SALABERRI, P. & ZUBIRI, J.J. (1995). "[-ki atzizkiaren gainean](#)". *FLV* 69. 234-295.

8. BIBLIOGRAFIA

IVAP. (2000). *Zalantza-dantzan*. Zarautz. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea.

LAKAR, M. & APALAUZA, A. (2005). *Malerreka solasean. Ahozko tradizioaren bilduma*. Iruñea. Malerreka Mankomunitatea eta Nafarroako Gobernua.

_____ (2013). *Baztango mintzoa erabiltzeko gida*. Baztan. Baztango udala.

MAIA, J. & LARREA, K. (2010). *Euskara batua eta euskalkiak Haur eta Lehen Hezkuntzan*. Bilbo. EHU.

OLANO, M. (1998). *Areso eta Leitzako hizkerak*. Iruñea. Nafarroako Gobernua & Leitzako eta Aresoko Udalak.

SALABURU, P. (1994) Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarreko txostena “*Euskara batuaren egungo premiak*”, in *Euskera* 39. 681-682.

SALABURU, P. & LAKAR, M. (2005). *Baztango Mintzoa: gramatika eta hiztegia*. Iruñea. Euskaltzaindia eta Nafarroako Gobernua.

ZELAIETA, E. (2004) “Bortzerrietako euskara, herriz herri (ez)berdintasunetan barrena (I)”. *FLV* 96. 223-248.

_____ (2005). “Bortzerrietako euskara, herriz herri (ez)berdintasunetan barrena (II)”. *FLV* 99. 287-306.

_____ (2005). “*Baztan-Bidasoako hizkeren ekarpena (Dialektologiatik ikasgelara)*”. *EUSKERA*. 50. liburukia, 2. zenbakia. 765-784.

_____ (2008). *Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa*. Iruñea eta Bilbo. Euskaltzaindia eta Nafarroako Gobernua.

ZUAZO, K. (1998). “Nafarroako euskal hizkerak” in I. Camino (arg.) *Nafarroako hizkerak. Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardunaldietako Agiriak*. Bilbo. UEU. 1-22.

_____ (2008). *Euskalkiak euskararen dialektoak*. Donostia. Elkarlanean.

_____ (2014). *Euskalkiak*. Donostia. Elkarlanean.

